

# Jakin159

martxo-a-apirila  
2007



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



## ZENBAKI HONETAN

**7**

### GAI NAGUSIA 50eko hamarkada Euskal Herrian

- 11** 50eko hamarkadako abertzaletasuna,  
jarraipena eta berrikuntza  
**MIKEL AIZPURU**
- 35** Diktadura eta errebolta  
**EMILIO LOPEZ ADAN**
- 49** Gerra Hotzaren gorian  
Mundu garaikidea finkatu zuen hamarkada  
**MIKEL ARAMENDI**
- 63** Sinestun metodikoak. Eliz mugimenduak  
eta gizartea 50eko hamarkadan  
**XABIER ITZAINA**
- 81** Euskal ekonomia 50eko hamarkadan  
**BALEREN BAKAIKOA**
- 91** Hamarkada isil bateko migrazioak  
**XABIER AIERDI**
- 109** 50eko hamarkada: langileriaren  
historiarako gunea  
**EMILIO MAJUELO**

## EGUNEN GURPILEAN

- 129** **JON BENITO**  
**LIONEL JOLY**  
**PATXI GAZTELUMENDI**

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jakingunea.com  
www.jakingunea.com

---

2007ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	9,50 €
KANPOAN		
Harpidetza	48 €	—
Ale arrunta	8 €	11 €

## SUMMARY



### THE 1950s IN THE BASQUE COUNTRY

#### Nationalism in the 1950s, continuism and renewal

The history professor Mikel Aizpuru analyzes the situation of Basque nationalism during the 1950s both in exile and at home. These were the toughest years for nationalism during the Franco era, precisely due to the international consolidation of the regime. **MIKEL AIZPURU**

#### Dictatorship and revolt

Emilio Lopez Adan, a writer and specialist in matters related to politics and society, provides us with a summary of the political history of the 1950s under the Franco regime: its international legitimization, political repression and cultural misery, prolonged armed resistance since the time of the civil war, opposition to the regime, the appearance of new social and political forces, the role of intellectuals against the regime, the emergence of ETA... **EMILIO LOPEZ ADAN**

#### In the glowing Cold War. The decade that established the contemporary world

Mikel Aramendi, a journalist specializing in international politics, presents us with the main international events of the 1950s—a decade marked by the establishment and threat of the Cold War. **MIKEL ARAMENDI**

#### Methodical believers. Ecclesiastical movements and society in the 1950s

Xabier Itzaina, a researcher in political science, analyzes the role of the church in political affairs during the 1950s—both as an institution and via social movements such as Acción Católica—, when it exerted a huge influence and wielded great power over Basque society on both sides of the border. **XABIER ITZAINA**

## The Basque economy in the 1950s

The economics professor Baleren Bakaikoa focuses on an analysis of the economy in the 1950s, both on an international level (the emergence of new European economic institutions) and on the level of the Spanish state (the setting-up of the National Industry Plan, the Stabilization Plan of 1959...) and, more specifically, in the South Basque Country. **BALEREN BAKAIKOA**

## The migrations of a silent decade

The sociology professor Xabier Aierdi provides us with a demographic study of the growth in population and migratory movements in the Basque Country during the 1950s —changes that would have a bearing on the subsequent social transformations that took place in the 1960s and 70s. **XABIER AIERDI**

## The 1950s: a key moment in the history of the working class

The history professor Emilio Majuelo stresses the importance that the 1950s had in the history of the working class. Majuelo focuses on the first workers' strikes of the post-war period, the industrialization process of the 1950s, the profound transformation of the Basque Country and the emergence of a new Basque working class. **EMILIO MAJUELO**

## NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Lionel Joly, Patxi Gaztelumendi and Jon Benito. **VARIOUS AUTHORS**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 159. zenbakia da eta 2007. urteko bigarrena.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean, iazko azaroaren 7, 8 eta 9an Koldo Mitxelena Kulturunean, *Jakin*-ek, 50. urteurrena zela-eta, antolatutako «50eko hamarkada Euskal Herrian» mahai-inguru sortako hitzaldiak jasotzen dira. Gai horren inguruko jardunaldi batzuk antolatzearen arrazoiak ulertze aldera, egitarauan bertan agertzen zen sarrera testua hona ekartzea izan daiteke, beharbada, gauzarik egokiena: «*Jakin* 1956an sortu zen. Sorrera horren kariaz, 50eko hamarkada nolakoa izan zen Euskal Herrian aztertu nahi dugu. Hamarkada ezezaguna bezain garrantzizkoa da. Urte haietan euskal gizartea azpi-azpitik aldatzen hasten da politikan, kulturen, euskalgintzan. 60ko hamarkadako loraldiak aurreko hamarkadan du abiapuntua».

Aurreko zenbakian urte haietako kultur giroari eta hizkuntz auziei buruz Joseba Intxaustik eta Joxe Azurmendik egindako gogoetak argitaratu genituen. Zenbaki honetan, mahai-inguru horietan garai hartako politika, ekonomia eta gizarteari buruz Mikel Aizpuru, Emilio Lopez Adan, Mikel Aramendi, Xabier Itzaina, Baleren Bakaikoa, Xabier Aierdi eta Emilio Maelok esandakoak bildu ditugu.

Mikel Aizpuruk, lehen artikuluan, euskal abertzaletasunak 50eko hamarkadan bai erbestean zein Euskal Herrian bertan bizi zuen egoera aztertzen du. Frankismo garaiaren urterik gogorrenak izan ziren, hain zuen erregimenak nazioartean lortu zuen babes politikoagatik.

Bigarren artikuluan, Emilio Lopez Adanek hamarkada horretako historia politikoa laburbiltzen digu: Francoren erregimenaren nazioarteko legitimizazioa, errepresio politikoa eta miseria kulturala, gerra zibilaren azken ondorio armatuak, erregimenari oposizioa, indar sozial eta politiko berriak, Euskal Gobernuak, ETaren sorrera...

Mikel Aramendik, ondoren, hamarkada horretan izandako nazioarteko gertakari nagusiak aurkezten dizkigu, Gerra Hotzaren mehatxua finkatu eta areagotu zuten urteetakoak, hain zuzen.

Laugarren artikuluan, urteotako giro politiko eta sozialean Elizak —bai erakunde gisa, bai gizarte mugimenduen bitartez— izandako jokabidea aztertzen du, kontuan hartuz garai hartan berebiziko eragina eta boterea zuela Euskal Herri osoan.

Bosgarrenean, Baleren Bakaikoak 50etako ekonomia analizatzen du, bai nazioartean (erakunde ekonomiko berrien agerpena Europan), bai Espainian (Instituto Nacional de Industriaren sorrera, 1959ko Estabilizazio Plana...) eta baita, bereziki, Hego Euskal Herrian ere.

Xabier Aierdik, hurrengo artikuluan, urte horietako euskal biztanleriaren hazkundearen eta migrazio mugimenduen azterketa demografikoa eskaintzen digu. Aierdiren arabera, gainera, aldaketa horiek guztiek izango dute eraginik hurrengo hamarkadetako gizarte eraldakuntzatan.

Azken artikuluan, langiliaren historiarentzat hamarkada horrek izan zuen funtsezko garrantzia azpimarratzen du Emilio Majuelok. Horrenbestez, gerraondoko lehen grebak, 50eko hamarkadako industrializazio prozesua, Euskal Herriaren eraldaketa sakona eta euskal langile klase historiko berriaren agerpena ditu egileak aztergai.

*Egunen gurpilean* sailean sinadura berri bat dugu hemendik aurrera: Lionel Jolyk heldu dio soziolinguistikaren alorrari. Literatura eta Telepolis atalak, iaz bezala, Jon Benitok eta Patxi Gaztelumendik jorratuko dituzte hurrenez hurren. ¶



# 50eko hamarkada

## Euskal Herrian

- 11** 50eko hamarkadako abertzaletasuna,  
jarraipena eta berrikuntza  
**MIKEL AIZPURU**
- 35** Diktadura eta errebolta  
**EMILIO LOPEZ ADAN**
- 49** Gerra Hotzaren gorian  
Mundu garaikidea finkatu zuen hamarkada  
**MIKEL ARAMENDI**
- 63** Sinestun metodikoak. Eliz mugimenduak eta gizartea  
50eko hamarkadan  
**XABIER ITZAINA**
- 81** Euskal ekonomia 50eko hamarkadan  
**BALEREN BAKAIKOA**
- 91** Hamarkada isil bateko migrazioak  
**XABIER AIERDI**
- 109** 50eko hamarkada: langileriaren historiarako gunea  
**EMILIO MAJUELO**

# 50eko hamarkadako abertzaletasuna, jarraipena eta berrikuntza

MIKEL AIZPURU

EHUko Historia Garaikidea Saileko irakaslea

## Sarrera

Euskal abertzaletasunaren historia landu duten ikerlariak jarrera aldakorak izan dituzte 1936ko Gerra Zibilak sortutako garai historikoarekin. Franco hil ondoren hainbat lan argitaratu ziren orduko testigantzak jasozen Eugenio Ibarzabalen eskutik; ordukoa dugu Emilio Lopez Adanen *El nacionalismo vasco en el exilio* liburu garrantzitsua. Hurrengo urteetan, ordea, historialarien interesak Sabino Arana eta XX. mende hasierako urteetara aldatu ziren. 1990eko hamarkadan, lan horiekin batera, Amerikako abertzaletasuna (Koldo San Sebastian eta Iñaki Anasagastiren eskutik) eta ETAREN ingurukoak landu ziren; *Euskadi Ta Askatasuna - Euskal Herria y la Libertad* entziklopedia nabarmendu zen une horretan. Bilakaera horren ondorioz, Eusko Alderdi Jeltzalearen historia landu zuen historialari taldeak ia-ia hutsetik hasi zuen bere lana (*El péndulo patriótico* famatua) frankismoari zegokionez.

Azken urte hauetan, aldiz, frankismoaren garaiko abertzaletasunak berriz jaso du arreta eta lau lan nabarmendu dai-

tezke: Andima Ibinagabeitiaren inguruan Pako Sudupek argitaratutako artikulu- eta idatzi-bildumak, Xabier Irujok idatzitako doktorego-tesia, *Euskal Erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*, Ludger Mees-ek kaleratutako Agirre lehendakariaren biografia politikoa eta Iñaki Bernardok eta Iñaki Goioganak plazaratu berri duten Jesus Galindezen inguruko lan berritua. Ez dira falta —nahiz eta oraindik gutxi izan— orduko militanteen testigantzak (Inza 2006). Argitalpen horiek guztiek, aurreko urteetan plazaratutakoekin batera, aukera ona ematen digute 1950eko hamarkada garrantzitsuari begirada berria emateko, nahiz eta, oraindik, datu asko falta zaizkigun ikuspegi hori osatzeko eta biribiltzeko.

Arestian aipatutako liburuen irakurketak aditu ez den bati eragindako hausnarketaren ondorio dira ondorengo leerroak. Izan ere, liburu horien ekarpenak garai horri buruzko argi gehiago edukitzen lagundu digute. Berrikuntza bi norabidetatik dator, erabilitako iturrietatik eta, bereziki, planteatutako hipotesietatik. Bizkaiko Arteako Abertzaletasunaren Agiritegia irekitzeak asko lagundu du berritze horretan, baina oraindik asko dira itxita jarraitzen duten agiritegiak (ofizialak eta Elizarenak), gutxi erabilita daudenak (PCE eta PSOEnak, adibidez) edota ezagutzen ez ditugun agiritegi pribatuak. Lan horien emaitzek, bestetik, garaiaren aberastasuna eta konplexutasuna azaldu dizkigute. Beraz, osatu gabea da plazaratutako ikuspegia, interpretazio historiko guztien moduan, baina agiritegiei dagokien hutsuneak bere behin-behinekotasuna areagotu egiten du.

1950eko hamarkadaren azterketak, eta orokorrean, frankismo garaikoarenak lan gehiago eskatzen ditu eta, nire ustez, ikuspegi berri bat hartzea. Berrikuntzak eskatzen dituen ahaleginak desberdinak dira eta zailtasuna aldatu egiten da gai batetik bestera. Lehenengo ahalegina nahiko sinplea da planteatzeko. Gaiaren azterketak lau gune uztartu behar ditu: erbesteko abertzaletasuna; bertokoa; abertzaletasunaren harremana oposizioko beste indar politikoeekin eta euskal gizartean gertatzen ari ziren aldaketak.

Normala denez, artxiboek erbesteko abertzaletasunaren agiriei eman diete lehentasuna, horiek zirelako gordetzen errazena; beraz, ikerketei oinarri sendoa ematen dietenez, erbestealdiak hartu du azterketen artean lehentasuna. Lan horien garrantzia ukatu gabe, agiritegi horiek ere garbi erakusten dute Baionan edo Parisen zeuden buruzagiek ondo zekitela zer ari zen gertatzen Hego Euskal Herrian, bai politikan, bai ekonomian, baita kulturen ere. Beste ahalegin batek, bide beretik, garaiari buruzko historiografia politikoa eta soziala kulturalarekin uztartu behar ditu. Beraien ibilbidea, paralelo egin ordez, behin eta berriz gurutzatzen delako. Kulturaren azterketek, gainera, gaur egungo ikuspuntu-tik interesgarriak izan daitezkeen pertsona eta taldeez gain (euskaraz lan egin zuten Ibinagabeitia eta Zaitegi aztertzeaz gain, adibidez), orduan garrantzitsuak ziren pertsona eta mugimenduak kontuan izan behar ditu, nahiz eta denboraren joan-etorriek erabat zokoratu.

Nire ustez historialariok horma berriak altxatu ditugu, zeudenez gain, eta nekez ikusten da gure idazlanetan fenomeno askotan dauden elementuen aniztasuna, garaiko pertsonen artean zegoen komunikazioa, eta burutzen zituzten lanen aberastasuna. Adibide bat jartzearren, zenbait kasutan, diferentzia politikoak gorabehera, lankidetzaz oparota gertatu zen itxuraz lubakietan aurrez aurre zeuden pertsonen artean. Historialariok bi oker gauzatzeko arriskua dugu. Batetik, frankismoaren ezaugarriak eta sortutako bizitza-baldintza gogorak ahaztea, gure azterketa egoera eta fenomeno arruntetara zuzenduko balitz bezala. Bestetik, kontrako, hots, frankismoa erabateko eten moduan ikustea. Egia da, gerra garaian eta 1940ko hamarkadan, frankismoak eta frankistek borondate garbia azaldu zutela abertzaletasunarekin, demokraziarekin eta ezkerrearekin zerikusia zuen guztia zapaltzeko eta, ezkerreko kideen kasuan bereziki, fisikoki desagerrarazteko. Baina, bestalde, egia da, urteek aurrera egin ahala, agintarien zurruntasuna eta gogortasuna mantendu arren (ikus adibidez Jose Artechek bere egunerokoan

idatzitakoak zentsurari buruz), harremanak berrosatuz joan zirela, zirrikituak irekiz eta zenbait gauza egiteko aukerak ugarituz. Aurrerago ikusiko dugunez, 1950eko hamarkadan, euskal kulturak indar berriak hartu bazituen, hemen eta erbesteetan horretan lanean ari ziren euskaldunen ahaleginen ondorio izan zen. 1940ko hamarkadan, aldiz, beraien arteko komunikazioa ia ezinezkoa izan zen.

## Laburregiak diren hiru ohar

Azterketan aurrera egin baino lehen, hiru ohar garrantzitsu egin behar dira. Lehenik eta behin, garai hartako baldintzez jabetu behar dugu. Frankismoaren alderik gogorre-na pasatua bazen ere, errepresioak gordinkeria osoz jarraitzen zuen. Poliziak, Guardia Zibilak eta erregimenaren jarraitzaileek kontrol estua zuten euskal gizartearen gainean. Gerra eta gerraosteko errepresioak bere helburuak lortu zituen. Euskal gizartearen zati handi bat erabat beldurtuta zegoen eta ez zegoen prest beraiek edota beraien seme-alabek eurek jasandakoa berriro jasateko. Egoera horrek gutxi batzuen esku utzi zituen oposizioko ekintzak. Horietako asko, gainera, erbestean zeuden, Iparraldean edo Frantzian batzuk, Amerikan beste batzuk. Erbesteko eta klandestinitateko giroa ez zen beti, Galindezek artikulu gogoangarri batean idatzi zuenaren aurka (Erbesteak on egin digu), ideia eta pentsamendu berriak bereganatzeko aproposena; egokiagoa zen ortodoxia gotortzeko eta eztabaida irekia saihesteko. Frankismoak, bestalde, bi etadura mota sortu zituen: bate-tik, ez zien utzi belaunaldi berriei abertzaletasunaren nondik norakoaz jabetzen, eta ideologia horretara hurbiltzeko modua intuizioa edota famili-tradizioa baino ez ziren izan. Jende asko abertzalea zen, baina ez zekien identifikazio horrek, zehatz-mehatz, zer esan nahi zuen (Olazar 1999, 90). Bestetik, gerraurreko abertzale gehienek ordura arteko pentsamendua mantendu zuten, aldaketa oro jatorriarekiko traiziotzat hartuta. Ezin baztertu, azkenik, Aranaren doktri-

na osotasun aldaezina zela pentsatzeak, abertzaletasunak Errepublika garaian izandako zatiketek (Euzko Abertzale Ekintza eta Jagi-Jagi) eta barne-tentsioek ez zutela lagundu mugimenduaren estrategia finkatzeko orduan egin beharreko eztabaidak giro lasai eta patxadatsuan gertatzen. Kritika eta proposamen berri ugari alboratu ziren gazte ezjakin eta lotsagabeen proposamenak zirelakoan.

Bigarren oharra: abertzaletasuna aipatzen dudanean, bereziki EAJren inguruan gorpuztutako talde, erakunde eta pertsoneri buruz ari naizela azpimarratu behar da. ETA 1958-59an sortu zenez, ez dugu aipatu baino gehiago egingo. EAE eta Jagi-Jagiri zegokienez, ez dirudi urte horietan jarduera nabarmenik zutenik erakunde moduan, eta iraun bazuten erakundearen ikurra pertsona jakin batzuek mantendu zutelako izan zen. EAEn kasuan, alderdian bi gune nagusi zeuden, bata Caracasen bide propioa landu nahi zuena eta bestea Frantzian, Gonzalo Nardiz sailburuaren inguruan. Nardizek EAEn ezaugarri ideologikoak bigundu zituen eta Agirre lehendakariak proposatutako ibilbide politikora hurbildu zen. Amerikako kideen urruntasunak eta Jaurlaritzan jeltzaleekin burututako eguneroko lanak Nardiz EAJren oso hurbileko bilakatu zuten (Renobales 2006). Jagiren kasuan, 1960tik aurrera, behin baino gehiagotan planteatu zuen abertzale guztien batasuna, Fronte Nazionala sortzeko proposatuz. Hala egin zuten 1968an Venezuelako erbestetik Jagiko *Matxari* eibartarrak eta, Euskal Herrian bertan, Trifon Etxeberria *Etarte*-k, EAE eta EAren onespenerekin. Jeltzaleek, ordea, beti egin zioten uko eskakizun horri, nahiz eta zenbait aldiz bileretan parte hartu.

ELAri zegokionez, errepublika garaian sortutako barne arazoei gerraosteak ekarritakoak gehitu zitzaizkien, Manuel Robles Arangiz Iparraldean gelditu zen bitartean, Pedro Ormaetxeak Londresen erakundearen batzorde berria sortu zuelako. Gerra ostean, Biarritzeko batzordeak, Roblesen zuzendaritzapean, hartu zuen berriro buruzagitza, oinarrizko erakundetzea osatuz erbestean, nazioarteko erakunde sin-

dikalen laguntzari esker. 1951tik aurrera ELAk zailtasun handiak izan zituen egoera berrietara egokitzeko, urte horretako grebak atxilotu asko ekarri zuelako eta zuzendarien arteko harremanak oso txarrak zirelako. Manu Robles bera Hegoaldera itzuli zen 1952an eta Erresistentzia berrindartzeko ahaleginek atxiloketa eta zigorrekin amaitu zuten. Sindikatu abertzalearen lan nagusia nazioarteko harremanak lantzerantz bideratu zen (Gare 2001).

Arestian aipatutako EAE eta Jagik, ELAk bezala, hiru lan nagusi gauzatu zituzten 1945etik aurrera hogeita hamar urte luze iraun zuen bigarren erbestealdian. Lehena eta garrantzitsuena dirua biltzea, erakundeak mantentzeko eta, nagusiki, Francoren errepresioaren ondorio larrienak estaltzeko; propaganda lana egitea bigarrena eta jarraitzaile berriak bilatzea hirugarrena, nahiz eta azken lan horretan arrakasta gutxi izan. EAJren zereginetan garrantzi handia izan zuten lan horiek, bere kide askoren eginkizun nagusia bereziki dirua bilatzea baitzen; baina horretaz gain, arrakasta desberdineko estrategia politikoak ere bultzatu zituen.

Hirugarren oharra EAJren eta Jaurlaritzaren inguruan gorpututako abertzaletasunaren organigrama zehazteko dauden zailtasunei dagokie. Ez hainbeste erbesteko erakundeek zegokienez, baizik eta Hego Euskal Herrian edo Amerikan ari ziren abertzale arrunten eginkizunei zegokienez. Berez, banaketa nahiko ximplea zen. Alde batetik, Eusko Jaurlaritza zegoen, Agirre lehendakariarenpean, bestetik EAJ, Doroteo Ziaurriz tolosarraren ustezko zuzendaritzapean. Jaurlaritzak hainbat erakunde sortu zituen bere estrategiak gauzatzeko eta bertan alderdi desberdinetako ordezkariak zeuden, nahiz eta praktikan gehienak eta garrantzitsuenak jeltzaleak edota hauen ingurukoak izan. Erakunde horien artean bat nabarmendu zen, nahiz eta bere lana isilekoa izan: Euzkadiko Jaurlaritzaren Informazio eta Propaganda Zerbitzuak, *Zerbitzuak* izenarekin ezaguna. Horren lan garrantzitsuenak mugako pasabidea ahalbidetzea eta informazioa biltzea ziren, helburu desberdinekin, toki desberdinetan eta hartzaile desberdinen-

tzat. Ez da hau bere historia jasotzeko gunea, baina hiru datu azpimarratu nahi ditut: itxuraz oposizio politikoko erakunderik indartsuena eta antolatuenaren; Agirre lehendakariaren agindu zuzenetara zegoen; eta, azkenik, Bigarren Mundu Gerraren garaitik aurrera Zerbitzuek jasotako informazioaren zati handi bat Estatu Batuen eta, gutxiago, Britainia Handiaren espioitzaren esku utzi zuten, Jaurlaritzari emandako babes politikoaren eta diruaren truke. Ez da aztertu, oraindik, zer motatakoa zen bildutako informazioa.

EAJk, bere aldetik, gune desberdinak zituen: erbesteko EBB, barruko zuzendaritza desberdinak eta gazteen erakundea, Euzko Gaztedi. Alderdiaren zuzendaritza formala Ziaurrisen esku bazegoen ere, praktikan Bizkai Buru Batzarreko lehendakariak (Juan Ajuriagerrak) eta Baionako Beyrisko auzoko egoitzan lan egiten zuten burukideak (Solaun, Unzeta...) saiatzen ziren finkatzen alderdiaren jokabidea. Jaurlaritzaren eta alderdiaren arteko banaketa teoriarik garbia zen, baina zailagoa eguneroko jardunean. 1955ean EKINen sartu zen Jose Antonio Ayestaran, oso ondo jakin gabe non sartzen zen; bere hitzetan:

Dudo que en aquel momento cualquiera de nosotros supiera distinguir entre EKIN, EGI, PNV o Gobierno Vasco. Todo era lo mismo, y formaba parte de un mismo bloque que se caracterizaba por el nacionalismo, pura y simplemente. (Ibarzabal 1970)

Klandestinitateko praktikak zaildu egin zuen bereizketa hori. Nola definitu, adibidez, Ramon Agesta militantea? Zerbitzuetako kidea zen, baita ELAko ordezkaria eta EAJko kidea ere. Galdera bera egin daiteke Koldo Mitxeleneri edota Jokin Inzari buruz eta dozenaka militanteri buruz. Klandestinitateak ezarritako lanak, azkenik, espezializazioa eta, kasu batzuetan, profesionalizazioa ere ekarri zituen. Non amaitzen zen militantea eta hasi politikari edota espia profesionala? Bingen Amezagak ezetz biribila eman zien amerikarrei Uruguaiako ezkerreko alderdi eta erakundeen berri ematea eskatu ziotenean.



Erakunde eta militante horiek guztiak Franco botatzea zuten helburu, baina modu, era eta erritmo desberdinetatik abiatuz. Zereginen banaketa funtzionalak, gainera, ezinegonak eta haserreak sortu zituen buruzagi eta militanteen artean. Tentsio horien iturburua, neurri batean, Gerra Zibilean bertan aurki daiteke, Jaurlaritzak eta EAJk jokabide desberdinak izan zituztelako zenbait gaitan (kartzeletako erasoen aurrean edo Santoñako Paktuaren inguruan). 1947tik aurrera areagotu egin ziren aldeak, EBBk ez zuelako begi onez ikusten Agirre Espainiako errepublikarrak biltzeko egiten ari zen ahalegina. Gogoratu behar da, ildo horretan, Agirre lehendakaria alderdiko diziplinatik kanpo bazegoen ere, ez zela horrela gertatzen Jaurlaritzako sailburuekin; batzuk (Leizaola) beste batzuk (Lasarte, de la Torre) baino hurbilago zeuden alderditik. Alderdiko buruzagiaren esanetan, Jaurlaritzako langileek, zerbitzuetakoek, alegia, denbora gehiegi pasatzen zuten abertzaleentzat ustez erabilera praktikorik ez zuen informazioa biltzen eta gutxiegi Francori oposizioa egiten. Giro horretan, ezin ahaztu Konrad Adenauerrek bota omen zuen esaldi famatu hura —«aurkariak daude, arerio politikoak ondoren eta, azkenik, (txarrenak) alderdiko ki-deak»— ezin hobeto bete zela, maiz, EAJren kasuan.

## Lehendakariaren estrategiaren porrota

1936ko gerraosteko urteak gogorrak izan ziren, Bigarren Mundu Gerra zer esanik ez, baina gerra amaierarako Jaurlaritzak itxaropentsu begiratzen zion etorkizunari. Ameriketarik, bide desberdinak jarraituz (jarraitzaileen dohaintzak, dibisen trafikoa eta Estatu Batuen ekarpenak), diru nahiko heltzen zen; Agirrek eta bere laguntzaileek aliatuek Franco botako zutela eta berehala itzultzeko moduan izango zirela pentsatzen zuten. Alderdia ere indartsu zegoen: bostehun bazkide inguru zituen Frantzian bertan eta bat egiten zuen Agirre lehendakariak markatzen zuen politikarekin. Eta Agirreraren strategiaren muina Francori alternatiba bat eskain-

tzea zen. Alternatiba horrek ezin zuen izan euskaldunena bakarrik, are gutxiago abertzaleena soilik. Euskaldun guztiena eta espainiar guztiena izan behar zuen; gutxienez Espainiako errepublikar guztiena izan behar zuen eta, ahal izanez gero, monarkikoak ere bildu behar zituen. Hori izan zen Agirre lehendakariak 1945-1950 bitartean bultzatu zuen politika. Horretarako lan ugari egin zituzten, bai Hego Euskal Herrian kartzeletatik irten berriak eta militante berriak antolatzeko, bai atzerrian, orduantxe sortu zen Nazio Batuen Erakundean, baita estatu desberdinetako kantzelaritzatan, Londresen eta Washingtonen bereziki. Ezaguna denez, politika horren barruan, arrakasta-uneak egon ziren, ezagunena 1947ko greba. Bertan bat egin zuten euskal gizartearen ezinegonak eta gerraren amaierak sortutako giroak. Baina grebaren oihartzuna ez zen nahikoa izan Bizkaitik eta Gipuzkoatik kanpo ez zuela jarraitzailerik izan ezkutatzeko, ezta Francoren erregimena kolokan jartzeko ere. Itxaropena sortu zuen beste une bat Nazio Batuek Francoren erregimenaren aurkako neurriak onartu zituztenekoa izan zen. 1951ko greba neurri batean zerrenda horretan sar daiteke, nahiz eta ordurako beste arrazoi batzuei erantzun, ezinegon ekonomikoari bereziki. Grebak, dena den, inflexio puntua markatu zuen: ordura arte itxaropena zegoen, harrezkero ez.

1947an bertan, ordea, Agirre lehendakaria eta New Yorken bere ordezkaria zen Anton Irala ohartu ziren jaio berria zen Gerra Hotzaren kontestuan Estatu Batuek ez zutela ezer egingo Franco botatzeko, botere hutsunea komunisten mesederako izan zitekeelako. Euskal agintariek ez zuten onartu nahi izan errealitate hori, eta hurrengo urteetan ahalegin ugari egin zuten Francoren eta erregimen demokratiko baten artean zeuden aldeak nabarmendu nahian iparramerikarren aurrean. Hori gutxi balitz eta euskal oposizioa batuta mantentze aldera, bat egin zuten Indalecio Prietok bultzatutako irtenbide monarkikoarekin. Bilboko sozialista ezaguna, errepublikarren ezintasunarekin gogaiturik, Alfonso XIII.aren semea zen Don Juanen jarraitzaileekin estrategia

bateratua adostu zuen Donibane Lohizunen 1948ko abuztuan. Jeltzaleek hasieran ez zuten irtenbidea begi onez ikusi, baina pixkanaka bertara makurtu ziren, 1949ko martxoan zeharka onartu arte. Don Juanek, ordea, Francorekin biltzea aukeratu zuen eta Prietoren estrategia bertan behera geratu zen 1951ko abuztuan.

Dena alferrik izan zen. Porrotaren adibideak bat bestearen atzetik etorri ziren. 1950ean Nazio Batuen Erakundeak bertan behera utzi zituen Espainiaren aurkako neurriak. Urte horretan bertan, Estatu Batuek lehenengo diru-kredituak eman zizkioten Espainiari. Hurrengo urtean, Frantziako gobernuak, Vichyren garaian onartutako dekretuak erabiliz, Espainiako enbaxadaren eskuetan utzi zuen Eusko Jaurlaritzak Parisen zuen egoitza, Avenue Marceauko etxe dotorea. 1952an, Espainia Unescon sartu zen. 1953an, Espainiak eta Vatikanok Konkordatu berria sinatu zuten, eta urte amaieran Francok eta Estatu Batuek lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. 1954an, azkenik, François Mitterrandek, orduan Justizia Ministro, Frantziatik emititzen zuen Euzkadi Irratia itxi zuen. Tarte horretan, gainera, Telesforo Monzon sailburuak Jaurlaritzatik alde egin zuen, monarkikoekin lankidetzaren jorraztearen aldekoa zelako. Bost urte horietako gertakizunek bertan behera utzi zuten ordura arteko politikaren norabidea.

AEBen jarrera aldaketak Jaurlaritzaren porrota ekarri zuen. Baina ez zen izan bakarrik porrot estrategikoa, baita antolaketa-porrota ere, zeren eta Jaurlaritzaren, eta Eusko Alderdi Jeltzalearen, diru-sarreraren garrantzitsuenetako bat Britainia Handiko eta Estatu Batuetako zerbitzu sekretuek ematen zieten dirua zen. Estatu Batuen politika aldatzean, 1948an, eta bereziki Alderdi Errepublikarra eta Eisenhower gobernuaz jabetzean (1953an), diru hori murriztuz joan zen eta informazio zehatzaren truke ematen zuten. Hori baino larriagoa izan zen, 1951tik aurrera, ordura arte abertzaleen sarrera nagusia zen diru-trukean oinarritutako estraperloa —Ameriketatik Europara eta hemendik hara egiten zena— murriztea eta

1956tik aurrera desagertzea. Hego Amerikak bizi izan zuen krisi ekonomikoaren ondorioz eta Europako sendotzearen ondorioz, truke ofizialaren eta merkatu beltzekoaren artean zegoen aldea erabat txikitu zen eta estraperlorako mozkinen alizientea ere bai. Diru-etorriak murriztu egin ziren eta, ondorioz, Jaurlaritzaren eta EAJren baliabideak gutxitu egin ziren, soldatapeko liberatuak ordaintzeko adibidez, eta horrek areagotu egin zuen Erresistentziaren krisia.

Hori gutxi balitz, 1951n Hegoamerikak bizi izan zuen krisi ekonomikoaren eta Europako sendotzearen ondorioz, bestelako diru-etorriak murriztu egin ziren eta, beraz, Jaurlaritzaren eta EAJren baliabideak gutxitu egin ziren, soldatapeko liberatuak ordaintzeko adibidez, eta horrek areagotu egin zuen Erresistentziaren krisia.

Giro berriak aldaketa asko eta ondorio ugari utzi zituen abertzaletasunaren baitan. AEBen politika berriak Franco-ren indarra sendotzen zuela ikustean eta botere aldaketa, epe motzera gutxienez, ezinezkoa zela konturatzean, militante ugari etsi egin zuen. 1936an hasi ziren gerran, 1951n hamabost urte ziren borrokan ari zirela eta asko bere buruarentzat irtenbide bat bilatzen hasi ziren; ezkondata zuden, familia zuten eta lanpostu bila hasi ziren. Batzuek Hego Euskal Herrira itzultzea erabaki zuten, beste batzuk Amerikara joan ziren. Arazoak EBBra bertara heldu ziren, Doroteo Ziaurriz hil zenean 1951n; EBB praktikan desegin egin zen, nahiz eta formalki jarraitu Jose Agerreren zuzendaritzapean. Ordura arteko estrategiak porrot egiteak eta alderdiaren eta Jaurlaritzaren antolaketan izandako krisiek sortarazi zuten hamarkada *horribilis*-aren sentsazioa. Ez da harritzekoa, beraz, begirale komunista batek adierazi zuen moduan 1958an, jeltzaleak etsita egotea:

Los nacionalistas que regresan de la emigración, que son indudablemente los más preparados políticamente, son los más pasivos y no quieren saber nada de actividades políticas. Se disculpan que cuando a su regreso se han acercado a los que han vivido en el interior y les han planteado la necesidad de romper con la pasividad, les han contestado que hace

tiempo que han dejado de lado estas cosas y que, por consecuencia de esto, ellos no van a sacrificarse sólo, ante esta posición de los del interior, que son los que por sus conocimientos mejores de personas y del medio tienen una responsabilidad mayor de actuar. (Archivo del Partido Comunista. Serie Nacionalidades y Regiones. Euskadi/Navarra. Mikrofílmaturako agiriak, 1958, Madril)

Egoera horren marrazketa egokia egiteko beste elementu batzuk gehitu behar ditugu, Francoren errepresioa ezinbestean. Nahiz eta hamabost urte pasatu gerra amaitu zenetik, errepresioak oso gogorra izaten jarraitu zuen eta ez zen baxterre erraza jende berria bilatzea. Beste elementu bat klandestinitateko baldintzak ziren. Giro horretan, hanka-sartzeek tentsioak areagotu egiten zituzten, bai EAJren baitan, baita Euzko Jaurlaritzaren baitan ere.

Tentsio horiek estrategikoak ziren, zein izan behar zuten Jaurlaritzaren eta alderdiaren norabideak egoera berrian; baina baita antolaketa-tentsioak ere, nork agindu behar zuen, nondik lortu behar zen dirua, eta abar. Ajuriagerra eta bere inguruko ustez, amerikarrekin harreman guztiak (politikoak zein espioitzarekin lotutakoak) hautsi egin behar ziren, Zerbitzuak alderdiaren kontrolpean jarri behar ziren eta Erresistentziaren zuzendaritza Hegoaldera ekarri behar zen. Agirre eta bere ingurua, gero ikusiko dugunez, ez zegoen ados politika horrekin eta 1956 arte, gutxienez, lortu zuten zuzendaritza beraien eskuetan mantentzea. Hori guztia norberaren tentsio ere bilakatu zen, eta gaitzotu egin zuen jeltzaleen arteko giroa.

Jokin Inza jeltzalearen biografiaren pasarte askotan azaltzen dira aipaturiko ezinegonen adibideak. Horietako batean, Caracasen izandako eztabaiden berri ematen du: ordua arte Jaurlaritzarentzat bakarrik biltzen zen dirua eta Inza heldu zenean, 1956an, Erresistentziarentzat (EBBrentzat) eskatu zuen; horren ondorioz haserre kontza bat baino gehiago egon zen (Inza 2006, 212). Manuel Irujo ministro ohiak 1951n EBBri zuzendutako eskutitzean, bizi zuten giroaren berri eman zien, salaketa gogorra eginez:

Habéis trocado aquel movimiento abierto, generoso, progresivo, en un ambiente de suspicacias, con mueca de secta y clima integrista.

Andima Ibinagabekiak, bere aldetik, 1951ko abenduaren 5ean Jon Miranderi zuzendutako eskutitzean kritika zorrotzak azaldu zizkion garaiko norabide politikoari zegokionez:

Politika eginkor bat bear genuke eta orlakorik ez da ageri gure artean. [...] Egia esan, gure politikariek baditute [sic] euzko-gogoa pizkortze beste bide aunitz ere, baina bide oiek barna ibiltzerik ez dute nai.

Are larriagoa zen giro morala:

Gainera geienak igatuak daude eta gure erriak bere seneratuko denean oro zapuztuko ditu, erruki gabe gainera. Bizi-bearra, diru-naia, orra gure agintarien egingo edo ardura garaiena. Artean erria... galtzera dioaku.

Dena den, Ibinagabekiak bazuen itzaropenerako beta:

Ez da urruti ordea gure indarrak bildu ta Euskadi osoa goitik-bera inarrosiko dugun eguna. Eta egun ortarako gerturik bear degu. (Urkizu 2000)

## 1950eko hamarkadaren argi-izpiak

Era arinean zirriboratu ditugun eztabaida horiek gertatzen ziren bitartean, aldaketa ugari izan ziren, bai Hego Euskal Herrian, baita Ameriketako komunitate euskaldunen artean ere. Azken horietatik hasiko gara: abertzaletasunak indar berria hartu zuen Ameriketara; izan ere, hirugarren belaunaldi bat sortu zen (lehena mende hasieran Argentinan, bigarrena 1939koa eta hirugarrena 1950ekoa), exiliatu asko heldu baitziren bertara eta, gainera, aurreko belaunaldien seme-alabak gehiago inplikatu ziren lan politikoetan. Aldizkari politiko berriak sortzeko gai izan ziren, ez bakarrik Ameriketako euskaldunei zuzenduta, baita Euskal Herriko abertzale eta euskaldunei zuzendutakoak ere. Dinamika berriak sortzen lagundu zuen horrek, nahiz eta hemengo historialariek dagokien neurrian baloratzen jakin ez dugun.

Hala, Pello Irujoren eskutik etorri zen Argentinan izan zen aldaketa garrantzitsua, *Euzko Lurra-Tierra Vasca* aldizkariaren kaleratzea bultzatu zuelako. Hedabide horren lehen zenbakia 1956ko uztailaren 1ean kaleratu zen; berrikuntza nabaria zekarren, Hego Amerikako euskaldunei zuzenduta egon ordez, Euskal Herrian zeuden abertzaleei zuzenduta zegoen eta. Alderdi Komunistaren salbuespenarekin, euskaldun guztiei irekita egon zen. Horren atzetik, hurrengo hamarkadan, aldizkari asko jaio ziren Amerikan, gehienak alderdi edota erakunde bati lotuta: *Gudari*, Venezuelako Euzko Gaztedik bultzatuta, Euzko Aberri Alkartasunaren (Frente Nacional Vasco) *Euzkadi Azkatuta* Mexikon, *Irrintzi* Venezuelan Imanol Fernandez Etxeberrria *Matxari*-k argitaratuta, eta Mexikon, Caracasen eta Buenos Airesen ETako exiliatuak sortutako *Zutik* desberdinak. José María Garciarena Aguerrek (Argentinan jaiotako euskalduna berau) 1956an azaldu zuen Buenos Airesko *Laurak Bat* egoitzan emandako hitzaldi batean, handik aurrera erbeste-ko euskaldun askok jarraituko zuten jokabidea:

Nosotros somos ciudadanos argentinos y no somos ciudadanos vascos. No intervendremos en política interna vasca. Mas aquello fundamental y que *si nos comprende no tiene nada de político, sino que es esencialmente patriótico*. Siendo parte étnica integrante del pueblo vasco intervendremos en algo fundamental: el reconocimiento de la *nacionalidad vasca*. ¡Cómo puede decirse que esto es política! (Ezkerro 2006b)

Edonola ere, ezin da ahaztu Euskal Herrian bertan gertatzen ari zena. Aldaketa ekonomikoekin eta demografikoe-kin batera (oso garrantzitsuak eta behin eta berriro aipatu izan direnak), badaude beste batzuk arreta gutxiago jaso dutenak. Bi baino ez ditut aipatuko hemen: euskal kulturaren berrindartzea eta Elizaren inguruko taldeen berrantolaketa.

Lehenengo fenomenoaz aztertzeko, bi atal garrantzitsu dau-  
de begi-bistan. Batetik euskarak bizi zuen atzerakada, etor-  
kinen kopuru altuak euskaldunen proportzioa murriztu egin  
zuelako eta bizi zuen errepresioak eta mespretxu-giroak eus-

kara galtzera zeramatelako. Horrek ez du adierazi nahi, hala-beharrez, euskal kultura idealizatuaren aurkako giroa zegoenik. Bizkaiko kasuan, bereziki, euskarak atzera egin bazuen ere, Bilbora etorri zen komunista baten esanetan, ez zen gauza bera gertatu folklorean, dantzei eta musikari zegokienez; izan ere txistua eta euskal dantzak nonahi ikusten ziren udako jaialdietan. Gauza bera gertatzen zen abertzaleek erabiltzen zituzten *milrayas* prakekin, euskal izenekin eta Athleticoko jokalarien euskalduntasunarekin.

Euskaraz idatzitako produkzioa agertzen hasi zen, nahiz eta agintarien jarrera oso gogorra izan euskararen aurrean. Beharrezkoa da, bide horretan, gogoraraztea tokiko agintari ugari, baita gobernadore zibilek ere, neurri zorrotzak hartu zituztela euskararen aurka, baina ez zela euskararen aurkako debeku orokorrik egon. Egoera horrek, zenbait karlistaren laguntzarekin, ahalbidetu zuen pixkanaka-pixkanaka, debeku eta eragozpenen erdian, euskararen aldeko zantzuek indar berriak hartzea. Ez dugu pentsatu behar —irudi topikoak gorabehera— frankismoa multzo monolitiko bat zenik, eta aukera txiki horrek zenbait garapen, mugatuak eta susmopean, ahalbidetu zituen. *Argia* astekariak kaleratu zuen *Gure mendea* CDari erreparatzen badiogu, 1950eko hamarkadan zenbait berrikuntza aurki daitezke. Lehena, Euskaltzaindiaren susperraldiaren hasiera, horren estalpean bertsolari-txapelketak eta hainbat jarduera babestu ziren. 1941ean Txilen argitaratu ostean, 1950ean plazaratu zen Zarautzen Orixeren *Euskaldunak* poema, eta Donostian Goizaldi dantza-taldea sortu zen. Urte horretan bertan, baina erbestean, *Euzko-Gogoa* aldizkaria sortu zen. Hurrengo urtean *Karmen'go Ama'ren Egutegia* hasi zen argitaratzen eta Nafarroako Diputazioak euskarazko eskolei heldu zien berriro. Zarauzko Itxaropena argialetxeak Kulixka Sorta sortu zuen. 1953an, berriz, Gipuzkoako Diputazioak Euskal Filologiako Julio Urkijo Mintegia eratu zuen eta *Anaitasuna* argitaratu zuten frantziskotarrek, Imanol Berriatuaren eskutik. Hurrengo urtean, gobernadore zibilak Loiolako Herri Irratiari euskaraz emititzea



debekatu zion, baina, bestalde, *Zeruko Argia* berragertu zen, ia hogeitaz isilik egon ondoren. Adibideak ez dira ugaririk, baina ez dira falta: 1956an, esaterako, *Jakin* bera sortu zen eta Iruñeko kaleetan lehenengo aldiz ikusi zuten Olenzero. Oztopoak oztopo —eta asko ziren—, bilakaera horrek erakutsi zuen bazeudela topagune eta jardungune berriak, klandestinitate isilak baino erosoagoak zirenak eta, behar bada, eraginkorragoak. Hainbaten iritiz, behinik behin, ez zegoen kontraesanik bi lan-eremu horien artean, hots, isilean eta agerian egin beharreko lanen artean. Koldo Mitxelena ibilbide hori egin zuen, kartzela eta Zerbitzuetatik Euskaltzaindira, eta Txillardegik kontrakoa, argitalpen publikoetatik erbeste eta klandestinitatera.

1950eko hamarkadako beste fenomeno nabarmena Elizaren inguruko taldeen indartzea eta bilakaera izan zen. Acción Católica sortutako erakundeek (JOC, HOAC, Baseri Gaztedi, eta abar) gero eta garrantzi handiagoa hartu zuten denborak aurrera egin ahala. Hamarkada horretan ez zuten helburu politikorik erakunde horien zereginek eta hausnarkeketek (ez dira nahastu behar hamar urte geroago gertatu zena-ekin). Don Balentin Zamoraren gorazarre liburuan, apaiz horren pentsamendua definitzean, ondo laburbildu zuten mugimendu horren bultzatzaile askoren jarrera:

Oso kritikoa politika eta instituzioekin, ez zuen bere gustuko eztabaida politikoa, ez eta politikan oinarritzen ziren ezberdintasunak; arriskutsua ikusten zuen. Nolabait pre-politikoa zela esan dezakegu, ideologizatorik apenas zuen. Instituzioetan parte hartzearen aldekoa baina justiziarekin lotzen zuen; ez zegoen boterearen kontra baina bai boterearen abusuen aurka. (Askoren artean 2000, 94-95)

Acción Católicako kideen artean, giro abertzale edota gutxienez euskaltzale eta euskaldunetik zetorren asko. Erakunde horien hazkunde hori begi-bistakoa zen, eta jeltzaleak ohartu ziren horretaz, baita komunistak ere. Hala, 1951ko grebaren ostean idatzitako txostenean honela zioen azken alderdi horretako kide batek:

Dentro del cuadro de la actividad práctica que corresponde a los planes de las fuerzas reaccionarias y al cambio táctico de la Iglesia, esos elementos extraños y obreros de Acción Católica y nacionalistas mezclados (exceptuando los nacionalistas con una conciencia política y de clase más desarrollada, nuestros camaradas los consideran lo mismo, tanto católicos como nacionalistas y viceversa, [...] propagaban en establecimientos y en la calle, en las concentraciones, el carácter «económico» de la huelga, con la preocupación de quitar todo ropaje político a la misma.

Al parecer, su esfuerzo [jeltzaleena] e influencia mayor están en los sindicatos católicos. La coincidencia de los sentimientos católicos y antifranquistas en muchos obreros les da una mayor facilidad para este trabajo. Difícilmente podríamos señalar en este momento, cuál es la influencia que el P.N. influye y ejerce sobre los mismos por ser mezcla con la Iglesia. (Archivo del Partido Comunista. Serie Nacionalidades y Regiones. Euskadi/Navarra. Mikrofilmatutako agiriak, 1951, Madril)

1956ko beste txosten batek, ordea, jeltzale militanteen eta katolikoaren artean zegoen tartea nabarmendu zuen, langile katoliko asko kanpotik etorritako pertsonak zirelako. Ezin dugu ahaztu, dena den, komunisten txosten gehienak Bilboko eta Ezkerraldeko begiekin idatzitakoak zirela.

Garai hartan gorpuztu eta indartu zen, bestetik, intelektual katolikoaren multzoa. Gipuzkoako kasuan, Karlos Santamaria dugu beraien paradigma, baina bere oihartzuna oso zabala izan zen. Ez dago ikerketa zehatzik pertsona horien ondorengo ibilbideari buruz, baina soziologikoki katoliko euskaldun asko zegoen jeltzaleengandik hurbil eta habi garrantzitsua aurkitu zuten bertan frankismoaren amaierako urteetan, lehenago izan ez bazen.

## Abertzaletasunaren bide berriak

Euskal gizarteak aldaketa horiek bizi zituen bitartean, abertzaletasuna ez zegoen geldirik. Barne-kritika eta eztabaidak gorabehera, 1950eko hamarkada hasieran gaztedi jeltzaleak pisu garrantzitsua zuen. Horrela onartzen du Txiki-

llardegik bere oroitzapenetan (1994, 186), baita komunisten beste txosten batek ere:

Tengo la impresión de como tal Partido Nacionalista no existe nada organizado, según mi concepto de la organización, pero ello no quiere decir que no desarrollen actividad. Por el contrario a mí me parece que trabajan muy activamente y con cierto éxito, fundamentalmente entre la juventud, utilizando infinitos procedimientos y sobre todo disponiendo de muchos medios.

La mayor actividad está encaminada a crear y mantener vivo un ambiente nacionalista en toda la jente [sic] lo que realizan de forma hábil y explotando bien el profundo ambiente antifranquista que existe ayí [sic]. Aprovechan para este trabajo todas las oportunidades que se les presentan y saben explotarlas al máximo. (Archivo del Partido Comunista. Serie Nacionalidades y Regiones. Euskadi/Navarra. Mikrofilmatutako agiriak, 1951, Madril)

Dena den, informatzaile horren ustez, jeltzaleen eragina murrizten ari zen, jende askok jeltzaleekin bat egiten zuelako Francoren aurkako herra azaltzeko, baina pentsatuz jeltzaleak ez zirela ezer garrantzitsurik egiteko gai. Ez ziren iritzi hori zuten bakarrak: 1953an Federiko Krutwigek gogor kritikatu zuen Eliza Katolikoa euskararen alde lan gutxi egi-teagatik, eta, erbestera ondoren, erradikalizatu egin zuen bere diskurtsoa, maoismora hurbilduz. 1963an plazaratu zuen *Vasconia* liburuak (gehiegikeriaz beteta) izandako oihartzunak garbi azaltzen digu garaiko giroaren ahultasuna.

Jeltzaleen artean ere egin ziren ahaleginak beraien jarrera berritzeko. Horren adibidea da Jaurlaritzaren ibilbidea teorizatzeke 1947an Anton Iralak egindako saioa. Iralak «Bere buruaren jaube» hitza hautatu zuen askatasuna kontzeptuaren gailurra adierazteke. Bere ustez, aske hitza erabiliko bagenu, horrek animalia batek eduki lezakeen egoera azalduko luke. Bere buruaren jabe denak, ordea, bere beharrak betetzeko erabiltzen du ahalmen hori, nahiz eta horrek askatasun gehiago ez eman. Izan ere, eta Maritain filosofo frantsesaren lanak jarraituz, Iralak gizarte bizitzaren oinarria «be-tebeharretan» finkatu zuen eta ez «eskubideetan». Burujabe

izateko, dena den, pertsonak askea izan behar du eta horretarako baliabide materialak, askatasun politikoa, erlijiosoa eta abar behar ditu. Iralaren ustez, Euskal Herriak «buru jaube izateko» ez zuen zertan Espainiatik banandu behar. Izan ere, banatzeko eskubideak gerra zibilak ekarri ditu historikoki (Suitza edota Estatu Batuen kasuak) eta, bestetik, Euskal Herriko tradizio historikoaren aurka doa. Horren ordez zera proposatzen zuen, Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko harremanek kide bakoitzaren burujabetza indartu behar zutela, bakoitzaren nortasuna eta eskumenak errespetatuz (Garmendia 1998).

Kontzeptu interesgarria eta gaur egunean oso baliagarria izan arren, jeltzaleen artean ez zuen eragin gehiegirik izan, are gutxiago gazteen artean eta amerikarren jarrerarekin etsita zeudenen artean. Horien lekuko da Andima Ibinagabeitiak garai berean egindako kritika garratzak jeltzaleen erdalzaletasuna eta epeltasuna salatuz, abertzaleen bide propioa eta batua planteatuz. Ibinagabeitia, Ameriketara joan ondoren, Jagi-Jagitik oso hurbil ibili zen eta *Irrintzi* aldizkarian parte hartu zuen, baina ez zuen apurtu alderdiarekin zuen harremana (Sudupe 2003). Beste batzuk izan ziren jeltzaleen etsipena salatu eta jarrera aktiboagoa defendatu zutenak, hainbat jeltzale eta EKIN taldea sortu zuten ikasle gazteak, hain zuzen. EAJren kasuan, lehen aipatu ditugun hanka-sartzeek, klandestinitateko giroak eta norberaren ideiak besteekin patxadaz eztabaidatzeko gaitasun ezak ekarri zuten Euskal Herrian gerra bizi ez zuten gazte talde berri batzuekin ondo ez konpontzea. 1955-1957 tartean EKIN Euzko Gaztedin sartu arren, alderdiak susmopean ikusi zituen, alde batetik beraien kontura antolatu zirelako eta, bestetik, Zerbitzuekin harreman estua zutelako.

## 1955-1960, urte ilunak

1955 inguruan abertzaletasuna kinka larrian zegoen. Agirre lehendakariak garbi zuen, AEBen bideak porrot egin

arren, Franco kentzeko zegoen aukera bakarra Espainiako oposizioko beste taldeekin elkarlanean aritzea zela, oposizio sendoa azaltzea nazioartean. EAJko buruek, beraien alde-  
tik, bide hark ezin zuela jarraitu pentsatzen zuten. Ematen zituzten arrazioen artean, honako bi hauek dira nagusiak: bat) abertzaletasunak garbitasuna gal zezakeelako Espainiako beste alderdi politikoekin lankidetzan arituta; bi) Espainiako alderdiekin lan egitearen bidea antzua zelako, ordura-  
ko saiatu eta porrot egin zuen bidea.

Egoera berrira egokitzen saiatu zen Jaurlaritzaren politika, bi frontetan: lehena Europar Batasunari eta Estatu Batuei zuzenduta, Francori alternatiba espainiarra eraikitzen saiatu zen. Bigarrena (Agirrerren betiko kezka izan zena), euskal nortasunari eusteko lana. Ahalegin horien adierazgarri izan zen Euzkadiko Jaurlaritzak (Agirrek bultzatuta) 1956an Parisen egindako Euskal Mundu Biltzarra. Oposizio guztia, kanpokoa eta barrukoa, batzeko ahalegina izan zen Biltzarra, etorkizuna elkarrekin irudikatzeko asmoarekin. Bide antzua izan zen, neurri batean, zeren eta ez zuen lortu alderdi eta talde horiek bat egitea: gutxi gorabehera Biltzarraren aurretik egiten eta pentsatzen zutena egiten eta pentsatzen jarraitu baitzuten guztiek (Madarieta 2006). EMBren porrot politiko horrek ekarri zuen, neurri handian, Jaurlaritzaren gainbehera, estrategiarik gabe utzi zuen eta. 1956tik aurrera, egoeraren kontrola Agirrerren eskuetatik alderdira pasatuz joan zen, eta horren barruan Baionatik Hegoaldera. Agirrerren itxaropen bakarra Euzko Gaztedi eta EKINen uztartzearekin batera Euzko Alderdi Jeltzalea berritzea zen. Ahalegin horrek ere huts egin zuen; izan ere, alderdiko zuzendaritzak lortu zuen kritikei aurre egitea, nahiz eta garai-  
pen horrek EKIN taldea, berrindartuta, EAJren magaletik ateratzea ekarri (Ibarzabal 1979). Gazte horiek ETA erakunde-  
dea sortu zuten 1958ko abenduan, lehen agerpen publikoak 1959koak izan arren.

Gure artean inon aipatu ez delako dakart hona 1957ko abenduan Espainiako Alderdi Komunistako kide batek, José

María Lasok, idatzitako txostenaren zati bat, bertan iragar-tzen zuelako gerta zitekeena, nahiz eta Alderdi Komunistaren aukerak neurritz kanpo baloratu eta bere ikusmiratik aztertu:

[...] si el Partido sigue consecuentemente su actual política de desenmascarar el importante papel que la burguesía vasca desempeña en la oligarquía financiera española y, por otra parte, concede en cuanto a la forma nacional todo lo que no se halle en discrepancia con nuestros principios, es casi seguro que atraeremos hacia el Partido una parte importante de la clientela obrera nacionalista. Igualmente no puede descartarse la posibilidad de que en un futuro relativamente próximo pueda producirse en el seno del PNV una escisión en la cual el sector más reaccionario se mantendrá en sus posiciones burguesas, mientras que el resto avance de lleno hacia posiciones más sociales.

Con este grupo juvenil, el Partido ha mantenido siempre cierta relación basada en la existencia de amigos comunes. Por ello a raíz de los preparativos que se efectuaban en relación a la concentración proyectada para el 1º de mayo del presente año, se hicieron sondeos tendentes a concertar su posible participación en la Comisión unitaria organizadora. Aunque en principio, la mayoría veían con simpatía la celebración de dichos actos, dieron a entender que por encontrarse su grupo en periodo de reorganización tenían que estudiarlo. Su respuesta fue finalmente negativa [...]

Jaurlaritzaren strategiaren porrota atzematean, bere bultzatzaileek amore eman zuten, Agirrerren betiko baikortasuna gorabehera, porrota onartu, 1958ko apirilean Zerbitzuen Parisko bulegoa itxi eta eguneroko bizitzan integratzen saiatu ziren, ekintza politiko zuzenak alboratuz edota jeltzaleen artean isilik mantenduz. Abertzaletasunaren inguruko teorizazio berriak bultzatzen saiatu zen, urte batzuk geroago, talde txiki bat, Iralaren inguruan. 1960an lehendakaria hil zen, bihotzekoak jota, eta Agirrek zuen buruzagi izateko gaitasuna ez zen pasatu lehendakari berriarengana, Leizao-laren eskuetara. Une horretatik aurrera, alderdia izan zen nagusi, nahiz eta Jaurlaritzak jarraitu nortasunari eusten, formalki bederen.

Orain arte kontatutakoak gauza ezagunak dira, nahiz eta oraindik ez ditugun ezagutzen zehatz-mehatz pasarte asko.

Dena den, bada bukatu aurretik aipatu beharreko puntu pare bat. Lehena bitxikeria bat da. EAJko buruzagiek amerikarren menpe egotea leporatu zieten Zerbitzuei. Ikusi dugu nola itxi zuten Zerbitzuen Parisko egoitza 1958ko apirilean, baina, antza, Hego Amerikan lanean jarraitu zuten. Bi urte geroago, Agirre hil zenean, jakinarazi zioten Venezuelako alderdiko eta Zerbitzuen buru zen Jokin Inzari Estatu Batuek Jaurlaritzari ematen zioten diru-laguntza moztu egin zutela. Inza Frantziara etorri zen zer egin behar zuen jakiteko, bera harremanak moztearen alde izanik. Bere harridurarako, Leizaola lehendakariak lankidetzarekin jarraitzeko esan zion eta gauza bera esan zioten Beyrisko EBBko kideek, Euskadin ezetz, baina Amerikan jarrai zezakeela harremanetan, nahiz eta buruzagiek ofizialki ez jakin ezer. Beraz, Zerbitzuak amerikarren menpe zeudela salatzen zuten beraiek izan ziren harremanari jarraipena eman ziotenak (Inza 2006, 238).

EAJren eta ETAREN garrantziari dagokionez, nik ez dut pentsatzen, *Euskadi Ta Askatasuna* entziklopedian agertzen denaren aurka, hasierako une horietan, zatiketa garaian, abertzaletasun berria EAJren parean edota honi itzala egiteko moduan zegoenik, 1964ko Gernikako Aberri Eguna lekuko. Are gehiago, EAJk 1960ko hamarkadaren hasieran asko bultzatu zituen propaganda-ekintzak, besteak beste ETak sortutako alternatibari aurre egiteko. Jeltzaleen nagusitasuna nabaria zen, era berean, euskararen aldeko ekintzetan (euskara batuaren auzia gorabehera), eta bereziki ikastolen mugimenduaren hasieran. Bizkaiko lehenengo ikastola, Azkue Ikastola, Sabin Zubiri eta Xabier Peña jeltzale ezagunen eskutik sortu zen 1957an, nahiz eta 1966 arte ez legezatu (Arrien 1987). Antzeko zerbait esan daiteke Gipuzkoako ikastolei buruz, Karlos Santamaria, Mitxelena, Lasarte eta Zumalaberekin. Antton Ormazak berriki adierazi duenez, 1966an Bermeoko ikastola sortzean,

Garai hartan, orduko kontuak albo batera utzi, eta egarri berri bat sortu zen. Egarri horrek bultzada emango zion hezikuntzari, soziopolitikari eta, nola ez, gure hizkuntzari.

Baina jeltzaleak ziren beste batzuekin batera hor ari zirenak. 1960ko hamarkadaren erditik aurrera hasi zen kolokan jar-tzen jeltzaleen hegemonia oposizioko indarren artean; eta hingatze lan horretan, ETaren adarrekin batera, beste talde eta ideologia desberdinek hartu zuten parte, kasu askotan abertzaletasunarekin zerikusi gutxi zutenak gainera. Burgosko epaiketara itxaron behar da ezkerreko taldeak nagusitzen hasteko, hain justu EAJ berrantolatzen hasi zen garaian. Bai-na, 1977ko hauteskondeek erakutsi zuten ezkerreko adar desberdinek (tartean abertzaleek) kalean izan zezaketen ba-lizko hegemonia ez zen nahikoa izan hautesleen zatirik han-diena bereganatzeko. Baina hor beste historia bat hasi zen.¶

---

### Bibliografia

- Askoren artean, D. Balendin Zamora eta euskal baserri mundua 1950-1990. *Epoka baten testigu eta ekintzaile*, Zarautz, Lurgintza, 2000.
- Arteche, José de. *Un vasco en la postguerra. Diario. 1939-1971*, Bilbo, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, 1977.
- Beltza. *El nacionalismo vasco en el exilio 1937-1960*, Donostia, Ediciones Vascas, 1977.
- Bernardo, Iñaki; Goiogana, Iñaki. *Galíndez. La tumba abierta. Guerra, exilio y frustración*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 2006.
- Ezkerro, Mikel. «Tierra Vasca. Un hito en el periodismo político del exilio vasco en Argentina», *Euskal Herria Mugaz Gaindi III*, 2006 ([www.eusko.sare.org/komunitateak/ikertzaileak/ehmg-3-mintegia/txostenak/ezkerro](http://www.eusko.sare.org/komunitateak/ikertzaileak/ehmg-3-mintegia/txostenak/ezkerro)).
- Ezkerro, Mikel. «José María Garciarena. Un vasco de ley», 2006b ([www.juan.degaray.org.ar/fvajg/docs/garciarena\\_boletin](http://www.juan.degaray.org.ar/fvajg/docs/garciarena_boletin)).
- Garde Etayo, Maria Luisa. *ELA a través de dos guerras (1936-1946)*, Iruña, Pamiela, 2001.
- Garmendia, Francisco. «EAJ-ren mendeurrenean euskalerrigintzari buruzko zenbait galderei jeltzale baten erantzunak», in Askoren artean. *Cien años de nacionalismo vasco: de la clandestinidad al autogobierno*, Bilbo, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1998, 127-134.
- Garmendia, J. M.; Elordi, A. *La resistencia vasca*, Donostia, Haranburu Al-tuna, 1982.
- Goiogana, Iñaki. «Denbora aurrera eta harria geldirik», in J. Agirreazkuena-ga. *II. Mintegia: Euskadi-Catalunya. Eusko Jaurlaritzaren eta Catalunya-ko generalitatea: erbestetik parlamentuen eraketara arte (1939-1980)*, Bilbo, 2006.
- Ibarzabal, Eugenio. «Así nació ETA. A los 20 años de su aparición», *Muga* 1, 1979, 76-89.



- Ibarzabal, Eugenio. «José Antonio Ayestarán y la historia de ELA-STV», *Muga* 3, 1980, 54-72.
- Inza, Jokin. *Hombre libre sin patria libre: memorias desde la resistencia vasca (1936-1980)*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 2006.
- Irujo, Xabier. *Euskal erbeste politikoa Urugain (1943-1955). Eusko Jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian*, Oñati, IVAP, 2005.
- Laso, José María. «Estudio de las fuerzas que actúan en Euskadi y su respectiva potencialidad», *El Basilisco* 27, 2000, 3-20.
- Madarieta, Asier. «El último grito de unidad. El Congreso Mundial Vasco», in J. Agirreazkuenaga. *II. Mintegia: Euskadi-Catalunya. Eusko Jaurlaritzaren eta Catalunyaeko generalitatearen erbestetik parlamentuen eraketara arte (1939-1980)*, Bilbo, 2006, 1-21.
- Mees, Ludger. *El profeta pragmático. Aguirre, el primer lehendakari (1939-1960)*, Irun, Alga, 2006.
- Morán, Gregorio. *Los españoles que dejaron de serlo*, Bartzelona, Planeta, 1988.
- Núñez, Luis (koord.). *Euskadi Ta Askatasuna - Euskal Herria y la libertad*, 1-8 liburukiak: Tafalla, Txalaparta, 1993-1994; 9-11 liburukiak: Andoain, Aise Liburuak, 2006.
- Olazar, Martín. *Zu, Martín. Nire bizitza. Oye, Martín. Relatos de mi vida*, Bilbo, Flash Composition, 1999.
- Pablo, Santiago de; Mees, Ludger. *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco (1895-2005)*, Bartzelona, Crítica, 2005.
- Renobales, Eduardo. ANV, *el otro nacionalismo. Historia de Acción Nacionalista Vasca-Eusko Abertzale Ekintza*, Tafalla, Txalaparta, 2006.
- Sudupe, Pako. «Andima Ibiñagabeitia: abertzaletasun berria», in X. Apaolaza. *Herri bat bidegurutzean*, Donostia, Saturraran, 2003, 89-105.
- Torrealdai, Joan Mari. *Karlos Santamaria. Gizona eta obra* ([www.gipuzkoa.kultura.net/euskera/ediciones/stmaria/ksindex.htm](http://www.gipuzkoa.kultura.net/euskera/ediciones/stmaria/ksindex.htm)).
- Txillardegi. *Euskal Herria helburu*, Tafalla, Txalaparta, 1994.
- Urkizu, Patri. *Andima Ibiñagabeitia. Erbestetik barne-minez. Gutunak 1935-1967*, Zarautz, Susa, 2000.

# Diktadura eta errebolta

**EMILIO LOPEZ ADAN**

Idazlea eta gizarte eta politika gaietan aditua,  
ginekologoa lanbidez

## Erregimena

Frankismoa gobernu errepublikano legalaren aurkako altxamendu militar baten ondorioz sortu zen. Hiru urteko gerla zibil ankerra behar izan zuen irabazteko, Alemania eta Italiako nazi-faxisten laguntzaz. 1945ean, Gerla Mundiala bururatua, Hitler eta Mussoliniren bukaera bera izanen zuela espero zitekeen, eta, *de facto*, irabazleek tratamendu aski gogorra eman zioten.

1950 arte, munduko estatu gehienek Espainiako erregimena isolatu zuten, bai diplomaziaren aldetik (NBEk enbaxadoreak erretiratzea onartu zuen), baita laguntza ekonomikoaren aldetik ere (hain zuzen, Marshall planetik kanpo utzi zuten). Jarrera orokor horien ondoan merezi du Domingo Perón-en salbuespena gogoratzea, zeren eta Argentinak Francori eman laguntzari esker arindu baitzen elikagaien gabezia handia.

Oro har, Munduko Gerlan irabazi zuten demokratek eta komunistek legitimitate osoa ukatu zioten erregimenari. Bestalde, nazioartean ez zen interbentzio militarrik propo-

satzeko akordiorik izan: frankismoa erori beharko zen, bai, baina gerlarik gabe.

Egoera honi buelta eman ziona ez zen hainbeste erregimenaren beraren aldakuntza, baizik eta nazioarteko oreka berria. 1947tik aitzina, antikomunismoa bilakatu zen Ipar Ameriketako Estatu Batuen lehentasun eta obsesioa, eta las-ter edozein diktadurarekin akomeatzea onartu zuten, non Sobiet Batasunaren aurka baitzen.

Frankismoak berak ondo ulertu zuen gertatzen zena, eta, gehiago dena, politika antikomunistaren aitzindaria zela aldarrikatu zuen. Franco ez zen bisionario bat; eskuindar eta erreakzionario hutsa izanik ere, totalitarismoaren amets fa-langistak ez zituen onartu Errepublikaren aurka botereak biltzeko baizik. Diktadura militarren funtzioekin nahikoa zuen, eta, boterean irauteko, faxismoaren itxura gordinenak baztertu behar izan zituenean, arazorik gabe egin zuen. Hots, Mendebaleko itxurak hartzekoak bideratu zituen, diktadura abandonatu gabe. 1947an onartu *Ley de Sucesión* zelakoak aldatu zituen definizioak: lehen, Espainia zen «estatu nazional-sindikalista, totalitario, autoritario, unitario, inperialista eta etiko-misionala» (haien hitzak dira...), eta engoitik «estatu katoliko, sozial eta errerepresentatiboa» izanenda, monarkia bat («bere tradizioaren arabera erreinu eraikitzen dena»). Egoera berrian, zaharrea bezala, Caudilloa estatuburua, betikoa, «erret-jatorriko pertsona bat» bere balizko jarraitzaile bezala aukeratzeko gaitasuna zuena...

Koreako Gerlarekin heldu zitzaion Ameriketako Estatu Batuen lehen mailegua; FAOn onartu zuten gero; 1951n AEBen enbaxadorea heldu zen (Carrero Blanco gobernuan sartu zen urte berean) eta 1952an Unescon egin zioten ongi etorria. 1953a izan zen urte erabakigarria. Urte hartan Vatikanoarekin sinatu zuen Konkordatua eta AEBekin pak-tu militarra. Base amerikanoek ez zuten bakarrik egonkor-tu Espainiaren leku internazionala: diru askoren iturria izan ziren ere. Luzeko, bidea egina zuen diktadurak, eta dagoe-neko 1955ean NBEn sartu zen.

Francok faxismoaren aztarna itsusienak kendu zituen bere estiloaz, erran nahi baita diktaduraren sostenguak bat bestearen aurka erabiltzeko zuen moduarekin. Poliki-poliki falangistak baztertu zituen, nahiz eta haien eskuetan luzez utzi zentsura eta gazteen formazio politikoaren alorra. Monarkikoei sarreratxoak eman zizkien, batez ere 1955etik aitzina, Juan Carlos printzea heldu zenean akademia militar frankistetan bere kadete formazioa egiteko. Vatikanoren begiradapean, Elizari begiratu zion «Gurutzada» deitu gerla zibilean hartua zuen leku nagusia, Espainiaren erligio eta morala kontrolatzeko, erregimena benedikatzen zuen bitartean: 1957tik aurrera sartu zituen Elizakoak gobernuan, katoliko progresista bakanak baztertzen zituen bitartean.

Opus Deiko teknokrazia horri egokitu zitzaion Mendebaldeko ekonomian integratzeko behar ziren aldakuntza handiak bideratzea. Espainia burgoi eta autarkikoa, totalitario eta autoritarioa, ez zen egokia merkatuaren lege kapitalistekin akomeatzeko. 1959ko Estabilizazio Planak helburu hori zuen.

Hor hasi zen ziklo labur eta erranahitsua, 1963ko Hazkunde Plangintzaraino hedatzen dena. Urte haietan, frankismo diktatorialaren latza goxatzeko gero ezagutuko zen onura ekonomikoa antolatzen da: Fraga ministroa eta Juan Carlos eta Sofia espos, 1962koak dira...

## Ondorio sozialak

Bitartean, Espainia luzez izan zen azpigarapenaren pene-tan. Munduko Gerla bukatuta eta 1952 arte, miseriazko Espainia beltzean bizi ziren herritar gehienak. Hirietan, errazionamendu kartilak mugaturik, jateko aski ez zen, eta erosteko ilarak ohikoak ziren; iluntzean, argi-indarraren mozketen artean, filamentu gorrizko bonbillek doi-doi hausten zuten iluntasuna; gabeziak betetzeko, estraperloa, gutxiren aberastasuna eta gehienen makurra; eta hiri inguruetan, txabolismoa.

1952rako, hobekuntza ekonomikoak ekarri zuen errazionamenduaren kentzea, baina hamarkada osoan gaindi inflazioak jan zituen garapenaren fruituak, eta, oro har, herrietan ezin biziz, emigrazio handiak gertatu ziren, hasieran estatua-ren barnean eta laster, bereziki 1959ko estabilizazioarekin, Europara.

## Errepresio politikoa eta miseria kulturala

Iluntasuna ez zen bakarrik ganbara hotsen errealitatea. Espainia guzia hitsa eta arrea zen. Erregimenak ez zeukan populazioaren akordio politikoa eta ez zion onurarik ematen; kontrol soziala segurtatzeko beldurra erabiltzen zuen, gerla-ren segida zuzenean. Alta, ez ginen totalitarismoaren amets zoroek sortu genozidio baten aurrean; erregimenak terrorea erabiltzen zuen mehatxatua sentitzen zen neurrian, eta gehiengoaren isiltasuna zuen ametsa. Horregatik batzuek garbitu nahi izan diote aurpegia, erranez frankismoa ez zela hain gauza terriblea, bakean uzten baitzituen bake hutsean bizi nahi zuten gehienak... Alta, askatasun demokratikoen ukatzea eta oposizioaren aurkako errepresioa, biak ziren eta dira nabariak, eta frankismoak ez bazuen ere totalitarismoak goraiatzeko ohi duen proiektu orokor genozidarik, ez zen horregatik aita on baten azpiko etxalde baketsua.

Gerla ondoko garbiketa basak utziak zituen, baina 1947ko lege antiterroristak erabiltzen zituen. 1949tik 1953ra arte, tribunal politikoek 17 balbe-zigor eman zituzten eta 7 burutu... 1958an sonatua zen Eymar jaunaren auzitegia, eta Ordena Publikoaren Legeak (1959an) errepresioaren «normaltzea» ekarri behar bazuen ere, 1963koak dira Grimau, Delgado eta Granados-en exekuzioak. Gehiago dena, 1960ko erreforma judizialak oraindik onartzen zuen auzitegi militarren eskuetan izan zitezkeela oposizio, pentsamendu edo prentsa delituak, balbe-zigorra eta guzti. Oro har, eta lagin gisa: gerla ondoko lehen amnistia 1950ean emana bazen ere, 1961ean oraindik 8.000 preso politiko bazen kartzeletan.

Adostasun politikoaren ezinean, eta herria kontrolatzeko, beldur poliziakoari gaineratu behar zitzaion kontzientzien kontrola. Oinarrizkoa, Elizak zeukan. Horren eragina erakusteko, aski da gogoratzea irakaskuntzaren kontrola edota ikuskizunen baimentzeko boterea. Falangeari utzia zion prentsa eta liburuen zentsura: 1951n Arias Salgado zegoen Informazioan eta 1962 arte ez ziren ageri zentsuraren lehen arintzeak.

Edozein errebisionismo historikoren aurka, erranen dugu urte horietako Espainia ilun, triste eta beldurtua zela, eta ez gara errealitatetik urrun izanen.

## Gerla zibilaren azken ondorio armatuak

Errepublikanoek gerla galdu zuten, eta 1945etik aitzina gerrilla edo makiak ere aienatu ziren. Ahulezia propioen gaintetik, erresistentzia armatua luzatu nahi izan zutenek ez zuten kanpoko laguntzarik izan. Hasteko, frankismoa isolatu zuten estatuek irtenbide militarra baztertuta zutela bada-kigu; gero, AEBek eta NEBk erregimena onartu zutenean, erori zen borroka armaturako argudio nagusia, erran nahi baita Gerla Mundialean demokraziak faxismoa armaz menderatu zuela eta Francoren patua hori ere izan beharko zela. Oro har, antikomunismoak gaina hartuta, ez zen gerla jarraitzeko girorik. Alta, azken mohikanoak izan baziren, zeren eta erregimenaren natura ez zuten AEBek aldatu, eta errepublikano anitzek saldukeria bezala sentitu zuten akordio berria. Maki asko herbesteratu zen, azkenek jarraitu, eta batzuek gogor ordaindu: 1956an Facerías hil zuten Bartzelonan, eta 1960an erail Sabaté mitikoa.

Erresistentzia armatuaren presentziari garrantzia ematen ahal zaio, erakusteko nola frankismoaren aurkako oposizio armatua, militarri gainditua izanik ere, ez zen gauza ezezaguna, eta, gehiago dena, erresistentziaren etika politikoaren jarraipenean zen.

## Oposizioa

Bazen, hasieran, Errepublikako gobernu legitimoari lotu oposizioa, aski batua, munduak onartua eta leku batzuetan, Mexikon bezala, ohoratu. Baina antikomunismoak sortu egoera berriaren ondorioz, herbesteko Gobernuak pikutara joan zen. Giral Gobernuaren ordezkatzeko arazo garbiak izan ziren 1947an; gero, Llopi's Gobernuak arrunt laburra izan zen, eta 1948an sozialistek abandonatu zuten Errepublika errestituratzeko estrategia. Albornoz Gobernuak indar-gelditu zen, eta laster politikatik desagertu zen Espainiak gobernu errepublikanoaren figura.

1948tik aitzina, sozialistek argi erakutsi zuten errepublikarren batasuna ez zutela onartzen, komunistak han zirelako. Haien ustez, munduko giro politikoari egokitzeko antikomunismoaren estrategia onartu behar zen; Mendebaldeko potentziek onarrezaketen irtenbide «errealista» baten bila, Donibane Lohizunen bildu ziren sozialistak Gil Robles-en monarkikoekin. Euskal Herriko politikari historiko batek, Prietok, sustatu zituen proiektu horiek... laster ametsetako lukainka bilakatuak, monarkikoek, hain zuzen, frankismoari ametoa eman zitelako.

1951tik aitzina argia zen Juan de Borbonek etsi zuela frankismoaren aurrean: Juan Carlos semea Francok ordezkari gisa onartuko zuela bilakatu zen monarkikoen esperantza bakarra. Monarkikoak falangisten aurka ibiliak (Francok erabiliak...) baziren ere, argia zen monarkikoei fida ez zela alternatiba demokratikorik izanen.

Besterik asmatzeko ezin ideologikoan, sozialisten eta monarkikoen arteko dantzak loerian utzi zuen oposizioa. Barneko egoera bezain hits eta tristea zen herbestekoa. 1962an Munichen ondu zen dokumentu txiroak, eska zitezkeen minimoen gutxiengoan finkatua, erakusten ditu ederki oposizio horren ahultasuna eta erakargarritasunaren falta.

Komunisten aldetik, berriz, gauza berriak ikusi ziren. Bakartasun politikoak eta estalinismoaren krisiak bultzatuta, bi

kontsigna berri zabaldu zituzten: «Errekontziliazio nazionala» eta «Greba orokor politikoa». Langileen egoera berriak, gero ikusiko dugunez, eman zien burua altxatzeko gaitasuna.

## Indar sozial berriak

Gutxi izanik ere, erreboltatzeko ausardia izan zutenak izan ziren, eta ingurune gogor hartan adore berezia erakutsi zuten. Askoren memorian dago 1951ko tranbien greba, Bartzelonakoa, edota 1954tik aitzinako ikasle unibertsitarioak, eta haiekin bat egin zuten irakasle bakanak edota pertsonaia kristauak, Joaquín Ruiz Giménez bezala.

Duintasun irakaspen horien ondoan, langileen mugimenduak sortu eta hedatu ziren 1951ko grebatik aitzina, herbeste-ko indar politikoen eragin gabeak. Bistan da eguneroko zapalkuntza, gogorkeria eta inflazioaren aurka altxatu zirela langileak; bistan ere formaziorako tresnarik ez zutela, alderdi politikoak, sindikatuak, liburu eta prentsa demokratiko eta iraultzaileak debekatuak zirenean. Halere, ikuspegi ideologiko edo estrategiko elaboratuen jabe ez baziren ere, egoera baliatzeko gaitasun ederra erakutsi zuten. Egoera berria, zertan?: behin dirigismo totalitario antiekonomikoa utzirik, enpresetan nagusiek bazuten langileekin zuzenki tratatzeko beharra. Behar ekonomiko horri erantzuteko ageri zen 1958ko Konbenio Kolektiboen Legea, eta gero heldu 1961eko Enpresa juratuen hauteskundeak. 1963an hauteskunde sindikalen arazoa paratu zen: indar sindikal berriek erabili zituzten, hor baitzen parada errebindikazioak kaleratzeko eta liderrak ezagutarazteko; zentral sindikal zaharrek, herbesteari lotuak, printzipiozko abstentzioa aldarrikatu zuten, arrakastarik gabe.

## Indar politiko berriak

Ez gara 1962tik aurrerako mugimendu handietan, eztabaida handietan, baina ikertzen ari garen garaian eman zi-



ren geroko joritasunaren lehen urratsak. Horrela, 1955ean sortu zen Frente de Liberación Popular, FLP famatua, Alderdi Komunistakoak baino ezkertiarraoak eta konpromiso herrikoia nahi zuten katolikoak biltzen zituena.

Hain zuzen, Eliza baitzen jendartea integratzeko erakundeak izaten ahal zituen egitura bakarra, militante berri antzek lehen urratsak mugimendu apostolikoetan eman zituzten. 1956an sortu langileen erakundeetan (JOC - HOAC...) ibili ziren gero, 1960an, USO sindikatuaren sortzaile izanen ziren batzuk.

1962 eta 1963an jaio ziren CCOO eta AST (gurean hain ezaguna eta hain iragankorra izen zen ORTren aitzindaria). Garai berriak dagoeneko.

## Intelektualak erregimenaren aurka

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi pentsaeran, eta literaturan bereziki, izan zen lehen oldea. Panorama hertsia eta etsi hartan, non Marcelino Menéndez y Pelayo (!) aldarrikatua baitzen zeruertze intelektual bezala, non jende anitz ibiltzen baitzen pedantismoan edo erudizio hutsalean, edo, hobeki egin nahietan, poeta faxisten (Ridruejo bezala) «eskapismoan», giroak eta zentsurak oso leku gutxi uzten zioten sorkuntza intelektual duin eta libreari. Ez nioke Celaren bezalako «neo-errealismoari» benedikazio handirik eman nahi, nire iduriko hor ere, itxura tremendisten azpian, nahikoa konformismo formal eta politiko bazelako.

Baina izen eta obra handiak baditugu Espainian zentsurarekin borrokatu behar izan zuten artean. Horra poetak, Celaya eta Blas de Otero bezala; zinemagileak, Bardem, Berlanga... Teatroa: Buero Vallejo (laster akitua) eta Alfonso Sastre.

Eta eleberria. 1957koa dira Sánchez Ferlosioren *El Jarama* eta Aldecoaren *Gran Sol*... Horra hor Goytisolo anaiak. Eta 1960ko *Las ciegas hormigas*, Ramiro Pinillarena. Eta hausturen urrats hunkigarriena, nire ustez, Luis Martín Santos, 1962an, *Tiempo de silencio*.

Irakurle gisa, harro naiz erdarazko lan ausarten artean hainbeste euskaldun aurkitzeaz.

## Euskal Gobernua, jeltkideak, sozialistak...

Aipatu indar harremanen aldaketa orokorrek euskal politikan izan zuten eragina, eta ondorioak Espainiako bertsuak izan ziren. 1947tik antikomunismoa bilakatu zen gai nagusia, eta 1948an komunistak Euskal Gobernutik kanporatuak izan ziren, indar errepublikano eta estatutisten batasuna hautsiz. Diotenez, sozialistek inposatu omen zuten eta Jose Antonio Agirrerentzat nahikoa gogorra izan zen, baina kontzientzia arazoak «errealismo» politiko berriaren azpitik joan ziren.

AEBen eragina oso handia zen EAJren gainean. Alderdia-  
ren zerbitzuetan jende anitz bazegoen amerikanoek trebatu,  
ordaindu edo erabilia. Eta, hala eta guztiz ere, AEBek eta Mendebaldeko potentziek ez zuten arazo handirik izan jeltkideen eta frankisten artean hautatzeko, lehengoek kaltetan. Frantziak jeltkideak igorri zituen Avenue Marceau-ko egoitzatik kanpo 1951n, eta laster gero Ipar Euskal Herriko irratia hetsi zien. Errefuxiatuekiko «tolerantziak» iraun bazuen ere, sostengu politikoa bukatu zitzairen, eta gauzak hain ziren nabariak non 1958an jeltkideek ere salatu baitzuten yan-  
kien saldukeria.

Kontura gaitezen zazpi urtez egon zirela irentsi eta irentsi, Mendebaldeko laguntzaz finkatu EAJren estrategiak porrot garbia egin zuela aitortu arte. Immobilismoa justifikatzeko «laster eroriko» leloa xuxurlatzen zuten, baina kantak ez ziren onak herbestekoak lokartzeko baizik. Egoera berriari erantzun berriak emateko gaitasuna galdua zuten, herbesteko errepublikar gehienek bezala. Nire ustez, eta batzuek eman dituzten interpretazio handiotsuen aurka, 1956ko Munduko Euskal Biltzarraren hein intelektuala penagarria zen, Espainiako kultura bezain hitsa. Paradisu euzkotar anakronikoen memoria asmatuetan kontsolatzen ziren politikan galduak zirenak.

1960an hil zen J. A. Agirre, eta Leizaola lehendakari izendatu: eruditu arrea, egoeraren sinbolo egokiena. 1960an ere iratzartu zen EGI eta aktibismoan murgildu, baina hori barnean ageri indar berriei erantzun gisa ulertu behar da... Garai berrietan ginen, eta beste norbaitek hartua zuen erresistentziaren zuzia.

## Jendarte mugia

Euskal Herrian ere, Espainian bezala, mugimendu berriak ageri ziren, erresistentzia zabalduz. Gurean ere aski xumeak izan ziren, baina ez gutxietekoak.

Langileen aldetik, 1951ko greba, 1953koa ontzi-oletan, Iruñekoak 1956an, eta gero 1960tik aitzinekoak.

Intelektualen artean, 1952ko da Krutwigen hitzaldi famatua, zeinen ondorioz herbestetu baitzen. Hamar urte geroago haren *Vasconia*-k astindu zuen askoren loeria. 1956tik lanean zen Arantzazun Jorge Oteiza, *Quousque tandem* 1962an argitaratuko duena, beste zeinu kolpe ozen bat. 1957an argitaratu zen Txillargediren *Leturia*, euskarazko lehen eleberri moderno aldarrikatua izan dena... Urte haietan ere lehen ikastola, euskararen idazketarako oinarria Arantzazuko Biltzarrean, Auñamendi argitaletxea, edota Lan Kide Aurrezkia.

1958tik aitzina, Joan XXIII.a pontifikatura helduta, euskal elizan ere mugitu ziren hierarkia frankistari aurre egiteko beharra sentitu zuten lehenak. 1958ko da 339 apezten gutun famatua, eta hortik datoz, 1963ko *Pacem in Terris* eta Vatikanoko II oinarria hartuta, Eliza osoa astinduko duen olde zabalaren sustraiak.

Hain zuzen, Elizak zeukan autonomian finkatuta, askatasun nazional eta demokratikoen alde mugitu ziren aitzindarien artean sartu behar ditugu *Jakin* aldizkariko idazle batzuk.

Ez gara hamar urte geroagoko eztabaida ideologiko sakon eta gogorren garaietan, baina inork ikusi nahi badu klandestinitateko urte horietan norainoko konplexitatera sartu

ziren berrikuntza ideologikoak, aski luke 1963ko *ELAren Printzipioak* irakurtzea (... ahal badu).

## ETA

Euskadin berrienak, erranahitsuenak, ETAren militanteak izan ziren. Haien historia leku askotan aipatua da, ez gara tematuko: Ekin taldea 1952an bilduz gero, EAJrekin irtenbide bat bilatzeko 1956an Euzko Gaztedi eraiki zuten eta 1958an J. A. Agirrerekin Parisen bildu, azkenean 1959an Euzkadi Ta Askatasuna erakunde berria sortzeko; 1961ean molde gandhianoei eza eman zieten eta borroka bortitzean sartu, Uztailaren 18ko gerlari frankista ohien deskarrilearekin... Gogora dezadan ETAk inor hil edo zauritu gabe ere, polizia frankistak 1961ean hil zuela Batarrita bilbotarra, Julen Madariaga zela ustez; gogora ere 1962ko salbuespen egoera kari, militante anitz kartzelan sartu zutela eta nahikotxoa herbestera joan zela. Inork «konfliktoaren» lehen biktimak bilatu nahi baditu, badu nora jo.

Azpitarratu nahi dut Ekinetik ETARA zazpi urte pasatu zirela, eta denbora gehiena *ikasten* pasatu zutela ekintzaileek. Ikasten, bai nazionalismo zaharraren ikusmoldeak, bai eta ere Euskal Herriko egoera erkatuz munduan ziren jokamolde intelektual eta esperientzia historiko garaikoekin.

Munduan bazen zer ikus eta zer ikas: komunismoari buruz, Stalinen heriotza, Khrustxev *Txosten sekretua* edo Hungariako gertakariak; Mendebaldeko demokraziei buruz, baita inperialismoari buruz ere, gerla hotza, Suezko krisia, eta antzeko arazoak; anticolonialismoaz, Aljeria zela eta; totalitarismoaz, Eichmann auzia; arazo nazionalak eta iraultza soziala biltzeko entseguaz, Fidel Castro eta Lumumba garaietan ginen; edota Europaren batasunaz, Erromako Ituna 1956koa izanik.

Hots, ideia eta estrategia berriak bilbatzeko entseatu ziren, eta haien erantzunak ez baziren oraino 1962tik aurreko formulazioetara heldu, geroko oinarriak pausatu zituzten.

## Bagenuen (badugu) erreboltatzeko eskubidea

Frankismoaren natura diktatorial eta ilegitimoaz mintzatu naiz ozenki, eta horrekin erantzuna eman nahi diot orain memoria historikoaren aurka daramaten ofentsiba kontzeptualari. Omen, diote, Euskal Herrian ez da askatasunaren aldeko gatazkarik izan, baizik eta estatu demokratikoaren aurkako talde terrorista baten bortizkeria. Eta estatuari, noski, «biolentziaren monopolio zuzena» onartu behar zaio. Diotenez, biolentzia legitimo horren erabilpenari esker heltzen ari gara terrorismoaren bukaerari, eta terrorismoaren inguruko gutzia historiaren zakarrontzietara badoa. Afera noiz hasi zen galdetzen badiegu, zera erantzuten digute: ETAk egin lehen asasinatuarekin, 1968ko ekainaren 7an, Pardines guardia zibilarena.

Estatuaren monopolio hori eztabaidagarria bada ere, saltzten diguten azalpenak badu akats nabari bat: anakronikoa dela. 1968an ez zen Espainia eta bere kolonietan inongo zuzenbidezko estatu demokratikorik, Franco generalaren garaian ginen, eta, arestian errana dugu, Franco boterera heldu zen Errepublikaren aurkako jazartze faxista baten bidez, Italia eta Alemaniako laguntzari esker. Ikertzen ari garen garaian, ETA sortzen denean, jende gutziak bazekien Errepublika defendatu zela armak eskuetan, Francoren kontra makiak ibiliak zirela, eta alderdi demokratikoak klandestinitatean zeudela. Munduan baztertua izan zen erregimen diktatoriala antikomunismoaren erabilera itsusienari esker berpizten ari zen, eta ez demokraziaren ohorean.

Saldu nahi diguten parabola anakronikoak Francoren erregimenari ere ematen dio «biolentziaren monopolio legitimo-rako» eskubidea...? Nola da posible oraingo ikusmolde hutsekin duela berrogeita hamar edo berrogei urte gertatu zena hain faltsuki ebastea? Frankismoaren aurka altxatu zirenek biltzen zituzten herri sostengua, munduko iraultzaileen eta demokraten oniritzia; eta, ondorioz, hango egoera historikoan beraiek zeukaten askatasun eta duintasunaren ikurra. Hori, edozeinek daki.

Edo jakin beharko luke... Baina bada ofentsiba itsusia, intelektualki ahula eta mediatikoki azkarra, gu guztiok desohoratzeko. Erran nahi dut, erresistentziak ibili euskaldun guztiak desohoratu nahi dituzte, eta ez soilki frankismoaren aurka edota oraingo estatuen desmasien aurka pertsonalki borrokatu dutenak, baizik eta borroka hori ohore bat bezala onartu duen abertzaletasun osoa. Memoria eta egia historikoa errebindikatu, argi utzi nahi dut oraingo egoera edozein izanik ere, baita ETAk berak gero hartu terrorismoko bideen kalteak presente izanik ere, gertatu zena gertatu zela, eta ez beste zerbait.

Horregatik, eta bukatzeko, esker ona erakutsi nahi diet jeldideek porrot egin zutenean eta frankismo gogor eta triste baten pean zegoen herriaren baitan, ikasteko, mugitzeko eta bustitzeko ausardia eta duintasuna izan zituztenei. Erran nahi baita, besteak ahortzi gabe ere, ETA sortu zuten militanteei.¶

# Gerra Hotzaren gorian

Mundu garaikidea finkatu zuen  
hamarkada

**MIKEL ARAMENDI**

Kazetaria, nazioarteko auzietan aditua

50etako mundua gogoratu eta egungoarekin alderatzean, orduko testuinguruaren ildo nagusiak ez aintzakotzat hartzeko arriskua ez da txikia. Hutsegite latza izango litzateke. Lehenik eta behin, egun duen biztanleriaren erdia zuen munduaz ari gara: 2.500 milioi gizaki zituen Lurrak 1950ean eta 3.000 milioi eskas hamar urte geroago. Esan behar da orduan 2000. urterako egiten ziren aurreikuspen demografikoak (6.400 milioi) ez zirela horren okerrak. Baina xehetasunetan sartutakoan, errakuntzak larregiak bilakatzen dira. Kontinente guztietan, gerora egiatan eman denaren gaineko hazkundea aurreikusten zen... Afrikaren kasuan salbu: hirugarren milurtekoa hastean 500 milioi biztanle izango zituela uste zen; 775 milioi paseak ditu egun. Egungo kinka latz askoren abiapuntua litzateke, hein batean.

Aberastasunaren banaketan egungo eta orduko munduaren artean aurki genitzakeen aldeak nabarmenagoak lirateke, hala ere. 1960an Estatu Batuetako biztanle bakoitzak zuen errenta gordina (2.310 dolar, garai hartakoak), munduko handiena ez ezik beste edozein herrialde aurreratueta-

ko (europar guztiak barne) biztanleek zutena halako bi edo hiru zen (1.073 dolarreko errenta zuten Erresuma Batukoek; 1.012 Mendebaldeko alemaniarrek; 866 frantsesek; 746 sobietarrek). 1954an RCAk merkaturatu zuen lehen kolorezko telebista erosteko, haatik, estatubatuar ertainak ere bere urtebeteko errentaren ia erdia beharko zuen, 1.000 dolar balio baitzuen; munduko lekurik gehienetan, ordea, zuri-beltzeko emisiorik eta hargailurik ez zen oraindik. Kanada auzokidea besterik ez zen Estatu Batuen oparotasunera hurbiltzen, 1.555 dolarreko errentarekin. Japoniarrek, 290 baino ez zuten, eta hala ere Asiako aberatsenak ziren, petrolioaren boomaren aztarnarik ez zelako oraindik herrialde arabiarretan. Indiarren errenta 60 dolarrekoa zen, eta txinatarrak paretsuan ibiliko zen.

Petrolio aipatu dugunez, deigarria egiten da 1960ko datuak gainbegiratzea: Estatu Batuak ziren produktore nagusia, noski, munduko produkzio osoaren herena ekoizten zutelako; ondorengo bietako bakoitzak, Venezuela eta Sobiet Batasunak, ez zuten haren erdia merkaturatzen; eta herrialde arabiar guztiak, orduan oraindik Erresuma Batuen eskuetan zegoen Kuwait buru zutela, denen artean, ez ziren Amerikako erraldoiaren produkzioaren pareraino iristen. Ez da harritzekoa, bide batez, munduko autoen erdia Estatu Batuetan ekoitzia izatea sasoi hartan. Antzeko zifrak aurki ditzakegu beste hainbat arlotan: elektrizitatea, altzairua, papera...

Komunikabide aurreratuenen arloan, aldea nabarmenagoa zen oraindik estatubatuarren alde. «Multinazionalak» deitzen hasita zeuden industria eta merkataritza konpainiatarren zerrendan oso bakanak ziren beste edozein herrialdeetakoak. Munduko zazpi hirigune populatuenetako hiru Estatu Batuetakoak ziren, handiena, New York, barne; eta atzerriko beste lau megapoliek adina biztanle bilbatzen zituzten hiruren artean. Estatubatuarren %64 hiriguneetan bizi zen jada; aldiz, txinatarren %85 edo indiarren %82 landa lurretan, sobietarren erdia baino gehiago bezala. Bitxita-



sun (?) gogoangarri bat: 64.586 balea ehizatu ziren 1958an mundu osoan, ofizialki.

Munduko lehen potentzia ekonomikoa zein zen oso argi zegoen, beraz. Arlo politiko-militarrean, ordea, beste era batera ikus zitezkeen gauzak. 1949an Sobiet Batasunak bere lehen bonba atomikoa leherrarazi zuenetik, benetako lehia piztu zen bi superpotentzia militarren artean arma nuklear berriak eta indartsuagoak asmatu, prestatu, frogatu eta jaurtitzeko moduan ipintzeko. 1952ko urrian, Erresuma Batuak ere bere lehen bonba atomikoa leherrarazi zuen. Handik hiru astera, Estatu Batuek historiako lehen hidrogeno bonba frogatu zuten Itsas Barean. Sobietarrek hiru urte beranduago sutu zuten beren lehen H bonba; hamarkada amaitezar zenean, 1960an, lortuko zuen Frantziak arma atomikodun herrialdeen klubean sartzea, oraindik beren eskuetan zuten Aljeriako basamortuan eginiko frogarekin. Eta 1964an txinatarrek.

Norgehiagoka horrekin batera bilakatzen ari zen, bestalde, arma nuklear haiek benetan erabili ahal izateko jaurtigailuen lehiaketa. 1954an uretaratu zuten Estatu Batuek Nautilus urpeko nuklearra. Hurrengo urtean hedatu zituen Sobiet Batasunak bere lehen bonbaketari estrategikoak, eta bi urte beranduago jaurtiki zuen bere lehen misil interkontinentalak. Ondorengo hamarkadaren hastapenetan, Kubako misilen krisiarekin iritsiko zen *crescendo*-a gorenera, baina 60ko maitzean sobietarrek Gary Powers-en U-2 espioitza hegazkina bota zutenerako goi mailetaraino joanda zegoen tentsioa. Elkar Suntsitze Ziurra (MAD ingelesez, «zoroa» hitz lauz) strategiaren garapeneko fasea izan zen 1950eko hamarkadakoa. Izena behintzat izanarekin nahiko bat zetorren.

Lehia beldurgarri honen emari *kolateral* moduan sortu ziren, hamarkada hartan bertan, gerora eragin zibil eta sozial handia edukiko zuten zenbait egitate: energia nuklearraren industria zibila (56tik aurrera), eta espazioaren ikerketa eta ustiapenerako satelite artifizialak (1957ko Sputnik eta 1958ko Vanguard espazio-ontzien ondotik), adibidez. Haietan xahu-

tutako I+Gren emaitza ekonomiko-sozialak mantso eta poli-  
liki gizarteratuko ziren, baina bloke geopolitiko bakoitzaren  
propagandarako tresna eraginkorrek izan ziren hauek biak,  
70eko hamarkadara arte. 1957an, Steinbuch alemaniarrek  
«Informatik» hitza asmatu zuen, sortzen hasiak ziren tran-  
sistorez betetako konputagailu edo ordenagailu sorgindu  
haiei zegokienaz mintzatzeko. II. Mundu Gerratik zetorren  
jakitearen «bahiketa» militarra askatzen hasita zegoela deli-  
bera genezake, geroak ematen duen jakituriarekin.

Aurreko hamarkada amaitzean European gorpuztu zen  
bloke politika, hasierako txanparen sasoirik onenean ze-  
goen edonola ere, eta mundu mailako egitate bilakatu zen  
1950ekoan. Mendebaldarren nagusitasuna argi zegoen eko-  
nomian, zientzia eta teknikan, baina Ekialdeko blokearen  
nagusitasun demografikoa eta geografikoa ere ezbairik ga-  
bekoa zen. Eta deskolonizazio prozesuak lehengai eta langi-  
le merkerik gabe utz zezakeen industria mendebaldarra. Bi-  
de batez, aliantzak zabaldu eta sendotzea lehentasun nagu-  
sia bihurtu zen Estatu Batuentzat, nola Trumanen azken bi  
urteetan hala Ike Eisenhower militarren bi agintaldietan.  
Turkia eta Grezia 1951n eta Mendebaldeko Alemania  
1954an NATOkoko bazkide bihurtu ziren, Ozeanian ANZUS  
eta Asian SEATO eratzen zireneko garai bertsuetan.

Estatu Batuen etxe barnean, kinka hark, McCarthy sena-  
tariak bultzaturiko sorgin-ehiza antikomunista gartu zuen.  
Egiazko nahiz asmakizunezko espioi sobietarren bilaketa  
(egun ere ez da erraza, adibidez, Rosenberg senar-emazteak  
sail horietako zeinetan kokatu beharko lirartekeen erabaki-  
tzea) arte, literatura eta zinemagintzako sortzaile kritiko  
edo susmagarrien pertsekuzio bilakatu zen, garaiko prensa-  
ren hizpide nagusietakoa bihurtzeraino. European, sobie-  
tar blokeari aurre egitekotan, desnazifikazioaren azken az-  
tarnak lurperatu ondoren, demokrata-kristau eta sozialde-  
mokratekiko aliantza estrategikoa itundu zuten Estatu Ba-  
tuek, Portugalen eta Espainian indarrean geratzen ziren fa-  
xismoen kondarrei muzin egin gabe.

Aurka, Stalinen desagerpenak 1953ko martxoan utzitako erreferentzia-hutsunea nola bete eta estrategikoki nora bideratu erabakitzea kostatzen ari zitzaion blokea zuten estatubatuarrek. Beriaren exekuzioaren ondoren, Malenkov, Molotov eta Kaganovitxen arteko troika edo zuzendaritza kolektibo modukoa eratu zen Sobiet Batasuneko PKren buruzagitzan, baina azkenean Khrustxev ukrainar funtzionario zalapartatsua nagusituko zen haien guztien gainetik. Hark 1956ko XX. Kongresuan abiarazitako desestalinizazioak berehalaxe ipini zituen agerian aurreko urtean Varsovian ofizialki itundutako bloke politiko-militarrak Europa Ekialdean zituen pitzadurak. Titoren disidentzia zaharragoa, barne krisiak gorabehera, finkatu eta egonkortu egin zen, bitartean.

Sobietar blokearen baitako etendurarik handiena, hala ere, Asian ariko zen ernetzen, isilpean denboraldi luze batez, 60ko hamarkadaren hastapenetan bortizki argitaratze-ko. Maok eta Txinako Partidu Komunistak, Stalin eta Sobiet Batasunarekiko gorabehera zaharrak bazituzten ere, ez zuten inoiz begi onez ikusi desestalinizazioa, ez eta Khrustxevrek proposatzen zuen Mendebaldearekiko lehia ekonomiko bakesua ere. Eta 1959an Txinan hasitako Aurrerakako Jauzi Handiaren porrot lazgarria xurgatzerakoan sobietarren aurkitu zuten laguntasun eskasa, eta beranduxeago Indiarekiko gerran Moskuk hartu zuen jarrera, aski izan ziren komunismoaren baitako etendurarik handiena izango zena agerian ipintzeko. Handik aurrera, elkarrekin ez baizik elkarren aurka aurkituko ziren Mosku eta Beijing nazioarteko arazorik gehienetan.

Mundua ez zen bi blokeen esparru gotortuetan amaitzen, nolana ere, zorionez. 1955eko apirilean, Ahmed Sukarno anfitrioi zutela, Indonesiako Bandung-en «Asiar-Afrikar Konferentzia» bildu zen, Egipto, India, Pakistan eta abarrek deitua. 29 herrialde bertaratu ziren; haien artean, Txina. Teoria hutsean gizateriaren gehiengoa ordezkaturako zukeen Ez-Alineatuen mugimendu gandutu eta ez oso sasoiaren sorburua izan zen, Nazio Batuen Erakundea potentzia na-

gusien hizketa-lekua baino asko gehiago ez zen une batean. Bere kideen arteko kontraesanek, haietako askoren barne egonkortasun eskasak eta bi blokeen presioek, hauen kontrapisu edo mugatzailearena egitea ezindu bazien ere, Hirugarren Munduaren izate anbigua baina, aldi berean, gardena azalarazi zuen. Eta, batez ere, blokeetatik at bizi zitekeela jakinarazi zuen, blokeen barneko miseriak gordinki azaleratzen ari zirenean.

## Urte eredugarria 1956koa

Bi gertaera nagusi eta kasik aldiberekok —udazkeneko egun bertsuetan jazo baitziren— egingo zuten gogoangarri 1956, *Jakin* sortu zeneko urtea, munduan. Alde batetik, Hungariako Matxinada; bestetik, Suezeko Krisia. Biak, urte hartan bertan, eta aurrekoetan, metatuz joandako beste hainbat gertaera eta eragileren emaitza ziren. Eta biak, Gerra Hotzaren adierazpenak eta ondorengo hamarkadetan eraiki ez ezik hormatu egingo zen mundu erdibituaren eredu izango ziren, bakoitza bere ingurumenean.

«Hungria dala-ta» izenburuarekin Iñaki Bastarririkak *Jakin*-en 2. zenbakian idazten zuen hausnarketa (nazioarteko politikari aldizkariak eskainiko zion lehena, preseski) hone-la hasten zen:

Lazgarri ta giza-ezkoak izan dira 1956'ko udazkenean Hungria'n gertatuak. Gizonei ta erriei lots goaitkarriena sortu bear liekenak. Erri ta biotz zuzen guzien ezespren gogorrera irabazi dutenak. Gizadi osoa bat egin da, alderdikeri oro gainduz, gertaera laidogarri auek pizturiko aserrea azaltzearen. Gizon guziek daramaten zuzen-izpi orrek lotu ta batu ditu asmo ta iritzi guzietariko buru-biotz oro.

Berrogeita hamar urte geroago, zaila da gogoetarekin bat ez etortzea. Baina aldi berean, zaila da, Hungariatik kanpo behintzat, gertaera haien nondik norakoa gogoan duen ez-espezialistarik aurkitzea eta, bide batez, Matias Rakosi, Imre Nagy, Erno Gero, Janos Kadar eta gainerakoen izenak

gogoratzen dituen europarrekin topo egitea. N. Khrustxev, K. Voroshilov, J. Andropov eta I. Konev-enak ere historia-ren hautsak estalita dauden bezalatsu. Drama haren ageriko protagonista nagusiak izan ziren, hala ere. Hungariakoak, bestalde, erabat ezabaturik utziko zuen Poloniako aurrekaria, oso bestela kitatua.

Azaroaren 4an hasiko zuten inbasiorako sobietar tankeen motorrak beroketa egiten ari ziren bitartean, urriaren 29an Israelek Gazako Zirrintan eta Sinai Penintsulan eraso zien egiptoarrei, eta bi egun beranduago britainiar eta frantziar gudaroste batek Suezeko kanala hartzeko *Musketeer* operazioa hasi zuen. Gatazka, kanalaren balio estrategiko eta ekonomiko ikusgarriak, eta 1952an Faruk erregea bota zutenez geroztik militar nazionalisten esku zegoen Egiptoren nahikunde politiko eta ekonomikoek girotua zetorren. 1955ean Ekialdeko blokearekin harremanetan ipinia zen Nasserrek, nazionalizatu egin zuen Kanala 1956ko uztailean. Asian zizutzen interesguneekiko lotura arriskuan ikusten zuten potentzia europarrentzat *casus belli* zen. Ez zitzaien gehiegi kostatu erasotzaileei egiptoarrak militarki menderatzea; baina gaizki neurtu bide zuten bi superpotentzien jarrera diplomatikoa zein izan zitekeen, eta Estatu Batuen ezezkoarekin eta sobietarren mehatxu militar zuzenarekin topo egin zuten. Abenduan etxeratu ziren europarrak eta martxoan israeldarrak. Ordurako, Hungaria sobietar tankeen pean zuzututa zegoen.

Ondorengo hamarkadetan mundua arautuko zuten usadio geopolitikoaren entsegu modukoa izan zen 1956ko udazken hura. Alde batetik, superpotentziek, nork bere interes estrategikoak arrisku larrian ikusten zituenean gupidarik gabe, militarki, esku sartzeko zuten prestutasuna egiaztatu zuten. Sobietarrek, Txekoslovakian berretsi eta Afganistanen burutuko zuten bidea. Jada 1954an Guatemalan Jacobo Arbenzen eraispenaren aurrekaria hain hurbil zuten estatu-batuarrek etengabe erabiliko zuten errezeta bertsua, batez ere Amerika Latindarrean, etorkizunean ere.

Bestetik, ondorengo hamarkadetako oinaze- eta zirrara-gunea non egongo zen iragartzera etorri zen Suezeko Krisia: Ekialde Hurbilean, hain zuzen. Eta zergatia ere bai: eskualdearen balio estrategikoagatik, kontinente ez ezik mundu ezberdinen arteko giltzadura zenez eta denez, eta munduak funtzionatzeko gero eta premiatsuago beharko duen petrolioaren sorleku nagusi delako. Orduan oraindik, Europan behintzat, *Shoah*-aren ordain duin eta gizalegezkoztat jotzen zen Israelen sorrera erabat mindutako ingurune batean. Otomandar Inperioaren suntsimenduak utzi eta denboraldi batez potentzia kolonial europarrek nola edo hala betetako hutsunea ordezkatzeko zuten egitura politiko propioen bilaketan murgildurik zegoen (eta mende erdi geroago halatsu jarraitzen duen) ingurune batean.

Esan genezake petrolioaren inguruko krisi geopolitikoetako lehena, 1953an, hauxe izan zela: CIAren zuzendaritzapean Iranen Mossadegh lehen ministro nazionalista agintetik kendu eta Phalevi *xah*-aren autokrazia mendebalzalea gotortu zuena. Denok dugu gogoan eredu haren akabera zein izan zen 25 urte beranduago, baina 1950eko hamarkadatik aurrera Estatu Batuetako Estatu idazkaritzak petroliodun herrialde arabiarretarako gogotik hobetsiko zuen hautua izango zen autokrata tradizionalistena, sobietar bloketik hurbilegi ikusten ziren joera nazionalista, baazista, nasserista eta abarren aldean. John Foster eta Allan Welsh Dulles anaia ahalguztidunak goizegi hil ziren beren estratigiaren azken emaitzak ikusi gabe.

1950eko hamarkadaren bigarren erdiaren bereizgarria izango zen, bidenabar, munduko gatazka-guneen lekualdaketa nabarmena. II. Mundu Gerra amaitu zenetik, Asia Ekialdea eta Hegoaldea zen gerra bortitz eta zabalenen esparrua: Txinako gerra zibila, Indonesiako independentzia gerra, India eta Pakistanen arteko lehen gerra, Koreakoa..., milioika heriotza eragin zituzten gatazka hauek. 1954ko maiatzean Dien Bien Phu-n vietnamdarren garaipearekin (eta frantziarren anabasarekin) Indotxinako Lehen Gerra

amaitu zenean kitatu zen aro hura. Ordurako amaituta zegoen Koreako gerra (1950eko ekainetik 1953ko uztailean), Filipinetako *Huk* gerrilla komunista suntsituta zegoen eta Malaysiako matxinada bakarrik geratzen zen itzaltzear. 60etan Estatu Batuek Vietnamen esku hartu eta sutegia berriro suspertu zuten arte. Asian, kolonia txiki eta bakanak baino ez ziren geratzen, eta aurrerantzean estatuen arteko jazargoak edota gorabehera ideologiko-politikoak izango ziren borroka armatuen eragileak, beti ere blokeen arteko *status quo* egonkor baten barnean.

II. Mundu Gerraren ondorengo hamarkadan ia Asia guztian deskolonizazioa burutu eta gero, Afrika geratzen zen, ia osorik (Etiopia, Egipto eta Hegoafrika ziren kontinenteko herrialde independente bakarrak 1950ean), europar potentzia kolonialen eskuetan 1950etakoa hastean. Eta prozesuaren inguruko gerrilla eta guduen sutea, gogorrago edo samurrago, herrialde askotan agertuko zen, 1960a amaitzerako 24 herrialde independente gehiago izango zituen Afrikan ere. Bi kasutan, ordea, bereziki larria izango zen gatazka hamarkada hartan. Kenian, Erresuma Batuak bortizkeria izugarritz erantzun zion Mau-Mau mugimenduaren matxinadari, gutxienez 50.000 hildako eraginez. Eta Aljerian, Frantziako Laugarren Errepublika eta FLNko gerrillaren arteko guduak gutxienez lau bider gehiagoko heriotza-emaiza sortuko zuen. Bietan, haatik, potentzia kolonialek hasieran estrategiko eta utziezintzat jotzen zituzten kolonia haien independentzia onartuz kitatuko zen gatazka hurrengo hamarkadaren hastapenetan.

Amerika Latindarrean, Estatu Batuen «etxe atzeko baratzetan», arazoa ez zetzan kolonialismo arrunta uxatzean, baizik eta Iparraldeko nagusiaren esanetara mugitzen ziren oligarka autoktonoen eta lekuan lekuko herri-olde eta intelektual aurrerakoen arteko kontraesan bizian. Gatazka armatuen pizgailu izango zen jazargoa hainbat kasutan. 1953an, F. Castrok zuzenduriko taldetxo batek Moncada kuartela asaldatu zuen Habanan, arrakastarik gabe. 1954an, Estatu Batuek zuzenduriko eraso batek Arbenz lehendakari konstitu-

zionala bota eta dozenaka urte iraungo zuen errepresio-al-di eta gerra zibil egoera abiarazi zuen Guatemalan. Bi urte beranduago, Kubako mendialdean errotuko zen 1959ko Urteberrian boterea erdietsiko zuen gerrilla. Urtebete lehenago, herri mugimenduak Venezuelako agintetik kendua zuen Pérez Jiménez diktadorea. Argentinan, ordea, 1955ean, bere kide (baina ez adiskide) zituen militarrek eraitsi zuten J. D. Perón, hiru urteko aginte militarra ezarriz. Perun, Odria jenerala eta Prado Ugarteche bankariaren artean bete zuten lehendakaritza hamarkada osoan...

## Frankismoa gotortu zeneko hamarkada

Albiste on batekin hasi zen Francoentzat mendearen bigarren erdiko lehen hamarkada eta, egia esan, ondoren helduko zitzaizkion berri on ugarien aitzindaria baino ez zen izango hura. Norbaitentzat epelgarri izan bazen Gerra Hotza, Ardatz nazi-faxistako diktaduren laguntzarekin gerra zibila irabazi eta nazioarteko ahate itsusia zen galiziar diktadore txiki bezain errukigabearentzat izan baitzen. Eta horrexegatik agian da hain zaila Franco irribarretsu agertzen ez deneko argazkirik aurkitzea aldi horretakoan artean. Estatu Batuek haren beharra zuten, eta mundu mailako gatazka handirako txikikeriatan ez ibiltzeko hautua egin zuten. Ezbairik gabe, itzulitururik gabe. Ameriketako potentzia handiaren zintzotasun demokratikoan fede sutsua ipinia zuten antifrankistak noraezean uzteraino.

1950eko azaroaren 5ean Nazio Batuen Erakundearen baztarrak bertan behera utzi zuen 1946ko ebazpena, enbaxadoreak Espainiatik etxeratzerantz eskatzen zuena: 38 boto alde (Estatu Batuak eta haren esaneko guztiak, bereziki herrialde arabiarak eta hegoamerikar gehienak), 12 aurka (Ekialdeko blokekoak; 3 latinoamerikar: Mexiko, Uruguai eta Guatemala; eta Israel), eta 10 abstentzio (Europa Mendebaldekoak nagusiki). Mundu mailako egoeraren isla gardena zen: Koreako gerra gorian zegoen eta Europaren zatiketa



ziztu bizian ari zen sakontzen. 1955ean lortuko zuen Francok NBE-n sartzea; ordurako, Mendebaldeko blokeko herrialdeen enbaxadoreak Madrilen ziren, jakina.

*Normaltze* diplomatikoa bera baino azkarrago zertu zen, ordea, lerrokamendu militarra. Koreako gerran parte hartzeko eskaini zituen soldaduen kasuan ez bezala, Estatu Batuek ez zioten muzin egin Francoren Espainiak eskaintzen zien kokapen estrategikoa Gerra Hotzeko ahalegin militarrrerako erabiltzeari. 1952ko martxoan Griffiths enbaxadorea Madrilerira iritsi zenetik, iparramerikarren lehentasuna izan zen Penintsulako puntu estrategikoenetan base militarrik ipintzeko baimena lortzea, eta 1953an sinatuko zen ituna. Denborak zeramatzan, hala ere, Mediterranioko VI. Flotak espainiar portuetan atsedenaldiak hartzen. Elkarlana estutu egin zen ondorengo urteetan. 1959ko abenduaren 21ean, bere agintaldiaren azken urtean sartuta zegoen Eisenhower lehendakaria Madrilerira etorri eta, V. Walters-en begiradapean, Franco besarkatu zuenean, hartu zuten espainiar antifrankistek egiaztatzeke geratzen zitzaizen azken desengainua: Franco adinaxoxe gizontxoak zen Ike.

Lerrokamendu politiko-militar argi honek Mendebaldeko munduan eman zion erosotasun berria, bere erregimena finkatu eta instituzionalki garatzeko erabili zuen Francok. 1951ko gobernu aldaketa eredugarria izan zen ikuspegi horretatik: erregimenaren gerizpean zeuden *familia* politiko ezberdinen nahikundeak ase eta, aldi berean, elkar anula zitezten asmakizun bat. Carrero, morroi fidela, indartu egiten zuen; Artajo eta Girón, batak bestea orekatuz jarraituko zuen; Ruiz Giménez vatikanista hezkuntzaz arduratuko zen, baina Muñoz Grandes filonaziaren eskuetan geratzen zen ejertzitza; Arias Salgado falangista gogorrari ematen zion propagandaren agintea, baina Arburua teknokrata agertzen zen ekonomiaz arduratzeko. Errepresioaren burutzan Blas Pérez betikoak jarraitzen zuen. Estatu Batuek harrera baikorra egin zioten gobernu berriari, eta laguntza ekonomikoak eta inbertsioak izango ziren onespén haren hurrengo urratsa.

Ondorengo urteetan, ziurtasun instituzionalaren itxura erein nahi zuten oinarritzko lege-sorta sortu eta garatzen saiatu zen frankismoa. 1958ko maiatzean aldarrikatuko ziren Erresumako Oinarritzko Legeak. Aurretik, hala ere, lanari eta ekonomiari buruzko neurri mordoa argitaratu zen, hamarkadaren hasieratik nabaria zenari erantzun nahian (1952ko batez besteko soldata maila 1936koaren erdia zela, inflazioa ekidinda) eta haren ondorioei aurrea hartzeko ahaleginean: 1950eko hamarkadan ematen hasi ziren langile mobilizazioetan argi ikusi baitzen eragile biziagoak zirela miseriaren aurkako eskakizunak, demanda politiko orokorrrak baino. 1956ko ikasle mobilizazioek eragindako krisi politikoaren ondotik Francok egin zuen gobernu berrikuntzan, Opus Deirekin lerrokatutako ministroek (López Rodó, Ullastres, Navarro...) eskuratuko zituzten ia ardura ekonomiko guztiak, eta haien ekarpena izango zen, alde batetik, ordura arteko autarkia amaiazaraziko zuen Estabilizazio Plana, eta, bestetik, ondorengo hamarkada eta erdian Franco-ren politika ekonomiko garapenzalearen ikurra izango ziren *Plan de Desarrollo*-ak.

Ez zen Estatu Batuena izan Francok 1953an etxetik kanpora lortu zuen bedeinkazio bakarra. Vatikanorekiko Konkordatuaren ere urte hartan sinatu zen, erregimenaren ingurumarietan gero eta ezerosoago aurkitzen ziren elizgizon eta katoliko arrunten adostasunari hesi bat ipiniz, eta munduan zehar barreiaturiko korrante demokrata-kristauen aurrera aurkezpen txartel itxurosoagoarekin agertzen ahalbideratuz.

Historian beste hainbatetan bezalatsu, aurreko hamarkadan susperturiko erresistentzia armatuak azkenetan eta masa mugimendu eta antolakunde klandestinoak sorberriak oraindik haur-minetan zituen barne-oposizioak eman ezin zizkion buruhausteak, Hegoaldeko abentura kolonialetatik iritsi zitzaizkion Francori 1950eko hamarkadan. Espainiak Frantziarekin erdibanatua zuen Marokoren independentzia prozesua geldieztina izango zela argi geratu zenean, Francok

bere aurkari izan zitekeen García Valiño jeneralaren eskuetan ipini zuen prozesua kudeatzeko ardura. Hark, Frantziari ahalik endredo gehien sortzearren, marokoar independentziaren aldeko mugimendua elikatu zuen, ordainetan Maroko independenteak Espainiaren interes kolonialekiko begirune gehiago izatea itxaronez edo... Nahaste-borrasteak Ifniko krisia erakarriko zuen 1958an, non Francoren armadak, baja mordoska nozitu ondoren, alde egitea erabakiko baitzuen, geroago Saharan egingo zuen modu bertsuan.¶

# Sinestun metodikoak. Eliz mugimenduak eta gizartea 50eko hamarkadan

**XABIER ITZAINA**

CNRS-SPIRIT, Sciences Po Bordeaux,  
zientzia politikoetan ikertzailea

1950 urteak<sup>1</sup> beren aitzineko eta ondoko bi hamarkadak baino aise gutiago aztertuak izan dira. Urte isilak ote? Mugimendu politikoen aldetik, gerla osteko giroa zen nagusi. Gerla aitzineko aitzindari anitz atzerrian ziren, eta abertzalegoaren jite berria 1959an loratuko zen ETArek sortzearekin. Iparraldean, Enbata publikoki agertzen hasiko zen 1960tik aitzina. Gerla urte eta kontestazio urteen artean, 1950 urteak trantsizio garaia izan ziren: trantsizio politikoa, gerra hortzaren lehen tentsioekin eta Heren Munduaren ihardukitzearekin<sup>2</sup>, baina trantsizio soziala baita ere, bereziki baserri giroko gizarte tradizionalaren baitan. Bitarteko hamarkada izanki eta, 1950-1960 garaia guti aztertu dute oraindik historialari eta gizarte zientzialariek. Izatekotan, antropologoek ziztuzten beharbada gehienik aztertu 1950ak, oraino kausi zezaketelakotz tokika aitzinagoko gizarte tradizionalaren oroi-men freskoa: pentsa Julian A. Pitt-Rivers-ek Andaluzian egin ikerketari (Pitt-Rivers, 1954), Edward Banfield-ek Italia hegoaldean egindakoari (Banfield, 1967) edo Julio Caro Barojaren *Los Vascos* obra nagusiari (Caro Baroja, 1986 [1949]). Gaur egun batzuek zaharkitutzat eta nahiko normatibotzat

dauzkaten obra nagusi horien merezimendua izan zen, du-darik gabe, 1950 urteetan laster desagertuko ziren bizimodu eta sinesmen batzuen aztertzea. Soziologoek, bertzalde, oroitazten digute bere ohidurei oraino lotua zegoen orduko euskal gizartea kinka ekonomiko txarrean zela, bizi-bal-dintza gogorrekin eta emigrazio azkar batekin. Egoera eko-nomikoa, oro har, larriago zen Espainian Frantzia baino, mugaren iparraldean 1945ean arras berritua izan zen Esta-tu sozialaren laguntza sentitu zelakotz.

Orduko euskal gizarteetan, bai Hegoaldean, bai Iparral-dean, Eliza katolikoak pisu handia bazeukan oraindik, be-harbada orduan sekula baino gehiago. Vatikanoko II Kontzilio aitzineko Elizaren esku oraino gelditzen ziren gizartearen gider franko. Politikarekiko harreman estua zeukan erlijioak, izan zedin erregimen baten legitimatzeko edo arbuiatzeko, militanteen hezitzeko, ideia berrien hedatzeko edo tratatze-ko. Eliza barneko hainbat erakundeen artean, eliz mugi-menduek bereziki jorratzen zuten gizartearekiko lotura ho-ri. 1950 urteak oro har guti aztertuak izan badira ere, as-pektu hau, aldiz, zehazki miatu zuten hainbat ikerlanek: Paulo Iztueta, Alfonso Pérez-Agote, Joseba Intxausti, Fer-nando García Cortázar, Felix Placer, Julen Urkiza, Paulo Agirrebaltzategi edo Anabel Barroso, bertzeak bertze, He-goaldearentzat; Philippe Mayté, James E. Jacob, Pierre Bi-dart, Michel Oronos, Piarres Xarriton, Mathieu Elgoyhen eta bertze zenbait Iparraldean. Iturri balios horietarik edan du gehienik lantxo honek, idazleak berak bildu lekukotasun zenbait baliatuz. Eliz mugimenduen gai zehatzean sartu bai-no lehen, beharrezkoa da orduko Eliza eta politikaren arte-ko testuinguru orokorraren oroitaztea. Bigarrenik, eliz mugimendu eta berezikiago Ekintza katolikoaren lekua zein izan den aztertuko dugu, Hegoaldea eta Iparraldea ahal den neurrian konparatuz.

Testuingurua: Eliza, politika eta gizartea 50 urteetan

### Hegoaldea: Eliza eta erregimenaren arteko harreman bikoitza

Elizak ze leku ukan duen erregimen frankistan gauza eza-guna da, ikertzaileek aspaldian aztertu dutena. Bertzeak bertze, ikuspegi funtzionalistek argibide baliagarri batzuk ematen dituzte. Guy Hermet politologoak (Hermet, 1973) erakutsi du erakunde erlijiosoek bi funtzio nagusi betetzen dituztela pluralismo mugatua duten erregimen politikoaren baitan. Lehendabizi, Elizek Estatuarekiko harreman bikoitza daukate: alde batetik, boterea legitimatzen dute, baina ber denboran protesta mota baten adierazle izan litezke baita ere, hein bateraino bederen. Bertzalde, Elizek funtzio logistikoa betetzen dute, ontsalaz alderdi politikoek bete behar lituzketen funtzioak beren gain hartuz: heziketa edo sozializazio politikoak, agintari edo liderren hautua eta oro har gizartearen helmuga orokorren definitzea. Funtzio horiek lau aktore motek betetzen dituzte: apezpikuek, Elizaren erakunde internazionalak, apezgoak eta, hain zuzen, laikoak mugimenduek.

Bertze irakurketa anitzen artean, Juan Linz (Linz, 1993) eta Guy Hermetek (Hermet, 1985: 274 eta 304) diote frankismoa ez zela erregimen totalitario bat, baizik eta erregimen autoritario kontserbadore bat<sup>3</sup>. Frankismoaren helburua ez zen gizartearen egitura guziak lurrera bota eta gizarte berri baten sortzea, baizik eta boterearen atxikitzea munduaren ikuspegi kontserbadore baten izenean. Ideologia bateratu eskas horrek erran nahi zuen boterea zaintzeko behar zirela tendentzia askotako taldeak (faxistak, katolikoak, karlistak, monarkistak, eta abar) elkarri lotu, eta bakoitzari, aldizka eta bertzeekin batean, abantailak banatu botereari ematen zion legitimitatearen truke.

Eliza katolikoa sistema horren erdi-erdian zen. Armada eta Falangea ez ziren aski boterearen zaintzeko, militarren orde-

nak behar zuen gaineko justifikazio bat irauteko. Jainkoaren manuz ari zirela erranez, erregimenaren hastapeneko bortizkeriari kutsu sakratu bat ematen zioten. Eliza erakunde bezala baliagarri izan zen alde horretarik. Peter Berger-ek (Berger, 1971) ontsa azpimarratu du erakundeen lehen helburua beren iraupena dela, eta irauteko behar dutela gehiengoaren onarpena lortu. Hitz batez, *legitimazioa* segurtatu behar dute, jendeek inposatua den boterea onar dezaten. Erlijioak erakunde sozialak justifikatzen ditu izate ontologiko bat emanaz, ezin gaituzko balidazio bat, marko sakratu eta kosmiko batean kokatuz. Erlijioak gordetzen ditu, gisa batez, erakundeen eguneroko aldaketak, permanentziaren ilusioa sortuz.

Boterearen legitimazioa ez zen musu truk iragan. Vatikanok eta espainiar Estatuak 1953an sinatu zuten konkordatuak gauzak finkatu zituen alde horretarik, alde bakoitzari bere abantaila segurtatuz. Internazional mailan beti, urte berean Estatu Batuek Espainiarekin sinatu zuten hitzarmenari esker, Francoren erregimenak irauten ahalko zuen oraino hamarkada pare batez. Ez ditut hemen konkordatuaren ardatz desberdinak zehaztatuko (Lannon, 1987; Pérez-Díaz, 1993). Labur biltzeko, hitzarmen hori zela medio, Estatuak Eliza ematen zuen Espainiako hezkuntza eta kulturaren gidari bezala; Estatuak aldiz eliz agintariak bere kontrolpean ezartzen zituen, bertzeak bertze apezpikuen izendatzea kontrolatuz. Hainbertzeraino ziren nahasiak Estatu aparatua eta Eliz erakunde, ezen agintari politiko eta administratiboen hautua eliz mugimendu, elkarte eta erakundeen baitan iraganen baitzen ordutik aitzina. Ikerlari anitzek eliz mugimenduekiko harreman horiek hartzen dituzte mugarri bezala erregimenaren fase desberdinen bereizteko. Horren adibide daukagu gobernuaren osaketaren aldaketa 1957 urtean, Opus Deiko ministroek ekonomiaren giderrak hartu zituztelarik, eta Espainiaren politika ekonomikoa aldatu (Hermet, 1981).

Alabaina, Elizaren jokamoldea ez zen horretan mugatzen. Peter Bergerrentzat (Berger, 1971), boterearen legitimiza-

tzeaz gain, erlijioak alderantzizko funtzioa bete dezake anitzetan: *boterearen erlatibizatzea*, bere zinezko neurria oroitaraziz, hau da, gizonen eraikuntza bat dela eta bertzerik ez. Juan Linzek azpimarratzen du Franco garaian erlijio politizatua pluralismo politikoaren altxagarri izan zitekeela (Linz, 2006). Boterearen erlatibizatze prozesu hori ez zen denetan gertatu. Euskal Herrian badakigu zein izan ziren Elizaren zati baten eta abertzalegoaren arteko loturak gerra aitzin eta gerra denboran (Iztueta, 1981). Horren ondorioz, erregimen berriak 1949an Gasteizko diozesia, zeinek 1861ez geroz Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba juntatzen zituen, zatikatu zuen<sup>4</sup>. Erregimenak bertze bi seminario sortu zituen, bata Bilbon eta bertzea Donostian, gerla aitzineko Gasteizkoa baino hobeki kontrolatuak, eta ez zuen tokiko apezpikurik izendatu, ez Katalunian, ez Euskal Herrian<sup>5</sup>. Gerla ondoko urteak errepresio urte ilunak izan ziren beraz<sup>6</sup>, baina oposizioa jadanik egituratzen hasia zen, gizartean eta Eliza barnean. Paulo Iztuetaaren arabera, frankismoaren kontra oldartu zen euskal apezgoak bi fase ezagutu zituen: bata, 1940tik 1960 artio, ihardukitze gordea edo klandestinoarena, eta 1960tik aitzina, ihardukitze publikoarena. Euskal apezken Ekintza kolektibo batzuk izan ziren lehenago, 1944ko azaroan Vatikanolari igorri eskutitza bezala, edo *Egiz* aldizkaria bezala, bai eta atzerrian ziren apezken argitalpenak bezala; baina oro har protesta egituratua 1960tik aitzina zen azkartu. 1960an euskal apezkek plazaratu eskutitza horren sinbolo izan zen (Iztueta, 1981). Frankismo garaiko katolizismoa ez zen beraz monolitikoa, ez euskal lurraldeetan, ez Espainian. Donostian, Karlos Santamariaren inguruan antolatuak ziren *Conversaciones Católicas Internacionales* aniztasun erlatibo horren lekuko izan ziren<sup>7</sup>. 1935ean hasiak ziren nazioarteko jardunaldi horietan pentsamendu giristino irekiak eta anitzak entzun ahal zitezkeen, Amintore Fanfani bezala adibidez, gero italiar kristau-demokraziaren aitzindari izanen zena. 1946tik 1962ra Donostian berriz iragan ziren jardunaldi horietan aipu ziren askatasun erlijiosoa, demokrazia politi-



koa eta abar: giristinoek bazuten hor eztabaida minimo baterako esparru bat (Herria 2000 Eliza, 1978).

### Iparraldea: Estatu laiko bat, gizarte katoliko bat

Iparraldean, gerlatik landa, frantses IV errepublikak laizitatearen printzipioa berriz onetsi zuen<sup>8</sup>. Euskal Herrian, haatik, Bretainia edo Vendée bezalako bertze eskualde batzuetan bezala, Elizak ikaragarriko pisua bazuen gizartean. Orduko giro politikoa zein zen merezi du oroitaraztea. Gerlatik landa, ezkerra (SFIO eta erradikalak), nahiz eta garai batez Baionako herriko etxea eskuratu, emeki-emeki baztertua izan zen. Eskuina zen nagusi: gerla denboran sobera «busti» ez ziren lehengo eskuin tradizionalistak, gaullistak eta *Mouvement Républicain Populaire*-ko (MRP) kristau demokratek. Abertzaleek lehen aldikotz beren burua aurkeztu zuten 1945eko hauteskunde kantonaletan kostaldean. Ez zuten hautetsirik lortu, baina beren aldetik kristau demokratek hautagai «*basques*» batzuk aurkeztu zituzten, eta euskal departamenduen aldeko hautetsi bat ere pasarazi (J. Etcheverry-Ainchart). Ez da ahanzi behar, bertzalde, 1945-46an Frantzia erregionalismo eta dezentralizazioaren ideiak ez zirela batere ontsa ikusiak, Vichyren probintzialismoa sobera oroitarazten zutelakotz. Prentsaren aldetik, *Eskualduna* agerkari katoliko eta euskalduna desagertu zen 1944an, leporaino kolaborazioan sartua izan zelakotz. Aita Lafittek, erresistentzian egin lanari esker, *Herria* euskarazko astekaria sortu zuen, euskal kulturaren alde su eta gar lanean ari izanen zena, ikuspegi kristau demokrata batekin. Astekari giristino horrek, hargatik, ez zuen lotura ofizialik apezpikutegiarekin. Politika aldetik, nahiz eta arrakasta zerbait ukan hauteskunde desberdinetan, tendentzia kristau demokrata euskaltzalea emeki-emeki epeldu zen, artetik gaullista bilakatu zen eskuin zaharraren parean<sup>9</sup>. Kristau-demokrazia ahuldua zen, baina militante zenbaitek beren Ekintza bertze eremu batzuetara hedatzen zuten, sindikalismoan edo kulturaren. Bertzalde, 1953an ikasle

batzuek sortu zuten Embata mugimendua, berantago Enbata bihurtuko zena, eta hastapenean kristau-demokraziatik eta Ekintza katolikotik hurbil zena.

Diktadurarik ez, beraz, hemen, bistan dena. Baina ezin uka joko politikoa nahiko hetsia zela halere, bereziki Euskal Herri barnealdean, erran nahi baita lurralde euskaradunetan. Lekukotasun anitzek diote, adibidez, Aljeriako gerla denboran, eskuin mutur, gaullista eta kristau-demokraten artean zer nolako tentsioak sentitu ziren Euskal Herrian bertan, herriko hauteskundeen karietara adibidez<sup>10</sup>. Orduko giroan, gerlari eta torturari buruzko irizpide kritiko bat publikoki adieraztea ez zen arriskurik gabea<sup>11</sup>. Beren aldetik, Aljerian iragan denbora ez zuten euskaldun soldadu gazte guziek berdin bizi izan. Bakoitzak ikusi, jasan eta egin behar izan zituenaren arabera, batzuk Aljeria frantsesaren alde jarri ziren su eta gar, bertze batzuk anticolonialistak bihurtu, bertze zenbaitek aldiz beren euskaltzaletasuna nahi izan zuten ahal zen neurrian zaindu soldaduen berriak euskaraz biltzen zituen aldizkari bat sortuz (Camus-Etchecopar, 2006; Arbelbide et al., 2005).

Holako giro batean, erlijioaren erabilpen politikoak anitzak ziren. Eliza eta erlijioa tentsio horien bihotz-bihotzean ziren, egia erran, alderdi bakoitzak guti edo aski bereganatu nahi zuelakotz Jainkoaren laguntza. Ikaragarriko garrantzia zuen orduan Elizak ikusiz ze heinetaraino gizartearen muinean sartua zen, eta ez bakarrik predikuen bidez, baina baita ere elkarte eta egitura desberdinen sarearen bidez. Apezak tokikoak eta euskaldunak izateak ere, alabaina, herriarekiko lotura hori indartzen zuen.

## Ekintza katolikoa eta aldaketa soziala

Zergatik ote zuen Elizak holako eragina, mugaz bi aldeterik? Eliza ez zen erakunde politiko-erlijioso soil bat, baizik eta gizarte guziaren adar eta hostoetan garrantzia zeukan zuhaitz bat.

## Sinestun metodikoak

Orduko euskal lurraldeak gizarte katolikoak ziren, mugaz bi aldeetatik. Hegoaldean, Espainia guzian bezala, gerlatik landako garaia inflazio erlijiosoarena izan zen. 1972an oraindik euskal eta nafar probintzietan ziren aurkitzen Espainia guziko parte-hartze erlijioso tasa gorenak (%71,2) (Duocastella, 1975)<sup>12</sup>. Jesús M. Vázquez-ek azpimarratzen zuen bertzalde Nafarroan 1960 urteetan mezan parte-hartze tasak bertze euskal probintzietan baino oraino gorago zirela (Vázquez, 1967). Seminarioak ere bete-beterik ziren orduan, eta euskal eta nafar apezgoa nasaia zen, bai Espainian (espainol apezpikuetarik %27 1960an), bai atzerrian misio-nerest bezala. Ipar Euskal Herria, halaber, Frantziako eskualde praktikanteenetarik bat zen. 1951n, Ipar Euskal Herriko kantonamenduetan, kostaldea barne, igandero mezan ibiltzen zirenen kopurua %75 eta 94 artekoa zen (Isambert eta Terrenoire, 1980: 54). Zenbakiak aise apalago ziren Biar-non. Batzuek, eta bereziki Ekintza katolikoko militanteek, «erlijio soziologikoa» deitzen zuten orduan galdezkatua ez zen Elizarekiko harreman hori. Gogoan izan, baita ere, erlijioaren pisua ez zela eliz-urratsetan mugatzen, baina orokorkiago sinestunen eta gizartearen munduaren ikuspegiak moldatzen zituela.

«Erlijio soziologikoa» horretaz gain, eliz mugimenduek gizartearen konplexutasuna aintzat hartzen zuten, eta gizatalde bakoitzarentzat antolaketa forma bat ematen: langileentzat, laborarientzat, ikasleentzat, mutil eta neska gazteentzat... Laikoen mugimendu horiek, alde batetik, heziketa eta kontrol funtzio bat betetzen zuten, baina ber-denboran, eta frankotan ustekabearen, militantismoaren ikasgelak ziren, eta erregimen edo sistema politikoaren oposizioaren ohandze bihurtzen ere batzuetan. Ez da euskal berezitasun bat. Izan ere, Jacques Palard-ek Ekintza katolikoaren aldaketak aztertu zituen Bordeleko eliz barrutian (Palard, 1985: 210-261). Haren hipotesiaren arabera, Ekintza katolikoaren baitan zi-

ren kolokan jarri Eliza eta munduaren arteko harremanak. Gisa batez, Ekintza katolikoaren aldaketa eta kontraesanak Elizaren modernizazioaren seinale izan ziren. Ekintza katolikoaren baitan hazi zen erakunde erlijioso eta hierarkien kritika bat, lehenik eta behin Elizan, ondoren gizartean. Flandesko Ekintza katolikoa aztertzearekin batera, R. Laermans-ek erakutsi zuen orduko Elizak bizimodu metodiko eta razional bat segitzen zuten sinestunen elite bat bultzatzen zuela (Laermans, 1991). Ekintza katolikoa «munduan» sartua zen katolizismo aszetiko bat zen, katolizismoaren barne puritanismo bat bezala. Ekintza katolikoan *sinestun metodikoak* ziren hezten, Max Weberren ildotik darion ikuspegi horren arabera.

Euskal Herriari dagokionez, zaila da erratea Ekintza katolikoan pasatu zirenen ibilbidea razionalitateari buruzko ibilbidea izan zenez. Ene iduriko, razionalitate hori gehiago nabari zen ordena erlijiosoaren baitan loratu ziren euskal kulturaren aldeko ekimenetan —*Jakin*-en kasuan bezala—. Max Weber eta Jean Séguy-ren metafora segituz, erlijioaren bertuosoak euskal kulturaren bertuoso bihurtu ziren, sekularizazio prozesu ezti bat zela medio (Itzaina, 2004a). Gauza segura da, haatik, Ekintza katoliko berezitua parte-hartzean gaitzeko heziketa soziala eta politikoa izan zela laiko anitzentzat, eta gisa batez militantismoaren eskola bat. Emeki-emeke —1950 urteak baino aise berantago— erreferentzia erlijioa desagertu zen, baina *konpromisoaren edo engaiamenduaren etika* gelditu, izan zedin mugimendu politikoetan, baina baita ere sindikalismo edo lanaren alorrean. 1950 urteetan, mugimendu katolikoaren helburua lanaren eta gizartearen modernizazioaren laguntzea zen, aldaketa sozialari kutsu katoliko bat emanaz. Elizak gizarteaz zeukan ikuspegi oraino *integralista* zen, Emile Poulaten zentzuan (Poulat, 1977; Donegani, 1993): oraino asmatzen zen gizarte bat zeinetan katolikotasunak biziaren aspektu guziak betetzen zituen: lana, aizinaldia, familia, politika.

## Hegoaldean: Ekintza katolikoa langile eta baserri munduetan

Mugimendu horien historia oso ezaguna da, lan balios anitzi esker. Hegoaldean, Ekintza katolikoa lehendabizi langileen munduan agertu zen eta berantago nekazarien artean. Gisa batez, langileen antolaketa hartu zuten eredutzat baserri giroko mugimenduek. Langileen Ekintza katolikoa hierarkiak sozialisten urruntzeko baliatu zuen tresna izan zen, baina ber-denboran, sindikatuen ordainak bilakatu ziren<sup>13</sup>. Emeki-emeki langile munduko protesta egituratu arau, giristinoak sartu ziren protesta horietan, eta barne sekularizazioa ezagutu baita ere. Batzuetan Ekintza katolikoko tokiko taldeek esperientzia bereziak sortu zituzten apez karismatiko batzuen inguruan, Arrasateko kooperatiben kasu famatu eta berezian bezala (Azurmendi, 1984).

HOAC (*Hermanidad Obrera de Acción Católica*) 1946an sortu zuten, JOC (*Juventud Obrera Católica*) 1947an. ACO (*Acción Católica Obrera*) hor zegoen baita ere. 1958ko apirilaren 24ko konbenio kolektiboari buruzko legeak langileen elkartzeko eskubide partziala baieztatu zuen, eta ber-denboran elkarte katolikoaren monopolioa hautsi<sup>14</sup>. HOAC, ACO eta JOCK halere aitzina segitu zuten konbenio kolektiboetan eta lan-uzteetan. HOACK Euskalduna lantegiko greban parte hartu zuen 1953an, bai eta Bilboko Laminaciones de Bandas-en greban 1966an. Iruñeko Frenos Iruña-ren greban, 1966an, *Vanguardia Obrera de Jóvenes* (VOJ) elkarte katolikoak leku handia ukan zuen. Bertzalde, anitz giristino sartu ziren zuzenki langileen borroketan, ez baitezpada mugimendu osoa inplikatu. 1950 urte hondarretan agertu elkartean sartzen ziren, adibidez 1958an Bizkaian sortu ziren *Comisiones Obreras*-en<sup>15</sup>. Militante giristinoak sartu ziren azkarki CCOOn, alabaina «bigarren graduko iraultzaile» bezala kontsideratuak izateko arriskuarekin, bereziki komunistengandik.

Hierarkiarekiko krisia 1966an piztu zen<sup>16</sup>, Ekintza katolikoko ordezkarien izendatzearen inguruan. Militante anitzek

orduan utzi zituzten mugimenduak, eta elkarte politiko eta sindikaletan sartu ziren. VOJ AST (*Asociación Sindical de Trabajadores*) bihurtu zen, eta geroago ORT (*Organización Revolucionaria de Trabajadores*)<sup>17</sup>, Iruñean eta Gipuzkoako parte batzuetan garrantzitsua izanen zena. JOCK militanteak lan sindikal eta politikorako prestatzen zituen. 1974an LAB sindikatua agertu zen ETAREN langile frontearen emaitza bezala. Militantziaren espezializazioa gero eta handiagoa zen. Emeki-emeki langileen Ekintza katolikoak hiru prozesu ezagutu zituen: deklerikalizazioa (hierarkiarekin haustura), ideologiaren arteko barreiatzea (sozialistak, komunistak, abertzaleak) eta erradikalizazio politikoa (testuinguru politikoarengatik).

Ekintza katolikoa ez zen bakarrik langile munduan kokatzen. Baserrietan ere izan zuen indarra. JARC (*Juventud Rural de Acción Católica*) 1953an sartu zen Gipuzkoako herrietan eta ondoko urtean Bizkaian. Mugimenduari Baserri Gaztedi zeritzoten orduan. Paulo Iztuetak (Iztueta, 1981, 1987) hurbiletik aztertu du mugimendu hori, eta haren arabera, hiru garai desberdin berezi behar dira: 1953 eta 1965 artean, hezkuntza giristino eta soziala; 1965 eta 1969 artean, «humanismo giristino», laborantzaren modernizatzea eta Elizaren hierarkia eta botere zibilarekiko lehen tentsioak; 1969 eta 1973 artean, barne eztabaidak marxismo eta nazionalismoaren inguruan jatzartzen dira. 1950eko hamarkadan, beraz, mugimendua bere lehen fasean zen, apezaren lidergo azkar batekin. Problematika oraino konpromiso militante gogorretatik urrun zen; haatik, «mistika militantea» jadanik aipu zen.

## **Iparraldean: militantismo giristinotik laborarien sindikalismora**

Industriaren lekua ikusita, Ekintza katolikoa Hegoaldean baino ahulago zen Iparraldeko langile munduan, salbu Baionan, Bokale inguruan eta baita Hendaia, Ziburu eta Doniba-

neko arrantzaleen mundu sozial berezian ere. Baserrietako Ekintza katoliko mugimendu desberdinek (*Jeunesse Agricole Chrétienne (Féminine)*, JAC(F); *Mouvement Rural de la Jeunesse Chrétienne*, MRJC) beren burua *Eskualdun Gazteria* deitu zuten<sup>18</sup>. Frantzian JAC 1929an sortu zen, eta 1934an sartu Euskal Herrian. Hastapenean elkarrekin Laborari Gazte Katolikoak deitzen zen, eta Eskualdun Gazteria bilakatu zen 1945ean. Mugimenduaren ibilbide ideologikoa gisa batez Hegoaldekoaren antzekoa izan zen. Hastapenean apezaren gidaritzapea azkarra zen, eta emeki-emeki analisi estrukturalak eta marxistak sartu ziren, hierarkiarekiko tentsioak garatu, hausturak gertatu, militanteak atera, erakunde berri batzuk sortu, eta abar. 1950 urteetan, haatik, bihurtu erradikalak ez zen oraino nabari. Mugimenduaren hiru lehen helburuak ziren: heziketa erlijiosoa, politikoa eta profesionala. Laborantzen modernizazioa bultzatzen zuten apezek, bereziki Purpan eta Angersko Jesuiten eskolen eraginez. Belokeko monastegian ikastaldi teknikoak antolatu ziren, Lekorne-Garroa eta Hazparden kolegio teknikoak muntatu zituzten laborarientzat (Itzaina, 2004a: 484-485). 1950etan beti, Eskualdun Gazteria euskararen alde engaiatzen zen, apez laguntzaileak euskaltzale zirelarik bederen<sup>19</sup>, baina euskal konpromiso hori oroz gaineratik 1960-1970 urteetan hedatuko zen.

Mugimendu katolikoak heziketa politikoaren akuiluak izan ziren baita ere. Eskualdun Gazterian 1930 urteetarik aitzina ibili gazte anitz beren herrietako auzapez (Makea, Itsasu, Behauze, Izturitze, Beskoitze, Arboti...) edo kontseilari orokor<sup>20</sup> (Bastidan) bihurtu ziren. Ideologiari dagokionez, Eskualdun Gazteriako militante eta militante ohiak emeki-emeki kristau demokraziari buruz itzuli ziren. JACko aitzindariak frankotan ordezkari bezala hautatzen zituzten tokiko hautagaiek, Jean Errecart-ek 1958an diputatu hautetskundeetan egin zuen bezala. Gorago aipatu giroan, ulertu behar da kristau-demokrata bezala agertzea jadanik haustura bat zela apezgoarekin eta jauntxo politiko gehienekin. Kristau demokraziak bere lekua galdu zuelarik eskuin

klasikoaren parean, Ekintza katolikoak ere bere pisu politikoa galdu zuen. Eta bere partaide anitz abertzaletasuna hurbiletik begiratzen hasi ziren.

Profesional mailan, laborarien sindikalismoan zango baten sartzeko molderik hoberena zen Eskualdun Gazteria. Ordu arte, Frantzia guzian eredu bera zen nagusi: laborantzaren kudeaketa nazionala oraino korporatibista zen, erran nahi baita gobernuak sindikatu bat baizik ez zuela onartzen elkarrizketa eta negoziaketa ofizialetan. Eredu horrek 1981 arte iraun zuen, ezkerak aniztasun sindikala ezarri arte. Sindikatu nagusian sartzeko (*Fédération départementale des syndicats d'exploitants agricoles*, FDSEA), gehienak lehenik gazteen sindikatuan sartzen ziren (*Centre départemental des jeunes agriculteurs*, CDJA), eta CDJAn sartu aitzin Ekintza katolikoan egiten zituzten beren lehen urratsak. Gisa horretara, Ekintza katolikoa elite profesionalen bereizteko egitura funtzional bat zen. Emeki-emeki, Eskualdun gazteriak hiru ihardukitze hazi zituen bere baitan. Ihardukitze erlijioso bat, Elizaren hierarkiaren kontrakoa; aldarrikatze politiko bat, tokiko jauntxoek aurka; eta protesta profesional bat, sindikalismo monolitikoaren kontra. Tentsio horien ondorioz, honenbertze haustura gertatu ziren, eta Eskualdun Gazteriako gazte zenbait hasi ziren sindikalismo nagusitik urruntzen, eta Frantziako langile-laborarien (*Paysans travailleurs*) pareko mugimendu bat abiarazi zuten Euskal Herrian. Oren buru Euskal Laborarien Batasuna (ELB) sindikatu sortu zuten 1982an (Mayté, 1992; Itzaina, 2004b; Sistiague, 1999). Baina horiek guk hemen aipu dugun garaia baino aise berantago gertatu ziren. 1950 urteetan, nahiz eta ez «abertzale» bezala agertu, sentsibilitate euskaltzale bat sentitzen zen Eskualdun Gazteriaren baitan, harremanak bazituzten Hegoaldeko Baserri Gaztedirekin, eta frantses mugimenduari begira autonomia zerbait ere atxikitzen zuten, bereziki *Gazte*, beren aldizkari propioa, hedatuz (Murua Uria, 1996: 111).

Philippe Portier-ek (Portier, 1993), Frantziako Eliza katolikoaren historia politikoa idaztean, bi garai bereizten ditu.



1920tik 1955era, Eliza beregandik urruntzen ari zen gizarte baten errekonkistan ari zen. Emile Poulaten hitzen baliatze-ko, erakunde eta elkarte sare berri batzuei esker, Elizak katolizismo «geldia» (*catholicisme de position*) utzi zuen mugimenduen katolizismora (*catholicisme de mouvement*) pasatzeko. Portierren arabera, 1955etik aitzina, Elizaren eragina hasi zen ttipitzen, Frantziako azpikultura katolikoaren ahultzearekin batera, eta politikaren nagusitasun berriarekin. Hiru ideologia erakargarriak bilakatzen ziren giristinoentzat, eta berezikiago militante katolikoentzat: komunismoa, pertsonalismoa eta autokudeaketa edo autoeraketa. Gero eta militante katoliko gehiagok sentitzen zuten kontraesan bat Eliz erakundearen baitan, eta krisialdi horren irtenbide bezala hautu bat behar izan zuten egin: edo erakundea barne-*tik* aldatu (*protest within*), edo bere gisa utzi (*protest without*) (Wach, 1955). Euskal Herria Frantziako eskualde katolikoenetarik bat izanki eta, alternatiba hori doi bat berantago agertu zen. 1950eko hamarkadaren erdian «erlijio soziologikoak» oraino bertze eskualde anitzetan baino indar gehiago zeukan, eta haustura instituzionalak eta biografikoak beranduago baizik ez ziren gertatuko (Itzaina, 2005).

Artikulu baten mugak direla eta, gaia azaletik baizik ez dugu hunki. Erran dena, gorago aipatu hainbat ikerlan beha ditzake irakurleak mami gehixeagoren ukaiteko. Halere, 1950 urteei buruzko ikerketan barnatzekoa balitz, hiru norabide proposa nitzake. Lehendabizi, behar dira aztertzen diren mugimenduak beren ingurumen politiko eta sozioekonomikoan hobeki kokatu. Giro politiko internazionalaren garrantzia aipatu dugu. Baina aldaketa sozioekonomikoak ere ez dira gutietsi behar. Frantzian 1950ean 3.794 telebista baziren etxeetan, eta milioi bat 1959an (Lévy, 1999): gisa horretako aldaketa tekniko batek ukan zituen ondorio politiko, sozial baina erlijiosoak ere, behar dira kontuan hartu. Bigarrenik, Euskal Herrian gertatua behar da bertze kasu batzuekin konparatu, zeinetan nortasun nazionala, katolizismoa eta politika hurbiletik nahasiak ziren. Quebecen, adibidez,

1950 urteetan nazional-katolizismo mota bat zen nagusi, Duplessis-en agintaritzapean<sup>21</sup>, zeinetan frantses-kanadar nazionalismoak eta katolizismoak ezin hautsizko bloke bat osatzen zuten. Garai hori «iluntze handia» (*la grande noirceur*) deitu zuten berantago, iraultza lasaiaren garaian. Euskal Herrian bezala, haatik, iluntze zolatik ere argi zenbait piztu zitezkeen han ere. Hirugarrenik, mugimendu katolikoek gizartearen egituratzean ukan zuten garrantzia beharko litzateke hurbilagoetik miatu, ez bakarrik eragin materialari dagokionez —honenbeste sindikatu, alderdi politiko edo mugimenduekiko lotura aztertuz— baina bai ideien eta espiritualitatearen aldetik ere, izan daitezen erlijiosoak ala sekularrak.¶

- 
1. Lan honek Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean 2006ko azaroaren 8an eman hitzaldi bat dauka oinarritzat. *Jakin* aldizkariaren 50. urtemugaren kariatara antolatu jardunaldi horiek «50eko hamarkada Euskal Herrian» zeukaten gai nagusitzat. Eskerrik asko antolatzaileei gomitarengatik.
  2. Ikus Mikel Aramendiren ekarpena *Jakin*-en jardunaldietan.
  3. Aspaldiko eztabaida da hau. Batzuentzat (Tuñón de Lara) frankismoa faxismo mota bat izan da; bertzentzat, bonapartismotik hurbil den despotismo bat (Oltra, Amando de Miguel); bertze batzuentzat, oraino, erregimen autoritario kontserbadore bat (Linz, Payne, Tusell). Orduko giro politikoari buruz, ikus Emilio Lopez Adanen ekarpena *Jakin*-en jardunaldietan.
  4. Bi diozesi berri sortu zituzten: Donostiakoa, Iruñeko artzapezpikuari lotua (Tutera, Jaca eta Errioxako Kalagorrirekin batera), eta Bilbokoa, Burgosko artzapezpikuari lotua, Gasteizko diozesiarekin batera.
  5. 1950ean, euskal diozesietan apezpiku aragoiar bat (Bueno Monreal Gas-teizen), madrildar bat (Morcillo González Bilbon) eta katalan bat (Font Andreu Donostian) izendatu zituzten.
  6. Gerla aitzineko abertzaleen desterruari buruz, ikus Mikel Aizpururen ekarpena *Jakin*-en jardunaldietan.
  7. Eskerrik asko Joseba Intxaustiri puntu hau azpimarratzeagatik.
  8. Oroitarazi behar da Vichyren gobernua, nahiz eta frantses Eliza katolikoaren parte handi batek sustengatzen zuen, ez zela erregimen konfesionala. Erregimenak balio katoliko tradizionalistak (lana, familia, aberria) zeuzkan oinarritzat, baina bazen Pétain-en inguruan ere tendentzia faxista antiklerikal bat, 1942ko apiriletik aitzina gero eta garrantzi gehiago ukanen zuena.
  9. Kristau demokratek beren arrakasta ukana zuten halere: Michel Labeguerie Kanboko auzapeza diputatu bilakatu zen 1962an, Errecart senatari;

- 1964an Etcheverry-Ainchart Baigorriko kontseilari orokorra berriz pasatu zen lehen itzulian Enbata lemapean. Haatik, 1958an Aljeriako gerla, 1965ean Frantziako lehendakaritzaren hautatzea sufragio unibertsalean, horiek orok bozak galarazi zizkioten kristau demokrazia eskualdunari.
10. Eusko Ikaskuntzak antolatutako zituen Kanbon Aljeriako gerlari buruzko jardunaldiak, eta orduan ireki zauriak oraino minbera zirela agertu zen (Arbelbide et al., 2005).
  11. Piarres Xarritonek kontatzen du, adibidez, ze presio jasan behar izan zituen tortura salatzen zuen Aljeriatik jinikako karta bat goizeko meza batean irakurri zuelarik (Murua Uria, 1996: 112).
  12. Katalunia, aldiz, azken-aitzinekoa zen (%21,66).
  13. Langileen sindikatuak aitzina segitzen zuten lanean klandestinitatean. Sindikatu historikoak (CNT anarkista, UGT sozialista, ELA-STV aber-tzalea) elkarri lotu ziren 1962an koordinazio sindikalaren hitzarmen batean: Aliantza sindikala. Baina sindikatuen ahal mugatuak eta, oroz gai-netik, beren dimentsio alderdikari eta politizatua ez zetozen bat langile belaunaldi berrien estrategia bateratzaile eta ideologikoki irekiagoarekin (Ibarra, 1988: 97).
  14. *Ley de Convenios Colectivos* arauarekin, erregimenak onartzen zuen ger-la zibilaren ostean zutik ezarri lanaren legedia ez zela gehiago funtziona-la, oroz gainetik 1950en hondarrean hasi garapen ekonomikoari begira. Argi geratzen zen langileen ordezkariak behar zirela sartu produktibitate eta soldaten hobetzeari buruzko solasetan. Horiek ikusita, erregimenak emeki-emeki legedia aldatu zuen (Ibarra, 1988: 96).
  15. Comisiones Obreras zinez garatzen hasi zen 1962ko Bizkaiko greba oro-korrarekin. Hegoalde osora hedatu zen 1963 eta 1966 artean.
  16. 1966ko ekainean, Espainiako gotzainen biltzarrak mugimendu aposto-likoen antolaketa aldatzea erabaki zuen. Aitzindarien izendatzea, ordutik aitzina, hierarkiaren manu pasatu zen, konpetentzia esklusibo bezala (*Masses ouvrières* 241, 1967: 54).
  17. ORTk bitzita labor bat ukan zuen diktaduratik ateratzean. Hauteskun-deetako emaitza ahulek (%1,47 1977ko legebiltzarrerako hauteskundeetan) ez dute gorde behar ORTren mobilizazio indarra, bereziki Iruñean.
  18. Philippe Mayté idatzi du Eskualdun Gazteriari buruzko ikerketa bat, 1930 urteetarik 1970 urteetaraino (Mayté, 1992). Paulo Iztuetak badu argitaratua bertzalde Hegoaldeko eta Iparraldeko bi mugimenduen arteko konparaketa balios bat (Iztueta, 1987).
  19. Jean Hiriart-Urruty 1954-1955 eta 1960-1964 artean, Piarres Xarriton 1955etik 1960 arte.
  20. Kontseilu orokorreko hauteskundeak kantonamenduka iragaten dira. Kontseilari orokorrek departamenduko kontseilua osatzen dute (*Conseil général*).
  21. Quebeceko lehen ministro egona 1944tik 1959ra.

**Bibliografia**

- Arbelbide, X. et al. (2005), *Aljeriako gerla eta Euskal Herria (1954-1962). La guerre d'Algérie et le Pays Basque (1956-1962)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, Lankidetzeta saila.
- Arbelbide, C. (zuz.) (1979), *Eskualdun Gazteria, 50 urte*, Eskualdun Gazteria, 1979.
- Arbelbide, C. (1982), «Le MRJC en Pays basque Nord», in M. Oronos (zuz.), *Jalons pour une histoire de l'Église catholique de 1965 à 1977*, argitaratu gabekoa, 16-17. or.
- Azurmendi, J. (1984), *El hombre cooperativo, pensamiento de Arizmendiarrizta*, Arantzazu, Lankide Aurrezkia, Editorial Franciscana Arantzazu, Jakin.
- Banfield, E. C. (1967), *The Moral Basis of a Backward Society*, New York, The Free Press, London, Collier-Macmillan Limited.
- Berger, P. (1971), *La religion dans la conscience moderne: essai d'analyse culturelle*, Paris, Le Centurion.
- Camus Etchecopar, A. (2006), «Aljeriako gerla eta Euskal Herria», Eusko Sare ([www.euskosare.org/komunitateak/ikertzaileak/ehmg\\_3\\_mintegia/txostenak/camus\\_etchecopar?q=eusko+ikaskuntza+aljeria&meta=&set\\_language=fr&hl=fr&cl=fr](http://www.euskosare.org/komunitateak/ikertzaileak/ehmg_3_mintegia/txostenak/camus_etchecopar?q=eusko+ikaskuntza+aljeria&meta=&set_language=fr&hl=fr&cl=fr)).
- Caro Baroja, J. (1986, [1949]), *Los Vascos*, Madril, Istmo.
- Donegani, J.-M. (1993), *La liberté de choisir: pluralisme religieux et pluralisme politique dans le catholicisme français contemporain*, Paris, Presses de la Fondation nationale des sciences politiques.
- Duocastella, R. (1975), «El mapa religioso de España», in P. Almerich, J. L. Aranguren, R. Duocastella et al., *Cambio social y religión en España*, Bartzelona, Fontanella, 131-162. or.
- García de Cortazar, F. (1988), «Iglesia vasca, religión y nacionalismo en el siglo XX», in *Kultura eta ideologiak (XIX-XX. mendeak) - Cultura e ideologías (siglos XIX-XX)*, Donostia, Txertoa, 221-251. or.
- Hermet, G. (1973), «Les fonctions politiques des organisations religieuses dans les régimes à pluralisme limité», *Revue française de science politique* 23 (3), 473-513.
- Hermet, G. (1981), *Les catholiques dans l'Espagne franquiste*, Paris, Presses de la FNSP, bi liburuki.
- Hermet, G. (1985), «L'autoritarisme», in M. Grawitz, J. Leca (zuz.), *Traité de science politique*, Paris, PUF, 2. liburukia, 269-312. or.
- Herria 2000 Eliza (1978), «Karlos Santamaria (entrevista)», *Herria 2000 Eliza* 11.
- Ibarra P. (1988), «El movimiento obrero en el País Vasco durante el franquismo, 1960-1977», in *Kultura eta ideologiak (XIX-XX. mendeak) - Cultura e ideologías (siglos XIX-XX)*, Donostia, Txertoa, 93-104. or.
- Isambert, F.-A.; Terrenoire, J.-P. (1980), *Atlas de la pratique religieuse des catholiques en France*, Paris, Presses de la FNSP, CNRS.
- Itzaina, X. (2004a), «Talde boluntario utopikoak Euskal Herrian. Ordena erlijiosoa mobilizazioaren eredu bezala?», in J. Intxausti (arg.), *Euskal He-*

- rriko Erlijiosoen Historia. Euskal Herriko familia eta institutu erlijiosoen I. Kongresuaren aktak*, Oñati, Arantzazu Edizio Frantziskotarrak, 1. liburukia, 479-487.
- Itzaina, X. (2004b), «Girixtinotasunetik altermundializatorat: ELB Iparraldeko laborari sindikataren kasua», *Gogoia* 4(1), 99-119.
- Itzaina, X. (2005), «Les clercs de l'identité: socialisation religieuse et engagement militant en Pays Basque», in D. Laborde (arg.), *Six études sur la société basque*, Paris, L'Harmattan, 163-233. or.
- Iztueta, P. (1981), *Sociología del fenómeno contestatorio del clero vasco: 1940-1975*, Baiona, Donostia, Elkar, 265-293. or.
- Iztueta, P. (1987), «Eliz mugimenduak Euskal-Herrian: Baserri Gaztediaren eta Euskaldun Gazteriaren kasua», in R. Lopez-Atxurra (zuz.), *Euskal Herriaren historiaz. III. Kultura eta portaera erlijiosoak Euskal Herrian zehar*, Bilbo, EHU, 183-203. or.
- Laermans, R. (1991), «Roman Catholicism and the 'Methodical Conduct of Life': Catholic Action in Flanders in a Weberian Perspective», *Social Compass* 38(1), 87-91.
- Lannon, F. (1987), *Privilege, Persecution and Prophecy. The Catholic Church in Spain, 1875-1975*, New York, Oxford, Oxford University Press.
- Lévy, M.-F. (1999), *La télévision dans la République. Les années 50*, Brusela, Complexe, coll. Histoire du temps présent.
- Linz, J. J. (1993), «Religión y política en España», in R. Díaz-Salazar, S. Giner (arg.), *Religión y sociedad en España*, Madril, CIS, 1-50. or.
- Linz, J. J. (2006), «El uso religioso de la política y/o el uso político de la religión: la ideología-sucedáneo versus la religión-sucedáneo», *Revista Española de Investigaciones Sociológicas* 114, 11-35.
- Mayté, P. (1992), *L'Eskualdun Gazteria (JAC-JACF-MRJC) des années 1930 à la fin des années 1970*, Brusela, Maîtrise d'histoire, Université de Bordeaux III.
- Murua Uria, I. (1996), «Piarres Xarritoni elkarrizketa», *Jakin* 97, 83-134.
- Palard, J. (1985), *Pouvoir religieux et espace social, le diocèse de Bordeaux comme organisation*, Paris, Cerf.
- Pérez-Díaz, V. (1993), *The Return of Civil Society. The Emergence of Democratic Spain*, Cambridge, Harvard University Press.
- Pitt-Rivers, J. A. (1954), *The people of the Sierra*, New York, Criterios Books.
- Portier, P. (1993), *Eglise et politique en France au XX<sup>e</sup> siècle*, Paris, Montchrestien, coll. Clefs politique.
- Poulat, E. (1977), *Eglise contre bourgeoisie. Introduction au devenir du catholicisme actuel*, Paris, Centurion.
- Sistiague, M. (1999), *ELB, Ipar Euskal Herriko laborarien oihartzuna*, Baiona, Gatuzain.
- Un responsable de MRJC (1982), «Le MRJC en Pays basque Nord», in M. Oronos (zuz.), *Jalons pour une histoire de l'Eglise catholique de 1965 à 1977*, argitaratu gabekoa, 18-22. or.
- Vázquez, J. M. (1967), *Realidades socio-religiosas de España*, Madril, Editora Nacional.
- Wach, J. (1955), *Sociologie de la religion*, Paris, Payot.

# Euskal ekonomia 50eko hamarkadan

**BALEREN BAKAIKOA**

EHUko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea

## Nazioarteko erakundeen sorrera

Bigarren Mundu Gerratea amaitu ostean, Europako herrialdeen arteko lankidetzak bultzatu beharra zegoela gardentzen ikusten zuten garai hartako agintari gehienek. Ezin zitekeen onartu bi Mundu Gerrateen arteko urteetan ezagutu zen egoera. Izan ere, garai hartan estatuen politika ekonomikoa erabat dibergentea izatera heldu zen, eta horrek, ekonomiarik lagundu ordez, krisialdi sakonagoan sartu zuen. Beraz, honelako egoera ezin zitekeen errepika eta neurri pragmatikoak hartzen hasteko unea zela onetsi zuten.

Honela, 1948an Lankidetzak Ekonomikorako Europako Erakundea (LEEE/OECE) sortu zen Europako estatuen arteko lankidetzak areagotzeko. Gainera, urte horietan bertan onetsi zen Marshall Plana eta horrek ere eskatzen zuen politika ekonomikoak hurbil zitezen.

Lankidetzak horren xede nagusia, azken finean, europarren bizimodu maila hobetzea zen, Europako herrialdeen arteko merkataritza harremanak liberalizatuta; baina ez zen inola ere keynesiar eredu esku-hartzailea saihesteko asmorik azaldu, politika ekonomikoa eredu keynesiarrean oinarritzen baitzen.

Handik urte batzuetara, 1951n, Parisko Tratatua sinatu ostean, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa (IAEE) sortu zuten Frantziak, Alemaniak, Italiak eta Beneluxek (Belgika, Herbehereak eta Luxenburgo). Erkidego horrek ahalbidetu zuen estatu kide horien gaintik zenbait eskuduntza edukitzea, baina beti ere ikatz eta altzairuaren sektoreetara mugatuta.

Egoera hau baloratzekoan kontuan izan behar dugu erkidego horren sortzaileek erakunde horren arauak ipini zituztela. Gerora, kide berri batek erkidego horretan sartzeko eskaria egiten zuenean, arau horiek esaten zutena onartu beharrean zegoen; eta horrelako egoera batek, gehienetan, abantaila ematen die sortzaileei. Bien bitartean, Espainiako ikazkintza edo Hego Euskal Herriko burdingintza eta altzarugintza beste abiadura baten zihoazen eta horrek ere desabantaila areagotuko zuen.

Antzeko zerbaite gertatuko zen Europako Ekonomia Erkidego (EEE) eta Euratomekin. Izan ere, bi erkidego horiek 1957an sortu zituzten IAEEren fundatzaileek; erkidego horiek ere, besteak bezala, bere aginte organoak, aurrekontua eta zenbait eskuduntza izango zituzten, estatu kideek emanikoak. Beraz, estatu kideen gainteko politikak aplikatzeko lehen aukerak gauzatzen hasi ziren.

Erkidego bi horietatik kanpo geratu zen Espainiako estatua eta ondorioz Hego Euskal Herria, eta gorago aipatu diren desabantailak ekonomiako sektore guztietara hedatuko ziren. Jakina da IAEE sortu eta 35 urtera sartu zela Espainiako estatua kide gisa, eta EEE eta Euratomera 29 urte beranduago, nahiz eta kidetza lortu aurretik nekazaritza, arrantza eta industria moldatzen hasi, baina atzerapenarekin.

## Espainiako estatua: 1939-1959

Espainiako gerra zibila amaitu ondoren, ekonomia garatzeko eredu gisa autarkia onartu zen. Batzuen ustetan hala-beharrez, eta beste batzuek diote frankismoaren atzean zeu-

den ideologiek eredu autarkikoa ezartzea eskatzen zutela. Estatu bateko ekonomia batek besteekiko independentea izan nahi bazuen, barne nahikotasuna bermatu behar zuen; nolabait esateko, inportazioen ordezkapena areagotu behar zen eta ondasunak, kanpotik ekarri ordez, estatu barruan ekoitzi behar ziren.

Alde batetik eredu autarkikoa zela eta bestetik Alemania eta Italiarekin zituen zorrak kitatu behar zituela eta, *errazionamendu* sistema ezarri zuen gobernu frankistak. Horrela ahalbidetzen zen ekoizpen gehiena estatu barruan gauzatzeari, baina hala ere dibisen premia handia zegoen, makineria eta teknologia inportatu behar baitziren ekoizpen mailari eutsi nahi bazitzaion. Estatu barruan ez zegoen gaitasunik ekipo ondasun beharrezkoenak ekoizteko, eta horregatik halako premia dibisak eskuratzeko.

Bestalde, espainiar gobernuak lehentasuna ematen dio industriari nekazaritzaren kaltetan. Garapen estrategia aldaketa horrek dibisen premia areagotu egiten du, jadanik ekoizpen sistema zaharkitua baitzegoen eta atzerritik makineria berria inportatu behar baitzen.

Kanpo harremanak oso urriak izan zituen Espainiako estatuak 1953 arte, baina urte horretan Vatikanoarekin Konkordatua sinatu zuen eta horrek nolabaiteko legitimazioa eman zion Espainiari herrialde katolikoen aurrean. Urte berean ere Ameriketako Estatu Batuekin akordioa lortu zuen Espainiako gobernuak base militarrek irekitzeko eta ordaintan US dolarrak lehen ez bezala sartzen hasi ziren.

Dibisak ugaritu zirenean, kanpo erosketak areagotu ziren eta lagundu zuten garapen ekonomikoari bulkada bat emateko. Baina garapen ekonomiko azkarrak, normalki, ez dira orekatuak izaten eta berehala azaldu ziren arazoak: inflazioa, aurrekontu defizita, lehengaien eskasia, etab. Horrek guztiak langileen alokairuetan eragin negatiboa izan zuen, balioa galdu baitzuten, batik bat hamarkadaren azken urteetan.

Urte horietako garapen ekonomikorako, gobernu frankistak lanabes berezi bat zuen: Instituto Nacional de Industria



(INI). Jakina denez, INI 1941ean sortu zuen gobernu zentralak zenbait helbururekin: 1) defentsa industria garatzea; 2) autarkia ekonomikoa sustatu eta garatzea; eta 3) espainiarren aurrezkoa inbertsio ziurretan erabiltzea. Azken finean, jendearen aurrezkoa estatura zuzendu nahi zen, horrek egokiak kontsideratzen zituen sektoreetan inbertitzeko (elektrizitatea, ikatza, kimika, etab.). Inbertsio horiek, bestalde, zuzenak edo zeharkakoak izan zitezkeen, hau da, enpresa osoa INIrena izan zitezkeen, baita enpresa bateko kapitalean parte hartu ere.

INI finantziatzeko, 1951n gobernuak lege bat atera zuen, eta bertan agintzen zitzairen aurrezki kutxei gordailuen ehuneko 60 estatuaren tituluetan inbertitzeko. Zortzi urte beranduago, 1959an, gordailu horien ehuneko 65 «balio kualifikatuetan» inbertitu behar zituzten aurrezki kutxek eta, jakina, INIren jaulkipen guztiak arazorik gabe kokatzen ziren.

INIren politika, bestalde, Espainiako estatuko ekonomia deskongestionatzea zen; politika horren ondorioetako bat hauxe zen: Bartzelona, Bizkaia eta Gipuzkoan inbertsio publikorik ez zen egiten edo oso urriak ziren. Beraz, estatu *holding* horrek aipatu lurraldeetatik kanpo burutzen zituen inbertsio gehienak. Are gehiago, Bizkaia edo Gipuzkoako edozein enpresak lurralde horietan inbertsio berriak egiteko gobernu zentralari baimena eskatzen bazion, ezetza jasotzea ez zen batere harriztekoa; politika hori zela eta, Araba profittatu zen, euskal enpresa ugari bertara hurbildu baitziren.

Halaber konstatatuta dago INIk Hego Euskal Herrian oso inbertsio gutxi egin zituela. Izan ere, aipatzeko moduko inbertsioak, Potasas de Navarra eta Sopuertako Empresa Nacional ADARO de Investigaciones Mineras enpresetan gauzatutakoak soilik ditugu, ez besterik. Hori guztia dela eta, Hego Euskal Herrian «deskapitalizazio teoriaz» mintzatzen hasi zen, estatuak hemendik bideratzen zuen diruaren oso zati txikia itzultzen baitzuen, eta beraz, finantza publikoetako fluxuak, nabarmen, negatiboak ziren.

Bestalde, INIk zeharkako eragina ere izan zuen euskal burdingintzan. Izan ere, Asturiasen ENSIDESA sortu zuen eta lehia gogorra egingo zion Bizkaiko Altos Hornos de Vizcayari. Ondoko datuetan ikusten da enpresa horren eragina AHVren ekoizpenean: 1951n estatu osoan ekoizitako burdinaren ehuneko 52 eta altzairuaren ehuneko 50 AHVn ekoizten zen, eta 1959an portzentaia horiek ehuneko 26ra eta 34ra erori ziren hurrenez hurren. Beraz, argi dago euskal enpresa horrek izan zuen galera erlatiboa.

Oro har, hamarkada aurrera zihoala, 1956ko krisialdi ekonomikoa eta politikoa atzean utzi ondoren, Francok gobernu aldatu zuen eta bertan espiritu liberal eta teknokratikoa zuten pertsonak sartu ziren ministerio ekonomikoetan; horrek guztiak ahalbidetu zuen politika ekonomiko berria martxan jartzea, batik bat inflazioari eta pagamendu balantza desorekatuari aurre egiteko. Neurri aipagarrienak hauek lirateke: 1) Oficina de Coordinación y Promoción Económica sortu zen, eta hurrengo Plan Ekonomikoak eratzeko oinarriak bulego horretatik aterako ziren; 2) dibisen merkatua berrantolatu zen, kanbio sistema aldeaniztuna ezabatu eta sistema bateratua sortu zen, non pezetaren kanbio tasa dolarrarekiko 42 pezetaraino desbaloratu zen; 3) moneta politika erabiltzen hasi zen eta Banco de Españaren birdeskontu tasa handitu; 4) muga zerga berriak eratzeko batzorde bat sortu zen; 5) epe ertain eta luzerako kreditu sistema birrantolatu zen;...

1958. urtea oso txarra izan zen. Inbertsioak murrizteaz gain, Nazioarteko Diru Funtsean eta Berreraiketa eta Garapenerako Nazioarteko Bankuan (Banco Internacional de Reconstrucción y Desarrollo) sartu zen, eta finantza erakunde bi hauek Espainia behartu zuten Estabilizazio Plana nahitaez indarrean jartzera. Ondorioz, Estabilizazio Plana 1959-1961eko tarte horretan egon zen indarrean.

Estabilizazio Plana indarrean jartzeko zenbait aldaketa politiko ere egin zituen Francok. Izan ere, Alderdi Falangistak indarra galdu zuen eta boteretik apartatua izan zen. Bien bitartean, garai ekonomiko berriak eskatzen zuen ere-

du ekonomikoa kudeatzeko ardura Opus Deiko kideek hartu zuten. Francok falangistak boteretik kendu zituen, eta horien ordeztu teknokrata liberalak, Escrivá de Balaguerren jarraitzaileak, iritsi ziren exekutibora. Teknokrata horiek liberalak ziren politika ekonomikoari zegokionez, baina Francorekin bat zetozen politika errepresiboa aurrera eramateko; oroitu, bestela, horien aginte garaian zenbat pertsona izan ziren fusilatutako, edo «garrote vil» sistema erabili zuten exekutatuak Puig Antich anarkista katalana.

## Euskal ekonomia autarkiaren azken garaietan

Burdin meatzeak berebiziko garrantzia izan zuen, batik batik, Bizkaiaren industrializazioan, ez hainbat Gipuzkoakoan. Izan ere, XIX. mendearen azken laurdenean eta XX.eko lehenengo hamarkadetan meatzea esportatu eta bide horretatik sartu ziren dibisak erabili ziren inbertsio modernoak egiteko. Baina 50eko hamarkadara heldu aurretik nahiko agortuak zeuden Enkarterrietako meategi gehienak, eta hurrengo urteetan erabat desagertuko dira.

Burdin meatzearen belaunaldiak burdinaren eta altzairuaren belaunaldi berriari ireki zizkion ateak. Horrela, Bizkaiaren, 1950. urte inguruan, 244 enpresa zeuden eta 20 mila beharginetik gora enplegatzen ziren ekoizkin horien eraldaketa enpresatan; euskal enpresaburuek garai horretan defendatuko zuten, Madrilgo agintarien iritziaren aurka, mota horretako enpresek kontsumo guneeetatik gertu egon behar zutelako, ez ikatza zegoen eskualdeetan; jakina, Bizkaiak eta Gipuzkoak, adibidez, estatuko kontsumo osoaren ehuneko 35 zuten 1954an.

Bestalde, ekonomiaren liberalizazioarekin kanpo kapitalak baimena lortu zuten Espainian inbertitzeko, nahiz zenbait muga ezarri. Ondorioz, Altos Hornos de Vizcayako kapitalaren laurdena Estatu Batuetako US Steel-ek eskuratu zuen; kimika industrian ere atzerriko enpresak inbertsioak egiten hasi ziren, berdin beste zenbait industriatan. Oro har,

inbertsio horiek guztiak onuragarriak izan ziren euskal industriarentzat, teknologia zaharkitua baitzegoen garai haietarako; eta hura berritu beharra zegoen, beraz, kanpo merkatuetan lehiatu nahi bazen.

Kimika sektorea izan zen, hain zuzen, garapen handia ezagutu zuena aipatu hamarkadan, batik bat Bizkaian. Garai horretakoak dira Unquinesa, Unión Española de Explosivos, Sefinatro, Células del Nervión... Gipuzkoan sektore horrek garrantzi txikiagoa izan zuen. Zenbakietan, Bizkaian 200 bat enpresa zeuden 12.000 beharginekin eta, bien bitartean, Gipuzkoan, 55 enpresa 1.940 beharginekin.

Makina-erreminta garatzeko oinarriak 1940-1959 arteko denboraldian ipini ziren. Hasieran inportatzen zenak balio garaiagoa zeukan esportatzen zenarekin erkatuta, baina denboraren poderioz alderantzizko egoerara helduko da industria horren kanpo balantzea.

Enpresa jarduera horrek guztiak ahalbidetu zuen hazkunde tasa ikaragarri garaiak izatea garai haietan. Adibidez, 1945-1957 denboraldian, Gipuzkoak, Bizkaiak, Arabak eta Nafarroak, hurrenez hurren, ehuneko 199,3, 168,4, 109,5 eta 76,4ko hazkundera izan zuten eta, bien bitartean, estatuko batez bestekoa ehuneko 88,9koa izan zen; urteko hazkunde tasa ehuneko 16,60, 11,03, 9,12 eta 6,36 izan zuten herrialde horiek, eta estatuko batez bestekoa, berriz, ehuneko 7,40.

Halaber, denboraldi laburrago bat hartzen baldin badugu, 1951-1957 bitartea, urteko hazkunde tasa Gipuzkoarentzat ehuneko 14,55 izan zen, Arabarentzat ehuneko 12,26, Bizkaiarentzat 7,98 eta Nafarroarentzat 2,66; estatuko batez bestekoa ehuneko 4,41 izan zen denboraldi berean. Datu horiek harrigarriak dira, hain zuzen gaur egun Txinan edo Indian ematen direnen antzekoak.

Bestalde, *per capita* errentari dagokionez, Gipuzkoak izango du hazkunde handiena, gero Araba etorriko da eta azkenik Bizkaia eta Nafarroa. *Per capita* errenta hori, Bizkaian 25.554 pezetakoa izan zen 1957an, Gipuzkoan 25.553, Araban 17.923 eta Nafarroan 15.587 pezetakoa.

Finantza publikoei dagokienez, Nafarroak gobernu zentralarekin bere Ekonomia Hitzarmena berritu zuen 1941ean. Hain zuzen, gerra zibilaren garaian eta ondorengo urteetan gastu publikoak asko puztu ziren eta horregatik Nafarroari ekarpen ekonomiko handiagoa eskatu zitzaion; hori izan zen arrazoietakoa bat Hitzarmen berri bat negoziatzeko. Horrez gain, administrazio publiko zentrala ere handitu zen eta diru gehiagoren premia zegoen.

Ekonomia Hitzarmen honek ekarpen ekonomiko/kupo berri bat jasotzen zuen, eta zehaztutako kopuru finkoa edo foru dohaintza 41 milioi pezetakoa zen; gainera, beste zati aldakor bat ere erantsi behar zitzaion. Hitzarmen hori 1969 arte indarrean egon zen.

Bizkaia eta Gipuzkoari Francok Ekonomia Ituna 1937an kendu zien, hiritar gehienak altxamendu militarren aurka zeudelako. Bien bitartean, Arabak indarrean mantendu zuen. Nafarroarenak ez bezala, Arabaren Itunak iraupen finkoa zuen eta berorren amaiera 1951. urtea izan zen. Beraz, urte horretan beste Itun bat negoziatu zuten Arabako Foru Aldundiak eta gobernu zentralak.

Negoiazio horren fruitua 1952ko apirilaren lehenean jaso zen, data horretan argitaratu baitzen Ekonomia Itun berria. Eta aurreko Itunak bezala hogeita bost urteko iraupena izango zuen, alegia, 1976 arte. Itun horrek, besteek bezala, bi atal nagusi zituen: itundutako zergak, alde batetik, eta zerga horietako bakoitzagatik ogasun zentralari ordaindu behar zitzaion diru kopurua, bestetik. Kopuru guztiak batu-ta, urteko kupoa ateratzen zen eta bost urterako balioa zuen. Gero, epea igaro ondoren, kupo hori eguneratu egin behar zen, eta horretarako ogasun zentralak zerga beretatik izango zuen gehikuntzaren edo murriztapenaren arabera haziko zen arabarrek ordainduko zuten kupo gordina.

Kupo gordin horri Arabako Aldundiak zerbitzu orokorretan, estatuaren ordeztu, burutuko zituen gastuen kopurua kenduko zitzaion aipatu bost urtetan, eta emaitza kupo likidoa zen. Hurrengo bosturtekoan gastu horiek ere egunera-

tu behar ziren. Oro har, Arabako Ekonomia Itunak aurreko itunen egitura mantendu zuen, baina teknikoki aurreratua goa zen, batik bat kupoaren kalkuluari zegokionez.

Amaitzeko, bai Nafarroak baita Arabak ere, aipatu hamarkada horretan, lanabes egokia zuten zerga funts ugari eskuratzeko. Ondorioz, azpiegiturak egokitu zituzten industria-erentzat eta enpresak apurka-apurka erakartzea ahalbidetu zen.

50eko hamarkadako beste gertakizun esanguratsua Arrasaten izan zen. Izan ere, Jose Maria Arizmendiarrietak herri horretan sortu zuen eskola politeknikoa bere lehen fruituak ematen hasi zen, 1956an eskola horretan hezitako bost ki-dek Ulgor kooperatiba sortu baitzuten, gerora Fagor izena hartuko zuena. Beraz, Arrasateko esperientzia lehen urratsak egiten hasi zen.

Berehala, beste hiru kooperatiba sortu ziren (Talleres Arrasate, Funcor eta Cooperativa de Consumo San José), eta Arizmendiarrieta jauna ohartu zen kreditu kooperatibo bat behar zutela enpresa berri horiek, ahal zen heinean bankuak saihesteko. Horrela jaio zen Caja Laboral Popular edo Lankide Aurrezkia 1959an; berorren helburu nagusia kooperatibentzat finantza bideak ahalbidetzea zen, bestela banku sistemaren sarean erortzeko arriskua aurreikusten baitzuten Arizmendiarrieta jaunak.

Halaber, Lankide Aurrezkia ez zen bakarrik finantza eragiketetara mugatuko, taldeko kooperatibei enpresa aholkularitza eskainiko baitzien, baita bertako bazkideentzat jendarte aurreikuspeneko sistema ere. Beraz, edozein enpresa proiektu aztertzeko eta aholkuak emateko zerbitzua eratu zuen; denboraren poderioz, Arrasateko Kooperatiba Taldearen oinarri eta ardatz izatera helduko zen finantza erakunde hori.

Kooperatiba guztiek elkarren artean lana egiteko premia Arizmendiarrieta jaunaren filosofian kokatu behar da. Izan ere, enpresa kooperatibak arrakasta izan dezan, beraien arteko lankidetzak behar-beharrezko baldintza da, eta hortik

dator Lankide Aurrezkiaren paper estrategikoa, taldeari koherentzia emango baitio.

Hamarkadaren amaierarako industria kooperatibo ugari funtzionatzen ari ziren, talde loturetan oinarrituta. Beraz, Estabilizazio Plana indarrean zegoen bitartean oinarriak sendotu besterik ez zituen egin Arrasateko Kooperatiba Taldeak, eta lehen Garapen Ekonomikoko Planak ekarriko zuen uhina baldintza egokietan harrapatu. Hortik aurrera, garapen esanguratsua izan du taldeak eta mundu guztian ezagun bihurtu da, esperientzia bezala esportatzeko zaila dena, baina bai kooperatibak garatzeko erreferentzia gisa.¶

# Hamarkada isil bateko migrazioak

**XABIER AIERDI**

EHUko Soziologia Saileko irakaslea

Lehenengo eta behin, *Jakin* aldizkaria zoriondu gura dut, ibilbide luzeago baten lehen 50 urteak baino ez ditu bete eta. Bigarrenik, eskertu mahai inguru honetara gonbidatu izanagatik, besteak beste, 1950eko hamarkadaren errelebantziatziaz kontu hartzea permititu didalako. Askotan begien aurrean hainbat datu izan arren ez da horregatik euren esanahia antzematen, baina aukera hori eman dit mahai inguru honek. Horretara, orduko migrazioen azterketak hamarkada honen garrantziaz ohartarazi dit, egungo euskal gizartearen zutabe nagusiak orduantxe eraikitzen hasten zirelako; beraz *Jakin* ez zen basamortu batean sortu, oasi oso lehor batean baino. Hirugarrenik, mugimenduen loraldiek hiru osakin behar izaten dituzte: gizarte egiturak eskaintzen edo ukatzen dituen aukerak, kontzientzia sozial baten existentzia eta eragiletza (pertsonek edo taldekoak). Orduko baldintza ukatuetan, sistema itxi bateko zirrikituetan, berpizkundea sortzen ari zelako sintoma da *Jakin*. Hori da analisi demografikoak erakusten diguna ere.



Hamarkada batera mugatzen bukatuko dudan arren, orduko migrazioak kokatzeko soziologikoki zehatzagoa litzateke 1955 eta 1970 urteen tartean gertaturikoa arakatzea, *Jakin* eta beste hainbat kultur eta gizarte ekimen garai horretako produktuak baitira, urte horietan jarri zirelarik egungo Euskal Herri berriaren oinarri materialak eta ideologikoak. Beraz, XIX. mendeak Euskal Herri politikoa aurkitu bazuen eta XX. mendea Euskal Herria eraldatu zuen mendetzat hartu badaiteke, 1950etik 1960rako eraldaketa hori ahalbidetu zuen hamarkada gisa hartu behar dugu. Hamarkada isila, iluna ere, baina berpizkundearen baldintzak jarri zituen. Hamarkada honen esanahi sakona eta eduki duen garrantzi estrategikoa gaurko perspektibarekin hobeto ulertzen da eta hobeto nabari daiteke orduan gertatu zen iraultza ikusezina. Egongo da hamarkada deigarriagorik, baina erabakigarrienen artean dago aztertzen gaudena.

Demografikoki ere, hamarkada horretan urrats garrantzizkoak egiten dira; oinarri demografikoak aldatzen hasi eta populazio mugimenduek aro berri bat iragartzen dute. Oinarri demografikoez gain, gure gizartearen ezaugarri sozial ugari berriztatu ziren, euskalgintza eta abertzalegintza erroka etniko berrien abiapuntuan ipiniz.

Berrikuntza horren testuingurua kokatzen hasteko, esan beharra dago XX. mendean Hego Euskal Herrian populazioa ia hirukoiztu egin dela. Miliroi bat biztanlerekin hasi eta ia hirurekin amaitu zuen. Bilakaera horretan, kopuruaren arabera ordenatuta, hazkunderik handienak 60 eta 50eko hamarkadetan gertatu ziren. Gorabeherarik egon da lurraldeei dagokienean, esaterako 80ko hamarkadan industri krisiaren eraginez Gipuzkoak eta Bizkaiak bizi izan zutena, itzulerako emigrazioak eta beste tokietaranzko berremigrazioek lurralde horien biztanle kopurua gutxitu zutelarik. Nafarroak, Arabak eta Lapurdik, ordea, hamarkada guztietan gora egin dute. Nafarroa Behereak hamarkada guztietan eta Zuberoak ia denetan behera egin dute.

1. taula. Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera  
XX. mendean (1900-2001)

	<i>Euskal Herria</i>	<i>Hegoaldea</i>	<i>Iparraldea</i>	<i>EAE</i>	<i>Nafarroa</i>
1900	1.085.582	911.265	174.317	603.596	307.669
1910	1.169.936	986.023	183.913	673.788	312.235
1920	1.273.419	1.096.650	176.769	766.775	329.875
1930	1.434.362	1.237.593	196.769	891.710	345.883
1940	1.519.125	1.325.382	193.743	955.764	369.618
1950	1.638.356	1.444.172	194.184	1.061.240	382.932
1960	1.978.738	1.773.696	205.042	1.371.654	402.042
1970	2.562.140	2.343.503	218.637	1.878.636	464.867
1981	2.879.093	2.642.130	236.963	2.134.763	507.367
1991	2.882.371	2.632.572	249.799	2.109.009	523.563
2001	2.901.357	2.638.416	262.941	2.082.587	555.829

Iturriak: INE, Eustat, Datuen Talaia.

1. taulako datuen arabera, 50eko hamarkadan Euskal Herriak 340.000 biztanle irabazten ditu eta 60ko hamarkadan beste 580.000; beraietatik, ia gehienak egungo Erkidegora datoz, batez ere, Bizkaira eta Gipuzkoara. Hartara, 50eko hamarkadako datuei erreparatuta, Bizkaiak bariazio horren %54 bereganatu zuen eta Gipuzkoak %30. Arabak eta Nafarroa Garaiak irabazpen horretatik guztitik %12 barne hartzen dute; eta, azkenik, Iparraldeak orotara %3,2, baina Lapurdiren irabazpenari esker, hamar urte horietan Nafarroa Behereak eta Zuberoak biztanleria galdu egiten dute eta.

2. taula. Euskal Herriko biztanleriaren hazkunde metatua eta hazkunde tasa (1901-2001)

	<i>Biztanleria</i>	<i>Hazkundera</i>	<i>Hazk. metatua</i>	<i>Hazk. tasa</i>
1901-10	1.085.582	84.354	84.354	7,8
1911-20	1.169.936	103.483	187.837	8,8
1921-30	1.273.419	160.943	348.780	12,6
1931-40	1.434.362	84.763	433.543	5,9
1941-50	1.519.125	119.231	552.774	7,8
1951-60	1.638.356	340.382	893.156	20,8
1961-70	1.978.738	583.402	1.476.558	29,5
1971-80	2.562.140	316.953	1.793.511	12,4
1981-90	2.879.093	3.278	1.796.789	0,1
1991-00	2.882.371	18.986	1.815.775	0,7
2001	2.901.357			

Iturriak: INE, Eustat, Datuen Talaia.

Bigarren taulan hazkunde tasak agertzen dira, eta ikusten da nola bi hamarkada erabakigarri horietan hazkunde tasa oso handia den. Esanguratsuen 1960-70 hamarkadako da, biztanleria hamar urtetan %30 hazten delarik; baina aurrekoan %20 hazia zegoen, eta ez da gutxiestekoa 1970-80 hamarkadako, %12. Azken hau lortzea zaila zen, abiapuntua ere askoz gorago zegoen eta.

Hazkundera lurraldeka ikertzeko eta hazkundera nola banatzen den aztertzeko 3. taulara joko dugu (ikus artikulua amaieran). Bertan, 1950etik 1970era doan epeari so egitea erabaki dugu, soziologikoki perspektiba luzeago batek hobeto azalduko duelakoan Euskal Herrian eta, bereziki, Hegoaldean gertatzen den eraberrikuntza soziala eta, berarekin bat, baita kultural eta politikoa ere. Hogei urteko tarteari erreparatzea tendentzia luzeagoa kontuan hartzea da, eta beronek erakusten digu ibilbide jarraitu baten aurrean gaudela.

Hogei urte horien bukaeran, 900.000 biztanle gehiago bizi da Euskal Herrian: 817.000 egungo Erkidegoan (Bizkaian ia 500.000, Gipuzkoan 250.000 eta Araban 85.000) eta 80.000 Nafarroan. Iparraldearen ekarpena ia 25.000 biztanlekoa da, Lapurdik duen hazkunderari esker, gainontzeko bi lurraldeak, Nafarroa Behereak eta Zuberoak, konstanteei eutsiz, biztanleria galdu egiten dute-eta epealdi horretan.

Beraz, ikaragarria da bi hamarkada horietako aldaketa demografikoa, eta neurri batean orduko datuek geroagoko joerak baldintzatzen dituzte. Bizkaiak eta Gipuzkoak irekitako hazkunde bideari hamarkada bat beranduago Arabak eta Nafarroak eutsiko diote. Hortik aurrera, eta kopuru handietan Hegoaldean gertatzen denak Euskal Herri osorako balio duen neurrian, Ruiz Olabuenagaren esanetan, Euskal Herriko biztanleriatik %40 bertakoa da, heren bat batez ere Espainiatik etorria, eta beste heren bat-edo ezkontza misto bateko edota immigranteen seme-alabez osatua dago. Gaurkoen immigrazio berrien kontrara, ordukoak batez ere Bizkaia eta Gipuzkoara intentsitate handiagoz abiatu ziren. Gaurkoak Nafarroa eta Arabara. Atzo eta gaur, garrantziz-

koena lan eremu ezberdinen erakargarritasuna da. Orduan, industria; gaur egun, eraikuntza, nekazaritza eta zerbitzu pertsonalak. Iparraldean, joera demografikoak erabakita zeuden: Lapurdik gora egingo du etengabe eta Nafarroa Behereak eta Zuberoak behera.

Ondorioz, interesgarria da Euskal Herriko populazioaren lurraldekako banaketak ezagutu duen bilakaera ikustea. Lau data ezberdin erabili ditugu konparazio hau egiteko, eta bildu egin ditugu Nafarroa Behereko eta Zuberoako populazioaren pisuen ehunekoak, biztanleriaren osaeran bien ekarpena oso eskasa baita. Besteak beste, datu hauen arabera:

- 1950 eta 1970 urteen artean, gaur Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurraldeek populazioaren %73 hartzen dute, ia 10 puntu irabaziz, Nafarroak eta Iparraldeak galtzen duten kopuru berbera.
- 2001 urtea erreferentziatzat hartuta, azken hogeita hamar urteetan, berrorekatzeko baten ondorioz, Bizkaiak eta Gipuzkoak galdutako garrantzi erlatibo xumea Nafarroak, Arabak eta Lapurdik berreskuratzen dute.
- Iparraldeak pisu erlatiboa galtzen du 1950 eta 2001 urteen artean.

4. taula. Euskal Herriko biztanleriaren banaketa lurraldeka (%) (1950-2001)


	1950	1960	1970	2001
Araba	7,2	7,0	8,0	9,9
Bizkaia	34,7	38,1	40,7	38,7
Gipuzkoa	22,8	24,2	24,6	23,2
Nafarroa	23,4	20,3	18,1	19,2
Lapurdi	8,4	7,6	6,5	7,5
Nafarroa Beherea	2,1	1,7	1,3	1,0
Zuberoa	1,3	1,0	0,8	0,5
<i>Oso tara</i>	<i>100</i>	<i>100</i>	<i>100</i>	<i>100</i>

Iturriak: INE, Eustat, Datuen Talaia.

Ez dugu datu zehatzik edo bateraturik jakiteko ea zein zen 1950 edota 1960 urteetan jatorriaren araberako Euskal Herriko biztanleriaren konposizioa. Lehen datuak 1970ekoak

eta Hegoaldekoak dira. Nolanahi ere, hipotesi modura, Iparraldeko konposizioa Hegoaldekoa baino euskaldunagoa zela esateko arrazoi nahiko dagoela esan daiteke. Beraz, Hegoaldera mugatuta eta sorterrria hiru kategoriatan laburbilduz (euskal herria, espainia eta atzerria) lurralde ezberdinen konposizioa lehen grafikoa ikus genezake (1. grafikoa).

1. grafikoa. Hegoaldeko herrialdeen osaera etnikoa (%) (1970)



Iturria: Egileak sortua, INEren datuetan oinarrituta.

Grafiko horrek erakusten digu, Hegoaldeko %71 euskal herrialde ezberdinetan jaioa zela, %29 Espainian eta %1 atzerrian. Lurraldeei erreparatzen badiegu, lurralderik euskaldunena Nafarroa zen garai hartan, bertan jaioak %84 zirelarik; eta Bizkaia beste muturrean kokatzen zen, lurralde horretako %64 zen Euskal Herrian jaioa. Orduko datuek aditzera ematen dute ere atzerriko populazioa ez zela esanguratsua. Datu hauek irakurtzeko momentuan pentsatu beharra dago 1970erako kontsolidatu egin zirela 1960 urtean aurreikusten ziren joerak. Beraz, erreferentziatzat hamarkada bat edo beste hartu, garai hartako emaitzarik esanguratsuena Euskal Herriko biztanleriaren konposizio etnikoaren osaeraren eraberrikuntza da. Datu hori da ikusmolde berrietan integratu behar dena, eta bi hamarkada horietan sortuko diren ikuspegi sozial, kultural eta politikoetan erronka horiei erantzuten zaie, zuzen edo zeharka. Panorama soziodemografiko berriei ikusmolde berriak dagozkie, gaurkotze horixe egin zelarik 1955 eta 1970 urteen artean.

Neurri batean, datu horiek 30 urte beranduago, 2001ean, baieztatu egiten dira. 2. grafikoan ikusten den moduan, Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkestatik hartua, hamabost urtetik gorako biztanleen banaketa agertzen da; norberaren eta gurasoen jatorriaren arabera: Euskal Herriko biztanleriaren erdia bertakoa da eta bertako gurasoak ditu. Laurden bat bertan jaioa da, baina gurasoetatik gutxienez bat etorkina du eta, azkenik, beste laurden bat legoke Euskal Herritik kanpo jaioa. Herrialdeetan, etnikoki euskaldunena Zuberoa da eta etorkinen eraginik handienakoa Lapurdi, herenera ere ez da heltzen bertan jaiotakoen kopurua. Gainontzeko herrialdeak, osaera ezberdinekin, tartean leudeke. Zuberoaz gain, bertakoen artean Nafarroa biak eta Gipuzkoa dauzkagu. Batez bestekoaren azpitik, Bizkaia, Araba eta, aipatu bezala, Lapurdi.

2. grafikoa. Euskal Herriko 15 urtetik gorako biztanleen osaera etnikoa (2001)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2001. Datuen Talaiatik hartua.

Biztanleria osoaren bilakaeraren datuak errebisatu ondoren, orain 1950eko hamarkadako migrazio fluxuen datuei erreparatuko diegu. Aditu askok esan duen moduan, Euskal Herriko migrazio mugimenduen estatistika egokirik osatzea

ezinezkoa da. Gaurkoak biltzea zaila bada, zer esan iragane-ko datuei buruz. Beraz, ez dugu estatistika iturririk, modu estandarrik, gerra ostean Euskal Herritik emigratu zutenen datuak jakiteko; gehienak proiektzioak dira eta erabiltzen diren hainbat datu sinestea benetan zaila egiten zaigu, diasporarekin lotuta leudekeenak esaterako, lau eta bederatzi milioi tartekoak bozeramaile ezberdinen hitzetan. Gainera, daturik zehatzenak 60ko hamarkadatik aurrerakoak dira.

Edozelan ere, askotan soziologikoki garrantzi handiagoa du tendentziak aurkitzeak datu zehatzek argituko liguketen informazioak berak baino. Hainbat adituren ustez, immigrazio prozesuen datu zehatzak bilatzeko obsesioak gehiago adierazten du neurtzailearen asmoaz immigrazioaz beraz baino. Horrela, datuen mugak kontuan hartuta, bereizten saiatuko gara aipatu hazkundetik zenbatekoa den biztanleriaren berezko hazkundeari dagokion kopurua eta zenbatekoa migrazioen saldoari dagokiona. Immigrazioaren saldora heltzeko, berezko hazkundera ezagutu behar da, immigrazio saldoaren kalkulua formula hau behar du eta: populazioaren aldaketari berezko hazkundera (=jaiotakoak-hildakoak) kendu. Negatiboa bada joandakoak etorritakoak baino gehiago dira eta positiboa bada etorri direnak joandakoak baino gehiago.

Berezko hazkunderaren datuak Hegoaldera mugatzen dira. Datuon arabera, 1950eko hamarkadan berezko hazkundera positiboa izan zen, hau da, jaiotzak heriotzak baino gehiago izan ziren, eta saldo hori 185.540 pertsonakoa izan zen. Gainera, herrialdeka ere baditugu datuak.

5. taula. Berezko hazkundera Hegoaldean herrialdeka (1951-60)

1951-60	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Guztira
Jaiotzak	25.374	88.816	77.897	136.148	328.235
Heriotzak	12.243	36.931	38.759	54.762	142.695
Saldoa	13.131	51.885	39.138	81.386	185.540

Iturria: egileak sortua, INEren datuetan oinarrituta.

Datu horiek hazkunde orokorrari aplikatuta, gutxienez Hegoaldeko migrazio saldoa lortzera hel gitezke. Ikus de-

zagun, beraz, 6. taulan, nola geratzen zaizkigun eskura ditugun datuen arabera saldoak.

6. taula. *Migrazio saldoa Hegoaldean herrialdeka (1951-60)*

	<i>Biztanleriaren bilakaera</i>	<i>Berezko hazkundera</i>	<i>Migrazio saldoa</i>
Euskal Herria	340.382		
Hegoaldea	329.524	185.540	143.984
EAE	310.414	146.402	164.012
Iparaldea	10.858		
Bizkaia	185.195	81.386	103.809
Gipuzkoa	104.297	51.885	52.412
Araba	20.922	13.131	7.791
Nafarroa	19.110	39.138	-20.028
Lapurdi	12.188		
Zuberoa	-201		
Nafarroa Beherea	-1.129		

Iturria: egileak sortua, INEren datuetan oinarrituta.

Taula horren arabera, hainbat ondorio atera daitezke:

1. Hamarkada honen hazkunderik nabarmenena Hegoaldean gertatu zen, hazkunde osoaren ia %97. Beraz, Hegoaldeko datuekin ia migrazio fluxuen osotasuna azaltzen dugu. Egia esan, taula horretatik kanpo 10-15.000 pertsona geratzen da, kopuru horri afektatu baitzioten hala hazkunderak nola galerak Iparraldean.

2. Taula horretan migrazio saldora heltzen gara, baina azaldu gabe geratzen zaizkigu saldo horren atzean ezkutatzaren diren mugimenduak. Hala eta guztiz ere, horrez gain, ez dakigu zenbat jende etorri zen eta zenbat joan zen, saldoa etorkinei joakinak kendu ondoren lortzen baita.

3. Muga horien barne, Hegoaldeko migrazio saldoa, positiboa, ia 144.000 pertsonakoa da. Oso kontuan hartzekoa da Erkidegokoa askoz altuagoa dela eta Nafarroak arindu egiten duela bere saldo negatiboaren eraginez. Nafarroak hamarkada horretan 20.000 pertsona galtzen ditu. Seguruena, saldo horrek bi kausa nagusi ditu: atzerrira doan nafar biztanleriaren kopurua eta baita barne migrazioen ondorioz beste bi euskal lurraldetara (Bizkaia eta Gipuzkoa) abiatzen dena.



4. Hegoaldetik atzerriranzko emigrazioa astiro-astiro gutxituz joan zen (ikus 7. taula), baina 20.000 pertsona inguru joan zen lau lurraldeetatik, Ameriketara ia gehienak.

5. Arabak ere migrazio saldo eskasa bereganatzen du urte tarte horretan, 7.800 pertsona inguru.

6. Bizkaiak eta Gipuzkoak duten migrazio saldo positiboa oso handia da.

7. Laburtzeko, 20.000 euskaldun atzerrira joan omen zen, barne migrazioak oso kopurutsuak izan ziren eta Hegoaldearen migrazio saldo positiboa 144.000 etorkinekoa izan zen. Datu horiek guztiek gizarte aldaketa sakon baten aurrean gaudela aditzera ematen dute.

8. Iparraldeko datu zehatzik ez dago, baina Nafarroa Beherean eta Zuberoan emigrazio kopurutsuak egon behar izan ziren, orduko garaietako berezko hazkundea positiboa izanik populazioa galtzen dutelako. Gehienak Frantziara abiatu omen ziren, eta gutxi batzuk Ipar Amerikara.


Aipatu dugun moduan, Hegoaldeko emigrazio transozeanikoaren kopurua ezagutzeko INEren urtekari estatistikotara joko dugu. Alde batetik, orduko garaietan Europaranzko emigrazioa ez zen oso garrantzizkoa, eta itsasoz eta hirugarren klasean egiten zena bakarrik neurtzen zen, uste baitzen hori zela benetan emigrazioa. Horrelako irizpideekin ikusten da ezen neurtzeko tresnak beti garai bakoitzeko definizio sozial dominatzaileen arabekoak direla.

Estatu espainiarrak bi emigrazio fluxu handi ezagutzen ditu XX. mendean. Lehena, lehen hiru hamarkadetan, batez ere Ameriketara zuzendua. Bigarrena, 60ko hamarkadatik aurrera, Ameriketara hasieran eta Europara beranduago. 3. grafikoak erakusten duen moduan, Espainian ez zen emigrazio ekonomikoa gelditu gerra ostean, baina bai zeharo gutxitu. Espainiatik hiru milioi pertsona abiatu zen atzerriara 1900 eta 1940 artean.

1940 eta 1960 urteen artean, 500.000 etorkinek uzten du Espainia. 3. grafikoan ikus daitekeen moduan, bilakaera menditsuan dagoen lautada bakarra gerra ondoko bi ha-

markadetakoa da. Kopuru horretatik, 280.000 etorkin Ameriketara doa, 200.000 Afrikara eta 20.000 inguru Europara.


3. grafikoa. Espainiako emigrazioak (1887-1981)



Iturria: egileak sortua, INEren urtekari estatistikoetan oinarrituta.

Besteak beste, emigrazio horren jomugak aldatuz doaz eta betikoak —Hego Amerika— ahultzen dira. 4. grafikoan oso ondo ikusten da Espainiatik abiatzen direnak hamarkada ezberdinetan norantz abiatu diren eta zein kopurutan.

4. grafikoa. Espainiako emigranteen jomugak kontinenteka (1900-1980)



Iturria: egileak sortua, INEren urtekari estatistikoetan oinarrituta.

Azkenik, Hegoaldeko datu batzuk eskuratu ditugu, Hegoaldetik atzerrira joan zirenekin eta atzerritik Hegoaldera etorri zirenekin. Datu hauen arabera, Hegoaldetik atzerrira 19.256 joan ziren eta 7.359 etorri. Beraz, 11.900 pertsona inguruko saldo negatiboa. Joan zirenetatik gehienak bizkaitarrak izan ziren, 10.500 joakin, emigrazioaren %54. Gipuzkoar eta nafarrak %20 inguru dira eta Arabatik gutxi batzuek emigrazten dute, 750 emigrantek. Emakume eta gizonezkoen ehunekoak nahiko antzekoak dira; beraz, emigrazio horrek ez zuen, oro har, emigrazio historikoaren pautarik jarraitzen eta, seguruenik, famili emigrazioa zen. Itzuli zirenen artean, pauta gizonezkoen aldekoagoa da, baina ez oso deskonpentsatua. Bizkaira jotzen dute ia erdiek eta ia laurden bana Gipuzkoa eta Nafarroa Garaira.

Esan bezala, datu hauekin saldo estandarrik egiterik balego, hamarkada honetan ia 12.000 pertsona galtzen ditu Hegoaldeak emigrazioaren kontura; baina esanguratsuagoa izan daiteke ia 20.000 euskaldunek emigratu zutela bertako baldintza ekonomikoak hobetzen ari zirenean eta emigrazio espainiarrera bertako gune industrialetara etortzen hasia zenean.

7. taula. Hegoaldeko herrialdeen emigrazio eta immigrazioak (1951-60)

<i>Atzerrira joandakoak</i>	<i>Gizonezkoak</i>	<i>Emakumeak</i>	<i>Guztira</i>	<i>%</i>
Araba	414	330	744	3,9
Bizkaia	5.334	5.164	10.498	54,5
Gipuzkoa	2.266	1.938	4.204	21,8
Nafarroa	2.086	1.724	3.810	19,8
<i>Guztira</i>	<i>10.100</i>	<i>9.156</i>	<i>19.256</i>	<i>100</i>
<i>%</i>	<i>52,5</i>	<i>47,5</i>	<i>100</i>	
<i>Atzerrira etorriak</i>	<i>Gizonezkoak</i>	<i>Emakumeak</i>	<i>Guztira</i>	<i>%</i>
Araba	237	149	386	5,2
Bizkaia	1.805	1.618	3.423	46,5
Gipuzkoa	969	722	1.691	23,0
Nafarroa	1.092	767	1.859	25,3
<i>Guztira</i>	<i>4.103</i>	<i>3.256</i>	<i>7.359</i>	<i>100</i>
<i>%</i>	<i>55,8</i>	<i>44,2</i>	<i>100</i>	
<i>Saldoa</i>	<i>5.997</i>	<i>5.900</i>	<i>11.897</i>	

Iturria: egileak sortua, INEren urtekari estatistikoetan oinarrituta.

Datu hori konfirmatzeko badugu beste bat ere, INEren urtekarietan oinarrituta, Bilboko portutik hamarkada horretan bidaia transozeanikoetan atera zirenekin. Ez dago datu desagregaturik, ez dakigu zenbatean Bilbo zen erabilitako portu bakarra, edo Santanderrekoa ere erabiltzen ote zen, eta ezin daiteke jakin ere nora jotzen zuten, baina oker handirik gabe gehienak Latinoamerikara zuzendu zirela esan daiteke.

8. taulan ikusten den moduan, ia 22.300 bertako joan zen eta 2.100 etorri, beraz 20.000 pertsonako galera ezagutzen du euskal biztanleriak mugimendu horiek kontuan hartuta. Atzerritarren datuak ere biltzen ditu urtekari horrek. Nolanahi ere, urteak igaro ahala, daturik deigarriena joandakoen kopuruaren urritzea da. Hau da, joan zirenetatik ia %65 1954rako joan zen. Hortik aurrera, kopurua gutxituz doa hala zenbaki absolutuetan nola erlatiboetan.

8. taula. *Bilboko portutik atzerrira doazen eta atzerritik datozen bertako eta atzerritarrak (1951-60)*

	<i>Bertakoak</i>				<i>Atzerritarrak</i>			
	<i>Joandakoak %</i>		<i>Etorritakoak %</i>		<i>Joandakoak %</i>		<i>Etorritakoak %</i>	
1950	4.837	21,7	399	19,1	503	17,3	346	13,5
1951	3.888	17,5	218	10,4	582	20,1	343	13,4
1952	3.281	14,7	219	10,5	362	12,5	702	27,3
1953	2.317	10,4	138	6,6	320	11,0	41	1,6
1954	1.791	8,0	108	5,2	391	13,5	509	19,8
1955	1.727	7,8	147	7,0	304	10,5	478	18,6
1956	1.167	5,2	176	8,4	220	7,6	31	1,2
1957	1.136	5,1	233	11,1	91	3,1	45	1,8
1958	829	3,7	249	11,9	128	4,4	72	2,8
1959	1.305	5,9	206	9,8		0,0		0,0
<i>Oso tara</i>	<i>22.278</i>	<i>100</i>	<i>2.093</i>	<i>100</i>	<i>2.901</i>	<i>100</i>	<i>2.567</i>	<i>100</i>

Iturria: egileak sortua, INEren urtekari estatistikoetan oinarrituta.

Beste datu batzuek ere hipotesi berbera mantentzen laguntzen dute; horrela, uste da Iparraldetik 80.000 lagunek emigratu zutela XX. mendearen aurretik, orduko Iparraldeko biztanleriaren laurdenak. Eta euskal emigrazioak, oro har, lau aro ezberdin izan omen ditu:

1. Goiztiarra, batez ere Iparraldean 1860 urtea baino lehenagokoa.

2. 1880 eta 1914 urteen artean, Hegoaldeko emigrazioak Iparraldekoak baino kopurutsuagoak dira. 1910 urtetik aurrera Iparraldekoa geldiarazi egiten da.

3. 1936 eta 1945 urteen artean, emigrazioetan arrazoi politikoak nagusitzen dira.

4. 1950 urtetik aurrera euskal emigrazioa ia desagertuz doa.

Horren guztiaren inguruan datu eztabaidagarriak egon badaitezke ere, eta tokiko emigrazio deigarriak badaude ere, gizarte fenomeno gisa aztergai dugun hamarkadan euskal emigrazioa ia desagertutzat eman beharra dago. Nolanahi ere, garrantzizkoenak ez dira datuak, datuok suposatzen dutena baino. Horrela, beste kontu bat hauxe da: heldu den immigrazioak eta etorriko denak euskal gizartearen osaera demografikoan dakarren eraberrikuntzari nola egingo zaion aurre euskalgintzan eta doktrina nazionalistan. Horrela, lehen immigrazioak, XIX. mende amaierakoak, nazionalismoaren sorreran eragin erabakigarria izan bazuen, bigarren immigrazio honek ere abian den nazionalismo berriaren sorkuntzan eragina eta toki propioa du. Hamarkada honetan, immigrazioa erronka berri bat da nazionalismoaren errebisioan, sabinismoaren bazterketan eta etnizitatea ulertzeko modu berrituetan. Horra hor bere garrantzia.

XIX. mendeko immigrazioak lehen abertzaletasunean garatu zituen xenofobia eta antiespainolismoa gainditu gura ditu 50. hamarkadako etnikotasun eraberrituak. Doktrina sabindarrak pentsatzeko modu abertzaleak zeharo mugatu zituen, desegokiak ziren deskolonizazio garai berrietarako eta horrek doktrinaren gaurkotzea eskatzen zuen abertzaletasunaren imajinarioan, gaurkotze berorri gertatzen ari baitzen euskararen inguruan, euskal kulturako hainbat ekimenean, nobelagintzan, politikan, gizartean, sindikalgintzan, etab. Elite berri gazte batek, aurreko ikusmoldearekiko loturak hausteko asmoarekin, etnizitatearen ulerkera berri bat plazaratuko du, balizko bereizgarri objektiboen ordeztu

beraren borondatean oinarritutako aukerazko subjektiboe-tara iragateko. Azken finean, etnizitatearen ulerkeran, pa-tuaren identitate saihestezinetik hautazko identitatera pasa-tu gura zen. Bide horretatik, proiektu politiko berriko sub-jektuak oinarri zabalagoa izan zezakeen, borondatez inkor-poratzan zen edonorentzat zabalik zegoen eta.

Berrikuntza etorri zen, euskaldun izan zitekeelarik bertan lan egiten zuen eta euskaldun sentitzen zen oro; baina kon-tua da bi osakinetatik bat baino ez zela aldatu: xenofobiare-na. Antiespainolismoa mantendu egin zen. Antiespainolis-moa ez zen, uste bezala, bazter uzteko moduko osakina, et-nizitatearen gakoa baino. Elementu subjektiboen aldeko al-darriekin eta osakin objektiboen ahultze soilarekin, errebi-sioa erdibidean geratzen zen batzuen ustez, eta gainditua beste batzuenan.

Amaitzeko, 50eko hamarkadan, euskalgintzan eta aber-tzaletasunaren lehen aroan jarri ziren oinarriak aldatu zi-ren, horren atzean gizarte aldaketa sakon baten lehen sinto-mak sumatu baitziren. Datozen urteotan ere aldaketa na-barmenak etor daitezke hala demografian nola gizartean. Hor egongo da *Jakin* aldaketen berri emateko, ezinbesteko lekukoa. Bizi luzea eta emankorra izan dezala. Ea ordurako datu bateraturik emateko parada dagoen.

Baina, gauza guztien gainera, zorionak!¶

### **Bibliografia**

- Askoren artean, *Euskal AEko ikuspegi soziala. 2000. Panorámica social de la C.A. de Euskadi*, Eustat, Gasteiz, 2000.
- Aztiker, *Euskal Herria. Datuen Talaiatik 2006*, Txalaparta, Donostia, 2006.
- Aztiker, *Euskal Herria. Datuen Talaiatik*, Txalaparta, Donostia, 2002.
- Gurrutxaga, A., Pérez-Agote, A. eta Unceta, A., *Estructura y procesos sociales en el País Vasco*, Argitarapen Zerbitzua, EHU, Bilbo, 1990.
- Ipar Hegoa Ikasketa Sindikaletarako Fundazioa eta Gaindegia, *Euskal Herria eskualdeka. Egoera sozio-ekonomikoaren argazkiak*, Iruñea, 2006.
- Luxán, Marta, «Demografía y movimientos migratorios. 1932-2002», in *Dictadura, democracia y autogobierno. La nueva sociedad vasca 1937-2004. Historia de Euskal Herria*, 6. liburukia, Lur, Bilbo, 2004.
- Ruiz Olabuenaga, J.I. eta Blanco, C., *La inmigración vasca. Análisis trigeneracional de 150 años de inmigración*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1994.

Eta, batez ere:

Eustat: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

INE: [www.ine.es](http://www.ine.es)

3. taula. Euskal Herriko biztanleriaren hazkundea eta hazkundearen banaketa lurraldeka (%) (1950-70)

	Biztanleria		1970	1950-1960		1960-70		1950-70	
	1950	1960		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskal Herria	1.638.356	1.978.738	2.562.140	340.382	100	583.402	100	923.784	100
Hegoaldea	1.444.172	1.773.696	2.343.503	329.524	96,8	569.807	97,7	899.331	97,4
EAE	1.061.240	1.371.654	1.878.636	310.414	91,2	506.982	86,9	817.396	88,5
Araba	118.012	138.934	204.323	20.922	6,1	65.389	11,2	86.311	9,3
Bizkaia	569.188	754.383	1.043.310	185.195	54,4	288.927	49,5	474.122	51,3
Gipuzkoa	374.040	478.337	631.003	104.297	30,6	152.666	26,2	256.963	27,8
Nafarroa	382.932	402.042	464.867	19.110	5,6	62.825	10,8	81.935	8,9
Iparraldea	194.184	205.042	218.637	10.858	3,2	13.595	2,3	24.453	2,6
Lapurdi	138.405	150.593	166.920	12.188	3,6	16.327	2,8	28.515	3,1
Nafarroa Beherea	35.056	33.927	32.360	-1.129	-0,3	-1.567	-0,3	-2.696	-0,3
Zuberoa	20.723	20.522	19.357	-201	-0,1	-1.165	-0,2	-1.366	-0,1

Iturriak: INE, Eustat, Datuen Talaia.



# 50eko hamarkada: langileriaren historiarako gunea

**EMILIO MAJUELO**

NUPEko Geografia eta Historia Saileko irakaslea

## Hamarkada iluna

50eko hamarkada historiaren iluntasunean gelditu bada, garrantzi historiko gutxikoa delako edota agian garai horretaz oraindik gutxi dakigulako izan daiteke. Duela ez asko argitaratua izan den ikerketa landu batean epe kronologiko horri «hamarkada iluna» deitu diote (Pérez Pérez 2001, 234). Dena den, tarte kronologiko hori oso ikertua izan ez bada ere, urte horietan gertatutakoak garrantzi handia izan duela ezin da ukatu; eta beste gauza askoren artean, langileriaren historiarako funtsezko gunea izan zela kontsidera daiteke.<sup>1</sup>

## Gerra ondoko lehenengo grebak

Urte haietan suertatutako langile eta gizarte gatazka askoren berri izan, badugu. Greba entzutetsuak Bilboko ezker aldean, Donostian, Gasteizen, baita Nafarroan ere, 1951n izan zirenak (Garmendia eta Elordi 1982, 246-248). Emilio Lopez Adan *Beltza*-ren aburuz, Euskal Erresistentziak grebarako deia egin zuen urte horretako martxoan Bartzelonako tranbia grebalariekin solidaritatean. Bai, horrela izan zen

greba horren hasiera, baina ez dirudi Euskal Gobernuak bulztatutako deialdi horren eduki politikoak grebaren garapean funtsezko garrantzi handirik izan zuenik. Dena den, zentzu politiko horrez gain, langileen protesta jasan ezineko egoera ekonomikoan oinarritu zen; hain tamalgarria zen eguneroko bizitza, ezen beste hainbat arlo sozialetako langileek bat-bateko borrokan parte hartu baitzuten (Beltza 1977, 74-76). Apiril eta maiatzeko grebak erresistentziarako azken aukerak izan ziren estatu espainiarrean oposizioa egiteko. Euskal Gobernuaren Kontseilu Delegatuak bere papera bete zuen, baina grebak, behin hasita, dinamika propioa hartu zuen. Alta, Iruñeko greba eskema horretan salbuespen bat izan zen, zeren Nafarroako kasuan EAJko buruzagiek harri-duraz ikusi zuten nola piztu zen greba Iruñean eta nola zabaldu zen gero Lizarra eta Tuterara ere. Ez zen ez txikia izan Nafarroan buruzagi nazionalistek jaso zuten sorpresa, baina poliziarena ez zen haren atzean gelditu, ezin baitzuten ongi azaldu nola sor ote zitekeen nafar lurralde karlista eta frankistan horrelako gatazka soziala.<sup>2</sup>

Errepresioak laster kolpatu zituen langile ekimen horretan izan ziren protagonistak. Gasteizen 16 pertsona epaitu zituzten gerla kontseiluan, eta apaiz batzuek, *Egiz*-eko taldekideak hain zuzen, enpresaburu batzuek eta Ekintza Katolikoaren zenbait langilek zigorra, isuna edota atxiloketa jasan behar izan zuten (De Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz 2001, 199). Bizi baldintzak okerrera egiteaz gain, ez da ukatu behar borrokarekiko tradizioz gabeko langile talde berriek parte hartu zutela greba horretan, nahiz eta talde horien garrantzia benetan nabaria ez izan 1960ko hamarkada arte. Mundu katolikotik zetozen zenbait militantek 1950eko hauteskunde sindikaletan parte hartu zuten. Orokorrean, ikusten zen nola ari zen gazte andana, gelditu ezineko mugimendu batean bezala, lan merkatuan sartzen. Horrela, erakunde katoliko horiek indartuz joan ziren, langileen artean murgiltzen ari ziren heinean militante historikoak ordezkatzuz eta erakunde klasikoak baztertuz (Pérez Pérez 2001, 235).

Bi urte beranduago, 1953an, beste greba batzuk izan ziren Bizkaian eta Gipuzkoan, behin eta berriro soldaten igoera eskatuz (eta nolabait lortuz). Hemendik aurrera gobernu frankistaren politika ekonomiko berriaren ondorioak zabalduz joan ziren. Hurrengo hilabeteetan errazionamendua desagertuz joan zen, hiri merkatuak hobeto horniturik egoten hasi ziren eta jendea estutasun gorritik ateratzen; baina hazkunde ekonomikoarekin batera merkantzia eta produktuen prezioak igo ziren, eta nahiz eta Gobernuak soldaten igoera eta soldata minimoaren eskala mugikorra bultzatu, inflazioak gorantz egin zuen soldaten balio erreala gutxiaraziz.

1956an soldaten eta inflazioaren arteko lasterketa mantendu zen. Nahiz eta langileek eskatzen zuten igoera handia izan, ez zuten burua makurtu gatazka piztu zenean. Errealitate sozial berri bat sortzen ari zen, eta langileek testuinguru berri horretan gero eta gehiago zuten esateko. Gobernuak soldaten igoera esanguratsua onartu zuen baina, denbora berean, enpresa handienetako langileen artean borroka antolatzeko modu berriak sortu ziren. Enpresa haietan 'enpresa batzorde bat' eratu zen; gero, beste maila altuago batean, lantegiko batzorde horien beste batzorde bat izendatu zen beraien interesak defendatzeko, botere politikoaren nahiz enpresetako ordezkarien aurrean negoziazioei ekiteko, langile jarduerari egitura bat emanez. Borroka zortzi astetan zehar luzatu zen; gero errepresioa ederra izan zen, ehunka langile bere bizitokitik deserriraturaz eta 'Batzorde Gorena' desagerraraziz. Hala ere grebek etorkizunari begira eman zituen fruituak; eta ez soldaten arloan bakarrik, zeren eta handik gutxira Gobernuak lege berri bat, Hitzarmen kolektiboen legea hain zuzen, aldarrikatu zuen. Gobernuaren irteera hori benetan bitxia zen; izan ere, berez, onartzen zen tramankulu sindikal hark garaiko langile eta enpresaburuen arteko arazoak konpontzeko (soldatak edo lantegiko lan harremanak, kasu) ezin zuela balio. Lege horren arabera, enpresetan lan baldintzak eta soldatak enpresaburuen eta langileen arteko ordezkariak hitzartu ahal izango zituzten,

nahiz eta negoziazioak Sindikatu Bertikaleko egituran egiteko beharra mantendu. Bestalde, handik urte gutxi barru Langile Batzordeak sortu ziren, hau da, langileriaren mugimendu berriaren ikur modernoa, langileen abiapuntu bateratua, ideologikoki zabalik, klaseko erakundea (Amsden 1974). Azken finean, 1956ko Bizkaiko 'Batzorde Gorena' geroko langile batzordeen aitzindaria izan zen.

1953an eta batez ere 1956an eta 1958an, greba uholdeak errepikatu zirenean, pentsatzekoa zen zer motatako une historikoa bizitzen ari zen. Nola azaldu ahal izango zuten frankistek, gerla odoltsua irabazi ondoren, ia erabat desagertutzat jotako langile mugimendua, antzina bere etsai gogorrenetarikoa bat izandakoa, urrats nabariak egiten ari zela bere indarra berpiztuz. Greba horiekin batera erregimenaren errepresioa zabaldu zen, eta hurrengo hamarkadan langileriaren mugimendua beste borroka ziklo trinkoan sartu zen Beasainen eta Bilboko ezker aldean izan ziren borrokekin. Azken horiek piztu ziren, jakina, bai tokiko arazoei erantzuna eman nahian bai Asturiasko meategietan sortu ziren protestekin solidaritatean.

## Greben ezaugarri aldakorak industrializazio prozesuan

Dena den, gai honetan gauzarik mamitsuena ez da borroka edo greba bati buruz zenbait datu eta detaile gehiago ala gutxiago ematea, baizik eta konturatzea gizarte gatazken baldintzak nola joan ziren aldatuz hamar urte haietan, 1950etik 1960ra, eta, horrekin batera, langile eta oposizio politikoaren aurreko ereduak nola moldatu ziren gizarte baldintza berrietara. 1950eko hamarkada mundu baten gainbeheraren lekukoa izan zen, oposizio politiko historikoarena, eta denbora berean beste baten sorrerari lekukoa eman zion, langileria eta oposizio politiko berriari hain zuzen.

Alderaketa bat egiteak zenbait gauza argi dezake esparru honetan. Aurreko hamarkadan, 1940koan, gertatutako lan-

gile gatazkak aztertzen baditugu, zer motatako ezaugarriak aurki ditzakegu? Ospetsuena eta garrantzitsuena 1947ko greba izan zen, Bilbon ospatua, non barneko nahiz kanpoko oposizio antifrankistak parte-hartze handia izan zuen borroka gogor horretan. Euskal Gobernuako Kontseilu Delegatuaren deialdiari jarraituz, sindikatu historikoak buru-belarri sartu ziren protestan, haien artean UGT, ELA eta CNT erakundeak izanik ezagunenak. Arrakasta izugarria lortu zuten biztanle talde askorengan, 1947ko greba horri maila historikoa emanez. Hori horrela izanik, greba hori 40ko hamarkadako oposizioaren ikur gisa gelditu zen urte askotarako. Dena den, greba horren zentzua edo interpretazioa zein izan zen luze eztabaidatu da. Dударik ez dago frankismo garaiaren lehenengo greba garrantzitsua izan zela, baina ez dut uste garrantzi horregatik 47koa geroago egin ziren beste greben aitzindari kontsidera daitekeenik. Ezin da pentsatu ere fase historiko baten bukaera izan zenik. Zehaztapenetan gehiegi sartu gabe, protesta hori greba uholdearen ziklo labur batean, 1947tik 1951ra doan zikloan, jar dezakegu. Azken urte horren inguruan eten bat nabarmendu zen ziklo berri bati hasiera emanez. Horrela garbi gelditzen da 47ko grebak erbestean piztu zuen baikortasuna, frankismoaren porrotaren hasiera zekarrela pentsatuz, hutsik gelditu zela 1951ko protestak bukatu bezain pronto.<sup>3</sup>

Bilboko ezkerretatik hain zabaldua egon zen grebaren bukaerak ondorio latzak ekarri zituen: greba egunetan eta hurrengoetan errepresioa zabaldu zen lan gune eta langile esparruetan. Errepresioa luzea izan zen 400 enpresatan greban parte hartu zuten 20.000 langileen artean; atxiloketak, lanetik ehunka kanporaketak, langile liderrei zigorrak, lortutako oinarrizko eskubide minimoen ezabapena, lan antzinakotasun-osagarrien galera, diziplina neurri sorta luze bat... Halako politika gogorra jarri zuen indarrean botereak, ez bakarrik botere politikoak edo sindikalak baizik eta baita enpresaburuek ere. Errepresioa oso orokorra izan zen, etorkizunari begira berriro protestatan sar zitezkeenei adi-

bide gisa esanez frankismoaren «bake soziala» hautsiz gero boteretik zer espero zezaketen.<sup>4</sup>

Esana dago 1951ko gatazkak, langile grebak, izan zirela. Ezaguna baita Gasteizen egindakoan EAJk oraindik parte hartu zuela, haren deialdian eta garapenean eragina izanez. Berrito azpimarratuko dugu mugitu zen jendeak nola gainditu zuen alderdiak emandako lelo politiko zehatza eta bere protesta mota nola bultzatu zuen. Berdintsu gertatu zen Iruñean 1951n, kontrolik gabeko protestatan.

Bi euskal hiriburu horietan 1951ko grebaren helburua biztanleria jasaten ari zen bizi baldintza txarren kontra kokatu behar da. 1947an egoera ekonomiko berdintsua bazegoen ere, lau urte beranduago izan ziren gatazketan kutsu politikoa ahulagoa izan zen 47koan baino, nahiz eta horiek guztiak protesta ziklo berberean sailkatu. Berez, azken hatsa ematen ari zen oposizio klasikoa, historikoa deitzen duguna, hau da, XX. mendearen lehenengo herenean erattutako langile kultura politikotik horniturik zegoena. Hain miseria gorrian zegoen jendea, ezen protestatan altxatzea beharrezkoa bihurtu baitzen, batzuetan matxinadaren antza hartuz (Iruñean kasu); eta Euskal Gobernuak alde batetik eta sindikatuek bestetik parte-hartze handia ala txikia izatea alde batera utzita, protesta haien bultzadan eta garapenean pobreziaaren aurkako borroka neurri handi batean eragin zuela argudia daiteke. Miseria gorrian bizi zen jendearen egoerari edo merkatuaren hornidura ahulari erreparatzen badiogu, konturatuko gara edozein mailatan gabeziak nabariak zirela, haien artean hilkortasun tasa altua (ume pobreen artean) edota prezioen gorakada ikaragarriari aurre egiteko miseriazko soldatak. Arazo berdintsuak ikus zitezkeen gizarte antolaketan, ekonomiaren atzerapen historikoan edota Estatuaren funtzionamenduan. Horren parean sortu zen merkatu ilegala, «merkatu beltza» deiturikoa, non jendeak merkantzia eta produktu gehiago lor zitezkeen merkatu arruntean baino, hori bai, prezio izugarri altuetan. Merkatu «beltz»-aren bidez izugarritzko ondasun eta kapital pilaketa

lortu zuten zenbait aberats zaharrek eta baldintza haietan aberastu berri zirenek. Jendea eguneroko borroka latzean murgildurik zegoen bitartean, hori guztia gertatzen ari zen. Ondorioz, egoera horrek argi adierazten du garai hartan grebak egiteko beharra.

Hori dena kontuan izanik, 1956ko greba handiak aztertzekoan ikus daiteke nola grebalariek soldaten igoera, lan baldintzen eta lan harremanen hobekuntza (hau da, lehen ere eskatu ziren hobekuntzak) eskatzen zuten; baina greba horiek, aurrekoekin gertatu ez zen bezala, kapitalismoaren beste fase edo epe ezberdin batean kokatu behar ditugu. Aitzinakoak kapitalismoaren garapen motelean izan baziren, oraingo epe honetakoak aldiz kapitalismo industrialaren fasean izan ziren, ekonomiak goranzko bilakaera bizi zuen garaian. Helburu berdintsuak izanik ere, grebalaria beste testuinguru ekonomiko batean zeudela baieztatu daiteke.

## Garai berri baten giltza: industrializazioa

Hamarkada honetan funtsezko aldaketa sakonak eman ziren esparru ekonomikoan, gizarte mugimenduetan, oposizio politikoan eta beste arloetan. Hamarkada honetako erdialdetik aurrera aldaketa horien eragina nabaria zen, eta hazkunde ekonomikoarekin batera beste hainbat aldaketa hasi ziren gizarte mailan. Laburki esanda, langilerian zenbait aldaketa izan zen, eraldaketa sakona poliki-poliki gauzatuz joan zen, azken finean langileria berri baten eraketa sortaraziz. Protagonista berri bat izanen da hemendik aurrera grebak bultzatuko zituena. Berria bere antolakuntzan, helburuak lortzeko bere baliabideetan, bere kontzientzian eta gero eta gehiago ere bere belaunaldiko azterketan.

Industrializazioaren garapen berria izan zen Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan, eta Bizkaiko industri sarea berrindartu egin zen Euskal Herriko gizartea erabat eraldatuz, ondorio askoren artean industri langileriaren sorrera gehituz. 1956an zegoen egoerarekin alderatuta, 1946koa oso ezberdi-

na zen dudarik gabe. Nolabait gizarte eta ekonomiaren prozesu berdintsua bizi izan zen Estatu espainiarreko zenbait zonaldetan, baina ikusten zen Euskal Herriko bilakaera ekonomikoak euskal gizartea goitik behera astinduko zuela eta handik gutxira oso eraldaketa nabarmena izango zela.

Kultura politiko historikoan oinarritzen ziren oposizio politikoko nahiz sindikalisten alderdiak; sindikatuak desagertzeaz zeuden 1951rako eta haien eragina nekez ikus zitekeen gizartean. Errepresio bortitza jasan ondoren, haien esparru publikoa (termino horren erabilera, diktadura frankista odoltsu hartan, lelokeria ez bada) ez zen existitzen, erregimen diktatorialaren garaipen borobila izan baitzen justu hamarkada honetan zehar. Anarkistak eta errepublikarrak ia erabat desagerturik, euskal nazionalistak, sozialistak eta komunistak oso ahul, bazirudien oposizio klasiko edo historiko horren papera historiara pasatuko zela eta diktadura aldez ukiezina bihurtuko zela eta urte askotan iraungo zuela. Horren frogatzat har dezakegu zenbait ikerketatan azaltzen zaiguna, hau da, barneko oposizioa desagertutzat eman behar zela (Heine 1983). Garaiko protagonista batzuek garbi ikusi zuten une historiko berrian sartuak zirela; horrelaxe, euskal nazionalismoaren esparruan, BBBk 1958ko urtarrian idatzitako testu autokritiko batean azterketa hau aipatzen zen:

1951 urtea data oinarrizkoa da «bi garai ezberdin» bereizten dituelako; urte horrek markatu baitzuen «jarduera eta ekin-tza modu batzuen gailurra». (De Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz 2001, 201)

Testuinguru historiko berri honetan kokatu behar da baita garai hartako beste testu bat, bere interesarengatik maiz aipatua eta erabilia izan dena, Landaburuk 1951n gertatutakoaz idatzitakoa, bere hausnarketen liburua hain zuzen (Landaburu 1977). Testu horretan defendatzen zen errepresioaz gain Euskal Herrian egoera eta errealitate berri bat zegoela, euskal errealitate berria, non gizartea «miseriatik ateratzen ari baitzen hazkunde —ekonomiko— fase batean sartzeko».



50eko hamarkadan zehar oposizio politiko hori desagertzen ari zen heinean, erregimen frankista indartuz zihoan. Barneko oposizioa ia erabat desagertua egoteak eta nazioarteko laguntzari esker diktadurari zabaltzen zitzaion etorkizuna ikusteak garai lasaia sortzen zuen. Munduaren egoera gatazkatsu horretan, Francoren erregimenak baliozkotasun berria izatea lortu zuen «gerla hotza» deituriko garaian. Penintsulan, frankismoaren aurkako talde armatuek, hau da gerrillariak, ordura arte erakutsitako bizirauteko gaitasuna urtez urte ahulduz joan zen eta erregimenaren borrokan izan zuten garrantzia ia guztiz galduz.

Alta, aldaketak beste mailetan suertatu ziren. Oposizio sindikal, politiko eta militarren ahultasunarekin batera, industrializazio prozesu trinkoak langileria berria, gaztea, askotan esperientziarik gabekoa sortarazi zuen, eta subjektu berri hori hasiko da bere protagonismoaren zertzelada batzuk uzten prozesu luze batean, dudarik gabe, justu 1970eko hamarkada arte iraungo duena. Euskal Herrian industrializazioaren motorra ez zen 1941ean Madrilen sortutako Industri Institutu Nazionala izan, berez erakunde horrek frankismoaren lehenengo bi hamarkadetan garrantzi eskasa izan baitzuen euskal ekonomian; eta horren ondorioz, ekimen kapitalista pribatuaren eskuetan gelditu zen euskal industri ekonomia garapena.

Langile klase berria bertako langile eta kanpoko emigranteekin osatu zen.<sup>5</sup> Langileriaren eraldaketa horretan batzuetan gertatu zen militante politiko eta sindikalista historikoek zubi lana egin zutela lan merkatuan sartu berriak zirenekin. Baita ere oso kontuan izan behar da eliza barruan ematen ari ziren aldaketa batzuk onuragarriak izan zirela langile berriak gatazketan bideratzeko orduan, hain zuzen ere eliza talde batzuk auzi sozialaz ardura zuzena hartuz joan ziren heinean. Bere eginbide apostolikoak burutzen saiatzeaz gain, beste motatako helburuengatik borrokatzen ari ziren langile kontzienteekin bat egin zuten; gutxienez elkarri laguntzen zioten eta protestak antolatzeke behar ziren azpiegiturak es-

kaintzen. Talde apostoliko horiek (guztien enborra Ekintza Katolikoa izanik) elizak erregimenarekiko zuen babes ofiziala aprobetxatu zuten, eta antzeko moduan beste edozeinek ere borrokarako grina erakusten bazuen, talde apostoliko horiek ematen zituzten aukerak erabil zitzakeen.

Elizatik zetorren mugimendu hura emankorra izan zen uneko egoeraren azterketa espiritual eta sozialari ekinez, horretaz zenbait hausnarketa burutuz eta batez ere egoera sozial hori aldatzeko asmoz zenbait neurri praktikan jarritz. Horrela izan zen hasieran auzi sozialari begira HOAC (Ekintza Katolikoaren Langile Anaitasuna) eta gero JOC (Gaztedi Langile Katolikoa) eta VOJ (Langile Gazte Abangoardia) mugimendu apostoliken jarduera, langileria berri horri identitate puntu bat emanaz. Egoera sozial hartan parte-hartzea ez zen izan unean uneko gauza bat, prozesu luze baten emaitza baizik; baina azpimarratzekoa da mugimendu apostoliko horiek 1950eko hamarkadan hartu zutela konpromiso soziala, eta horren frogarik argiena da urte haietako grebetan parte hartu izana.

## Euskal Herriko eraldaketa

Euskal Herriaren berritze horren eremuan bada industrializazio prozesu sakon bat, Bizkaian eta nolabait Gipuzkoan ere berrindustrializazio dinamika batean gertatu zena, eta estreinako Nafarroako eta Arabako industrializazio modernoaren ezarpena. Nafarroako kasua aztertzerakoan, gerta daiteke prozesu horrek zer suposatu zuen ongi ez ulertzea, bere egitura ekonomiko eta sozialaren azterketa sozio-ekonomiko hori hamarkadaz hamarkada egiten badugu. Argi dago 1950-1960 tarteko egoera oso ezberdina izan zela lurralde horretan, baina baita ere aldaketa sakonak ez zirela justu 1960an hasi baizik eta urte batzuk lehenago. Grafiko eta estatistika askok datuak hamarkadaz hamarkada islatzen dituztenez, ez dira oso garbi gelditzen Nafarroan bizitako prozesu sakon horren ondorioak. Horren adibide bat dugu

geroxeago sobera ezagunak izan ditugun zenbait lantegi handi 50eko hamarkadaren erdialdean kokatu zirela Nafarroan. Edo biztanleriaren mugimenduen joerak gauza berbera adierazten digu: nola moztu ziren Nafarroan biztanle galerak 60rako, baina galera horren murriztapena aurreko urteetan hasita. Horrelaxe, nafar gizartean prozesu oldarkorra zabalduz joan zen neurrian, aurreko egitura soziala eraldatuz joan zen eta horren ondorioz nekazaritza gizarte tradizionalaren gainbehera etorri zen, gelditu ezineko aldaketa gertatuz.

Egia da Bizkaiko kasua ezagunagoa izan dela beste lurraldeetako baino, eta bere industrializazio bizkor eta trinkoak arlo guztietan izugarritzko moldaketak ekarri zituela. Hala ere, ez da egia txikiagoa Nafarroan aipatu den nekazalgoaren munduan sortu zen eraldaketa, eta nafar kasuan bezala (beste maila batean nahi bada, lehenengo sektoreak lurralde bakoitzean pisu ezberdina baitzuen), antzeko gauza gertatu zen beste lurralde guztietan. Nafarroaren kasua beste lurraldeetako prozesu orokorraren islatzat hartzen badugu, argi eta garbi ikusten dira zenbait ondorio, horien artean biztanleriaren mugimenduak nola abiatu ziren gune industrializatuetara. Horrekin batera erronka berriak edonon sortu ziren euskal nekazaritzan, hemendik aurrera hirietako merkatuak jakiz ongi hornitu behar zirelako. Are gehiago, horniketa hori, kontsumo hazkunde hori, handitu egin baitzen, ez bakarrik hirietan lagun gehiago bizi zirelako, baizik eta beste motatako produktuen eskaera egiten hasi zirelako. Nekazaritza esparruetan zerbait berria egitea eskatzen zuen hiritartasun prozesu azkar horrek. Jornalari eta lurjabe txikien krisialdia areagotuz, barneko populazio mugimenduak eta Espainiako zonalde txiroenetatik zetozen jende andanak trinkotu ziren, eta azken finean hori guztia kontuan izan behar dugu langileria berria sortu zela azpimarratzen denean. Behin eta berriro esan behar da nolako langileria zen hori, zer motatako ezaugarriak zituen: nahiko homogenea (gaztea, batez ere kanpotarrak, lantegi handienetan kontzentratuak, bizilekua lantokietatik hurbil kokatua), eskarmentu sindikal eskasekoa

edo gabekoa, sindikatu historiko militanteekin harreman gutxi zuena (egitura industrial berrian militante historiko horiek gutxi zirelako, nahiz eta garrantzi handia izan lan egiten zuten enpresetan). Modu ez trinkoan antolatzeko joera izan zuten langile horiek, langile batzarretan, lankideen artean lagun zuzenenak edo borrokalariak ordezkaritza izendatuz gero enpresaburuekin lan baldintza eta soldaten hobekuntzak defendatzeko... Langile berrien mundu horretan egin zuten lan mugimendu apostoliko katolikoek eta sindikatu historikoetako militanteek, alderdi komunistako kideek egindako lana inolaz ere ahaztu gabe (Ibarra 1987, 48-49).

Dena den, langileria aipatzen denean, langile mugimendua bat-batean sortu zela esan nahi al da? Euskal Herriko gune industrializatuetan kokatu ziren etorkinek klase sozial kontziente bat osatu zutela baieztatu daiteke? Formalki aurkitzen den proletalgoak, industri langileek edo langileria modernoak, klase sozial bat eratu zutela sinpleki defendatu daiteke? Historiak, diziplina gisa, kontuan izan behar duena ez da bakarrik errealitate batean sortzen diren gauza berrien bilketa egitea. Hau da, Euskal Herrian sortutako langileriaren berriztapena erraz azter daiteke informazio estatistikora jotzen. Historiak haxe azaldu behar du: errealitate berri horiek (gure adibidearekin jarraituko dugu, hau da, langileria berriaren sortzearekin) nola mugitu diren bere esparru sozialean, eta denborarekin nola eratu eta moldatu diren beren helburuak praktikan gauzatzeko. Azken finean, Historiak azaldu behar du nola eta zein baldintzatan bihurtu den ala ez talde sozial berri bat klase sozial batean, noiz sortu den klase historiko gisa.

Euskal langileriak prozesu horren ibilbidea egin zuen, eta urteak pasatu ahala garbi utzi zuen Franco hil baino lehenago klase kontzientzia bazuela, kontzientzia antifaxista, errepresioaren kontra mugitu zela, gero eta hurbilago zuela euskal auzia eta bere interes propioak eta kolektiboak mobilizazioarekin eta borrokarekin defendatu behar zituela. Haxe da 1970eko hamarkadan egin dezakegun euskal langileriaren ar-

gazkia. Langile taldeak nola joan ziren bere kontzientzia eratu, nola bizi izan ziren hainbeste esperientzia, zer dinamika erakutsi zuten gizartearekiko..., oso galdera garrantzitsuak dira eta artikulu honetan ez dago tokirik haietzako erantzun sinplerik aurkitzeko. Baina prozesuaren ideia berreskuratu nahi dut. 1970eko hamarkadan izan ziren protestak eta gizarte mugimenduak nola uler ditzakegu aurreko hiru edo lau bosturtekoetan izandako azpiegiturazko aldaketak kontuan izaten ez baditugu (hau da, 1950eko hamarkadan aipatu diren aldaketa sozialak). Urte horietan banakako esperientziatik abiatuz hasi baitzen taldeko esperientziak izaten, azterketak egiten, hausnarketa eta praktikekin, atzerakada eta konplexutasunekin. Horrela hasi zen euskal langileriaren bigarren eraketa historikoa; lehen eraketa 1890ean hasi zen, gutxi gorabehera, eta 1937 arte mantendu zen bizkor eta indarrez. Agian hitz egin dezakegu 1990etik aurrera beste prozesu batez, hau da, frankismoaren azken garaian ezagutu den langile mugimenduaren moldaketaz eta zenbait kasutan desagerpenaz, nahiz eta gaur egungo langileriaren eraketa historikoaz inolaz ere ezin den hitz egin (Majuelo 2000, 2004).

## Euskal langile klase historiko berria

1956tik aurrera, kultura politiko klasikoen desagerpenarekin, esparru ideologikoa betetzear zegoen, eta poliki-poliki langile mugimendua egoera berrirako bere kultura politiko berria eta egokia bilatuz joan zen. Hori ere prozesu baten emaitza izan zen. Askotan teoria politiko handienetan aurkitu baino, bere jatorrizko eta eguneroko praktika sozialean asmatu zuen beharrezkoa zuten ildo sasi ideologikoa, bizitzan ari zen mundua ulertzeko. Gerla galtzeak langile kulturaren haustura suposatu zuen, eta horren ondorioek luze iraun zuten. Horrela, bada, klase ertainen irizpide ideologikoa izandako errepublikanismoa galdu zen; antipolitizismoa eta antiestatismoa (hau da, mugimendu libertarioak ekintza sozialerako zituen oinarritzko zutabe ideologikoak) lekurik

gabe zeuden langileen eskema berrietan; klaseko sindikatuei, CNT eta batez ere UGTri, lur jabe txikien eta lur langileen artean eragin itzela ematen zien nekazaritza auzia gutxituz joan zen edonon, eta toki askotan desagertu egin zen; horrela galdu zuten PSOEek eta UGTk nekazaritza erreformarako zeukaten premiazko beharra, hau da, denbora luzez izan zuten protestarako erreferentziarik garrantzitsuena. Alderdi Komunista (gerla hasi arte oso garrantzi gutxi zuena) bere analisi estrategikoa aldatuz joan zen, gerrilla borrokari uko egin ondoren bestelako politika bat saiatu baitzen indarrean jartzen: hain zuzen ere, errekontziliazio nazionala, greba orokor baketsua, e.a., ebazpen politiko berrien bitartez eta 1956 eta 1958an Alderdi Komunistaren Batzorde Zentralak onartuak. Dena den, Alderdi Komunistak bere historian lehen aldiz lortu zuen langileen artean eragin nabarmena izatea. Klandestinitaterako ongi moldaturik, nahiz eta errepresio bortitza jaso, ongi mantendu zuen alderdiko sare minimo bat penintsulan antolaturik; eta sortu berria zen langilerian ongi kokatuz joan zen, alderdiko lana eginez eta «Langile Batzordeak» (CCOO) langile erakunde sortu berria bultzatuz.

Aldaketak hain orokorrak izan ziren, ezen erregimenean bertan eragin nabaria izan baitzuten. Totalitarismoaren eredu politikoa ezartzeko azken aukera izan zen justu 1958an. Totalitarismoak ez zuen inoiz aukerarik izan erregimen frankistan sustrai sakonak lortzeko; aldiz, frankismoaren sistema politikoen historia luzean maiz ikusi ahal zena beste gauza bat zen: erregimen barneko familia politikoen arteko borroka. Hori da frogarik garbiena azaltzeko zergatik totalitarismoaren defendatzailek sutsuenek, falangistek, ezin zuten inposatu beraiek maite zuten eredu politiko totalitarioa; falangistek eredu totalitarioa ezartzeko egin zituzten saio guztiek huts egin zuten. Horrela gertatu zen 1958ko azken saiakerarekin (Mugimenduaren Oinarrizko Printzipioen Legea aldarrikatu zenean), asmo horren kontrako beste familia frankisten jarduerak falangisten xedea gainditu zutenean. Dena den, azpimarratzekoa da Gobernuaren kontrolik gabeko

aldaketa batzuk izan zirela, eta beste batzuk Gobernuak berak onartu behar izan zituela egoerak horrela aginduta. Tes-tuinguru historiko berri horretan, talde eta klase sozial ba-koitza bere asmoak betetzen saiatu zen, baina baldintza oro-korrak ezin kontrolatuz. Industrializazioa etorriko zela onar-tu behar izan zuen Gobernuak, eta 1951ko eta 1957ko poli-tika ekonomiko berriarekin erronka horri eutsi zion. Koali-zio kontrairaultzailearen laguntzarekin, 1930eko hamarka-dako krisialdia gaindituz, kapitalismoa bere indarra adieraz-ten ari zen 1950eko hamarkadan, nolabait erakutsiz gauza zela ordura arte bere alde zeuden hainbat talderen gainetik merkatu legeak inposatzeko. Beste hitzekin esanda, eragile ekonomiko kapitalistek ezin bazuten bere jarduera aurrera eramane, Estatuak bere interbentzionismoarekin merkatua trabatzen zuelako, Estatuak bera jartzen zen kolokan, defizit izugarria jasanez eta frankismoaren oinarri sozial garrantzi-tsu batzuk galtzeko arriskua izanez. Nolabait Estatuako insti-tuzioak salbu uzteko onartu behar izan zuen Gobernuak be-rak politika ekonomiko berria, eta esparru ekonomikoan politika liberalagoa aldarrikatuz industrializazioaren proze-sua defendatu behar izan zuen derrigorrez.

Hori guztia konplexuagoa izan zen, noski, eta agian nor-baitek nire azalpen hau irakurrita esan dezake abiapuntu es-trukturalistaz jota dagoela, non indar ekonomikoak itsuki politika gidatzen duen. Norbaitek hala pentsatzen badu, gu-txienez balizko iritzi hori leuntzeko eta nire argudioa es-trukturalismoaz hain ukiturik ez uzteko, esandakoarekiko bi auzi sakon nahi ditut gogorarazi. Bata, Francoren erregi-menak, ekonomia eta interes kapitalistak ez aldatzean, siste-ma ekonomiko kapitalistan bertan kokatu behar izan zuen bere biziraupena, eta sistema kapitalista horren dinamismoa eta indarra lehenengo gobernu frankisten politika ekonomikoaren gainean ezarri zen garaiz 1936an, kapitalismo espainia-rraren salbatzaileak gaindituz. Funtsean hauxe da: erregi-men diktatorialak ez izan esparrurik izan kapitalismotik kanpo politika mota ezberdinen bat burutzeko.

Bestea, kapitalismoak, bere garapenarekin batera, bere kontradikzioak sortarazi zituen. Horrela ikus daiteke 1950eko hamarkadaren erdialdetik aurrera hazkunde ekonomikoak zekartzan arazo sozialei aurre egiteko zer erantzun eta soluzio asmatu ziren: ikusi dugun bezala, protesta eta grebak gero eta ugariago antolatzen hasi ziren, langileria berri bat sortuz eta denboraren poderioz langile mugimendua eta oposizio politikoaren berpizkundea (azken oposizio horren barruan euskal nazionalismo berri batekin kontatu beharko da) agertoki politikoan aktiboki azalduz. Euskal gizartea fase ekonomiko berri baten atarian baldin bazegoen, klase borroken dinamika ere beste maila batean kokatzen ari zen.

Paradoxa batekin bukatzeko: 1936ko gerla irabazi ondoren, zein frankistak pentsatuko luke Franco jeneralak etsaitzat izendatu zituen langile mugimendua eta euskal nazionalismoa (eta nazionalismo katalana noski) diktadorearen heriotza heldu arte haren mamu bihurtuko zirela? Nork haien artean imajina zezakeen bi eragile sozial horien jarduera antifaxistak erregimen politiko frankista gero eta ez-legitimoago bilakatuko zuela?¶

- 
1. Euskal Herriko historiaren bibliografia orokorrean esparru txikia eman zaio epe kronologiko horri. Horren adibide bat ikus daiteke Iñaki Bazánek zuzendutako liburuan (Bazán 2002). Bertan, Santiago De Pablok idatzitako atalean (De Pablo 2002), lau orri besterik ez zituen idatzi garai honez. Hala ere tratamendu handiagoa izan du historia ekonomiko edo politikoaren testu monografikoetan (ikus De Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz 2001; edo Majuelo 2004).
  2. Nafarroako 1951ko grebaren deskribapen zehatza Díaz Monreal (1997) artikuluan aurki daiteke. Gasteizen gertatutako guztiaz, ikus De Pablo (1991).
  3. 1947ko grebaren deskribapen eta balorapen zehatzak aurki ditzakegu Lorenzo Espinosa (1988) liburuan. Greba historiko horretaz aipatutako beste historialari batzuk ere (Garmendia, *Beltza*, Meer...) aritu dira.
  4. Autore guztiek azpimarratu dute errepresioak zer tamainako pisua izan zuen grebaren hurrengo aste eta hilabeteetan. Berez, erregimen frankista ez zen horretan txantxetan ibiltzen.
  5. Emigrazioari buruzko informazio zehatza ikus daiteke lan askotan. Ikus adibidez Ibarra (1987, 46), edo Jauregui (1981, 64).



**Bibliografia**

- Amsden, Jon: *Convenios colectivos y lucha de clases en España*, Paris, Ruedo Ibérico, 1974.
- Bazán, Iñaki (zuz.): *De Túbal a Aitor. Historia de Vasconia*, Madril, La esfera de los libros, 2002.
- Beltza [Emilio Lopez Adan]: *El nacionalismo vasco en el exilio 1937-1960*, Donostia, Txertoa, 1977.
- De Pablo, Santiago: «De la guerra civil al Estatuto de Guernica», in Bazán (2002).
- De Pablo, Santiago: *El nacionalismo vasco en la posguerra. Alava, 1939-1955*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 1991.
- De Pablo, Santiago; Mees, Ludger; Rodríguez Ranz, José Antonio: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco II: 1936-1979*, Bartzelona, Crítica, 2001.
- Díaz Monreal, José Luis: «La huelga general de 1951 en Pamplona», *Estudios de Ciencias Sociales* 10, Iruñea, 1997, 103-121.
- Garmendia, José María; Elordi, Alberto: *La resistencia vasca*, Donostia, Haranburu, 1982.
- Heine, Harmut: *La oposición política al franquismo*, Bartzelona, Crítica, 1983.
- Ibarra, Pedro: *El movimiento obrero en Vizcaya: 1967-1977. Ideología, organización y conflictividad*, Bilbo, EHUko Argitalpen Zerbitzua, 1987.
- Jauregui, Gurutz: *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*, Madril, Siglo XXI, 1981.
- Landaburu, Francisco Javier de: *La causa del pueblo vasco*, Bilbo, Geu, 1977.
- Lorenzo Espinosa, José María: *Rebelión en la ría. Vizcaya 1947: obreros, empresarios y falangistas*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1988.
- Majuelo, Emilio: *LAB sindikatuaren historia. Langile Abertzele Batzordeak 1975-2000*, Tafalla, Txalaparta, 2000.
- Majuelo, Emilio: «Euskal Herria. 1939-1975», in Joseba Agirreazkuenaga (zuz.): *Historia de Euskal Herria. Historia General de los Vascos*, Donostia, Lur, 2004, 33-86 or.
- Pérez Pérez, José: *Los años del acero. La transformación del mundo laboral en el área industrial del Gran Bilbao (1958-1977). Trabajadores, convenios y conflictos*, Madril, Biblioteca Nueva, 2001.



**LITERATURA 129**

Eztabaida bat sekuentziaz sekuentzia

«Etsipena»

Bazka

**JON BENITO**

**SOZIOLINGUISTIKA 134**

Hezkuntza eta hizkuntzen berreskurapena

**LIONEL JOLY**

**TELEPOLIS 142**

Metroko ahoan

Euskarazko letrak neurtzen

Metroan etxera

*race to save basque language*

**PATXI GAZTELUMENDI**

## Eztabaida bat sekuentziaz sekuentzia

Desertuan ur bila hasi eta urrea aurkitu. Antzeko zerbait Jon Alonsok *Argia*-ren urtekarian argitaratutako artikulua-  
ren ondotik etorri den zalapartarekin. Sarien inguruko ezta-  
baida piztu, literatur sistema ziprztindu eta, hara!, gure li-  
teraturaren erradiografia ezin zehatzagoa.

Sua piztu zuen Jon Alonsok. Denbora luzean gogoratuko  
da artikulua ([www.argia.com/fitx/bestelakoak/26961Jon%20Alonso.pdf](http://www.argia.com/fitx/bestelakoak/26961Jon%20Alonso.pdf)). Esaten denarengatik, suposatu duenarengatik:

Zeren, literaturaren aitzakian beste zerbait epaitzen ari denean,  
ofizioa denean barkatzen ez dena, planto egiteko garaia iritsi  
dela garbi geratzen baita. Ez gaitzaten tronparazi beren bara-  
ja markatuekin, uneko egokieraren arabera aldatzen dituzten  
arautegiekin, botoak kontatzean egiten dituzten hutsekin.

Planto egin, baraja zaharra puskatu eta berria eskatu.

Salaketa egiten zuen Alonsok. Eta aurrera begirako pro-  
posamena: *baraja zaharra puskatu eta berria eskatu*.

Berriz jolasteko ala inoiz gehiago ez jolasteko zen, orduan  
erantzun ezin zen kontua zen.

Lehen interpretazio zuzena egin zuen Alberto Barandiaran-  
ek *Berria*-ko analisisian (2007-02-07):

[...] posible ote da susmorik gabeko literatur sari nagusi bat,  
bat bakarrik, urteroko ekoizpena bere osotasunean aztertu-  
ko duena eta nahikoa adostasuna bilduko duena? Alonsok,  
eta beste batzuek, ondorioztatu dute ezetz. Gaur egun hori  
ez dela posible. Sariak ematen duen bozgoragailua garrantzi-  
tsuegia dela. Interes asko ehuntzen eta korapilatzen direla.  
Administrazioarekiko morrontza handiegia dela. Beraz, zer-  
tarako Euskadi Saria, dio Alonsok? Zertarako sortze isilaren  
ondorioz jaiotzen den letra idatziarekin zerikusirik ez duten  
arrazoien araberako antzerkiarekin jarraitzea? Ez dugu jo-  
kaleku honetan txotxongiloak izan nahi, idazleok. Egin de-  
zagun beste zerbait, edo ez dezagun honetan parte har.

Jon Alonsok artikulua idatzi eta hilabetera edo, Alberto Barandiaranek analisisa idatzi eta hamar egunera, otsailaren 16an, 34 idazlek *Utikan Euskadi Sariak* ([www.utikan.com](http://www.utikan.com)) manifestua aurkeztu zuten:

Jardun intelektual libre eta kritiko, kultura anitz, garatu eta agintearekiko autonomo baten alde gaudenez eta Euskadi Sarien erabakiek, daukaten oihartzun mediatikoarengatik, zeharka bada ere gure lanaren kalitatearen gaineko balioespina zein gutxiespena ezartzen dutenez, argi utzi nahi diegu gure irakurleei ez dugula horrelako parametroetan neurtuak izan nahi.

Sinatzaileen artean, euskal letretako izenik garrantzitsuenetako zenbait zeuden, hala nola: Jon Alonso, Koldo Izagirre, Eider Rodriguez, Edorta Jimenez, Jose Luis Otamendi, Julen Gabiria...

Horra hor *baraja apurtua*. *Ez dugu nahi*. Alonsoren tantak gainez egin zuen, eta erreka ibai egin zen. Aspaldian euskal literaturan halako eztabaidarik izan gabeak ginen. Erreportajeak errepikatu ziren hedabideetan. Jaurlaritzatik Koldo Ordozgoitik («Alonsok eskubide osoa du nahi dituen ipuinak idazteko eta sinatzeko», *Berria*, 2007-02-09) eta Miren Azkaratek hitz egin zuten:

Azken egunetan argitaratu dena ez da justua, ez pertsona horiekiko, eta ez urte hauetan sarituak izan diren idazleekiko ere. Nik hori nabarmendu nahi dut: epaimahaikideen lana, batetik; eta, bestetik, urtez urte sarituak izan direnen mezimenduak (*Berria*, 2007-02-21).

Halere, Jorge Gimenez Bechentzat (*El País*, Xabier G. Argüello, 2007-02-26) *Utikan Euskadi Sariak* manifestua «sekulako porrota» izan zen, «kopurutan ez baita ezeren adierazgarri».

*El País*-eko erreportaje berean, Anjel Lertxundik «tamalgarrizat» jo zuen «polemika puztua». Zehazten zuenez,

egitate handi bat balitz bezala aurkeztu da halakoa ez dena, eta ez dira konturatzen denok dauzkagula beste mila gorabeheratxo hainbat alorretan errealitatea desenfokatzeko.

Aste berean, *Ihes betea* nobela argitaratu zuela eta, elkarizketa egin zioten *Argia* astekarian (2007-02-25) Lertxun-

diri. Hainbat gauzen artean Alonso aferaz hitz egiten zuen. Besteak beste, honakoa esan zuen:

Sistema literario ez-sanoa —desorekatua— bizi dugu. Ur tanta batek olatu baten antza hartzen du, eta olatu bati, berriaz, ez ikusiarena egiten zaio. Zabaltzaile batek, autore batek, sari batek, feria batek atentzioaren arreta-gune osoa beregana dezake denbora luzean, eta gainerako guztia estali. Benetako debate baten premian gaude eta, Jon Alonsorenari ezer kendu gabe ere, nago ezker abertzalearen itzala dezentez ere luzeagoa dela —eta emankor sibilinoagoa— administrazioarena baino.

Anjel Lertxundiren antzekoak esan zituen Kirmen Uribek *Gara*-n (2007-03-31). Zertaz hitz egin da eztabaida honetan? Hitz egiten den horrek zenbateko garrantzia du? Literaturaz hitz egin da ala literatur sistemaz, literatur kanonaz hitz egin da? Literaturaz hitz egin da ala banitateaz hitz egin da? Neurrian eman da eztabaida?

Uribek:

Nolako gauza kaxkarretan galtzen dugun denbora hemen eta nolako diskusio azalekoetan pasatzen ditugun orduak eta orduak. Askotan euskal literaturaren barnean dauden eztabaidak egiturari buruzkoak dira, ez literaturari buruzkoak, eta denbora eta energia asko galtzen dugu horretan, sortzen eman beharrean.

Uribek dioen bezala sariena, literatur kanonarena azaleko eztabaida ote da? Sariiek hainbesterako garrantzia ote dute? Zer nolako garrantzia dute? Sariiek ezartzen dute literatura-kanona? Kritikak ezartzen du gerora oroituko den, eredu izango den kanona? Nortzuk eman behar dituzte sariak? Kanona ezarriko duten pertsona berberak saritu behar dituzte liburuak? Sariketetan literatura saritzen da?

Euskadi Sariaren arrastoa galtzen ari ginenean ordea, hara non iritsi den Espainiako Kritikaren Sariaren sasoia. Eta sarituen izenak jakinarazteko orduan, sorpresa!, *Utikan Euskadi Sariak* manifestua sinatu zutenetako bi saritu dituztela. Jon Alonso *Erretzaileen eremua* (Susa, 2006) ipuin bildumarengatik eta Koldo Izagirre *Rimmel* (Susa, 2006) poema liburuarengatik. Koldo Aldabek, *Berria* egunkariko Hiz-

pideetan (2007-04-01), paradoxa bere gordinean aurkezten zuen:

Aspaldi euskal literaturan izan den eztabaida sutsuenaren erdi-erdian, eztabaida hori hasi dutenak protagonista Espainiako sarietan. Ipuinlariak, gezurriak, ezker abertzaleko beso luzearen falangeak, sarituak. Adar jotzea, probokazioa, sari-tranpa?

Egun batzuk beranduago, Alberto Barandiaran, egunkari bereko analisisan, eztabaida birkokatzen saiatzen zen (*Berria*, 2007-04-04):

Sariak oraindik ez dute tokia aurkitu. Ez diegu aurkitu. Ez dakigu zertarako behar ditugun, zertarako nahi ditugun. Ez dakigu onuragarriak diren, ala kaltegarriak. Ez dakigu zein diren, nork erabakitzen dituen, ez dakigu nola funtzionatzen duten.

Eta, bat-batean, hori guztia mahai gainean jarri nahi izan dutenak, horiek hain zuzen ere, saritu egin dituzte. Noiz eta Euskadi sarietan hautagai ez direla izango erabaki duten urtean. Noiz eta sarien inguruko sistemez esandakoa gehiegikeria, furrustada eta ahoberokeria izan dela leporatu diete-nean. Non eta protesta ezin egin duten gunean, ez baitira aurkeztu, ez baitituzte ezer jasotzeko deituko. Espainiako Kritika sarian. Nori eta gehien nabarmendu direnei.

2007ko apirilaren 6an, Koldo Izagirrek *Berria* egunkarira gutun bat igorri zuen, Espainiako Kritikaren Sariari uko egiten ziola adierazteko:

Sariak kolokan jartzen dituen saritzeak eduki lezake adostasun zentzu bat, elkartasun keinua izan liteke, atxikimenduzko oparia. Baina Kritika Saria, aspalditik, Euskadi Saria bera baino mekanismo ilunagoz eta jokamolde zabarragoz dabilen antolamendua da. Literaturaren promozio-bidea baino, gure letren sistemaxoko zenbait mandarinen tresna bihurtua dela dirudi, beren larderia finkatzeko aitzakia, idazleonek laztan-premia baliatuz.

Idazleotan hots handi samarrean dabilen horri, tamalez, sariaz egunkari honetan bertan egin diren gogoetak erantsi behar genizkioke: adar jotzea, probokazioa eta sari-tranpa ote den, saritua zoriondu behar ote litzatekeen... Sari honek badu susmagarritzakorik, antza, manifestua sinatu ez zutenen eta idazleak ez direnen aburuz ere.

## «Etsipena»

Azken hilabetetako gaiaren inguruan, Felipe Juaristik artikulatu ironiko-etsigarria *El Correo* egunkarian (2007-02-14):

Nago gureak, alegia euskal literaturak, jo duela azkena, edo jotzeko zorion dela. Gure itsasontzi zahar hau hondoratzen ari da eta, horretaz jabeturik, bat baino gehiago ari dira hondarretatik zer salbatuko: sariren bat edo beste, errekonozimendu bat edo beste, fama apurra... Gertatzen da, lehendik eraman dituztela balioko zirenak, auskalo nora. Azkenetan gaude, euskal literatura ez zaio ia inori interesatzen, ezta idazleei ere, ezta irakurleei ere, ezta gizarteari ere. Euskal literaturak sortzen duen interes eskasa ondorio baino ez da, arrazoien bide luze bateko emaitza. Honaino ekarri gaituzten zioak hor daude, begi bistan, baina inor gutxi ausartzen da ozenki esatera, oinarri erlijiosoa baitute, gurean fedea ideologia baita, eta ideologia fedea, nola esan?

Aitortu behar dut idaztea izugarri maite dudana dela, eta lan duina egitea dela niretzat egon daitekeen saririk handiena. Izan ere, idatzi nahi duenak idatzi behar du, zortzi irakurle izanik ere, zortzietan mila balitu bezala, eta idatzi behar du sekula saririk jasotzerik ez balu bezala. Hori da idazle izatea, eta gainerakoa geure burua zuritzeko ipuina besterik ez da, geure banitateari, noiz edo noiz, ematen diogun bazka.

## Bazka

Eta azken hilabeteotan bazka ([www.bazka.info](http://www.bazka.info)) faltarik ez.¶



## Hezkuntza eta hizkuntzen berreskurapena

Azken hilabete hauetako aktualitate soziolinguistikoa hezkuntzarekin erabat lotua egon da. Izan ere, etorkizuneko hizkuntzen irakaskuntza sistema berriaren aurkezpena egin du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak. Txosten luze eta ederra [www.hezkuntza.ej-gv.net](http://www.hezkuntza.ej-gv.net) web orrian aurkitu dezakegu. Proiektu ederra zalantzarik gabe, edo beharbada itsusia? Esan ohi den moduan, ikuspegiak moldatzen du begiratzen duguna; alegia, begiradaren abiapuntuaren arabera egokia ikusiko dugu edo desegokia. Dena den, ikuspuntuaren abiapuntua baino garrantzitsuagoa da egitasmoa nola betetzen den ikustea. Hitzen atzetik zer izango den, azkenean paperean idatzitako hitzen atzean zer dagoen, nola ulertzen diren. Ikusi beharko da, beraz, dauden helburuak betegarriak badira, zeintzuk diren burutuko direnak eta nola. Izan ere, terminologiaren atzean gauza asko egon daiteke eta zalantza dezente ere bai. Adibidez, soziolinguistikaren aditu talde bati elebiduna izatea zer den galdetzen diogunean, erantzunak adituen kopurua bezainbat izango dira, eta beraz definizio komun batera iritsi eta onartu behar da; eta gauza bera gertatzen da proiektu guztiekin.

Eztabaida bizi-bizia da, eta hona gogoeta batzuk ekartzea interesgarria izango da.

### Abiapuntua

#### a) *Gizartea*

Gaurko ereduaren abiapuntua 80ko hamarkadaren hasieran koka daiteke. Urte haietan, gizartearen nahi nagusia, egoera soziolinguistikokoaren bilakaerari zegokionez, euskararen iraupenaren eta berreskurapenaren alde zegoen nagusiki



(Olabuena, e.a.); baina, konpromisoari zegokionez, jendea dirua ordaintzeko prest zegoen baina beste ahaleginik egin gabe (Basterretxea, Lorenzo Espinoza, e.a.).

Aurreiritzi batzuei lotutako pentsamendu bat zabaldu zen: «Euskara ikastea heldua edo nagusia izanik ezinezkoa da. Gainera Euskal Herriaren etorkizuna gazteak dira, beraz umeak eta gazteak euskalduntzen badira (eskolaren bitartez) Euskal Herriko etorkizuna euskaraz izango da edo behintzat elebiduna».

Pentsamendu honen bitartez, heldu erdaldun anitzek aha- legin ekonomikoa besterik ez zuten egin behar. Horrela euskararekiko zuten konpromisoa betetzen omen zuten haien burua zurituz, baina erantzukizun guztia umeek, eskolak eta administrazioak bereganatzen zuten. Horrela izanik, eskola eta hezkuntza publikoarentzat gizartearen nahiak eta itxaropenak betetzea oso zaila zen eta hala da oraindik, pentsamendu horiek oso zabaldua jarraitzen baitute. Dena den, gurasoen nahiak eta ilusioak hurrengo belaunaldiaren bizkarrean uztea oso ohikoa da eta ez da bakarrik hizkuntzarekin gertatzen: futbolari izan nahi zuten gurasoek haien bi urteko semeari pilota polit bat oparitzen diote, eta umea futbolari bihurturik aitak esan ahal izango du «me he visto realizado en mi hijo», gertatutakoaren kontzientzia hartzen badu behintzat, batzuetan hori esango du kontziente izan gabe ere.

Beraz, euskara ikasteko eta biziberritzeko ahaleginak beste batzuen bizkarrean utziz (umeak eta eskola/administrazioa) betetzen zuten garai hartako gurasoek haien euskararekiko konpromisoa. Egia esan, neurri handi batean gaurko egoera ez da asko aldatu; baina euskaltzale gehienek hezkuntzaren porrota azpimarratzen duten bitartean, guraso erdaldunen artean eskolak bere eginbeharrekoa bete duela- ko iritzia oso zabaldua dago: «mi hija, si sabe perfectamente el euskera, lo que no entiendo es por qué no le dan eso del EGA o como se llame». Hori esatea euskara jakin barik paradoxikoa da, baina tira...

Beraz, batzuentzat gutxiegi eta besteentzat nahiko, ez gauden hemen eztabaida sakona epaitzeko, dena den, egia muturren artean egon ohi dela diote.

*b) Corpora*

Corpusari dagokionez, 80ko hamarkadaren hasieran batua eta euskalkien arteko dikotomia eta barne diglosia gertatzen zen (Rotaetxe); gaur egun, aldiz, neurri handi batean gainditu egin da. Hala ere, barne diglosiak eta corpusaren plangintzak erantzukizun handia daukate oraingo egoeran, eta barne diglosia ez da erabat gainditu.

Izan ere, hiztun osatuen kopuru handi bat galdu egin da diglosiagatik (euskara/gaztelania) eta barne diglosiagatik (batua/euskalkiak). Kualitatiboki galera handia izan da. Hori noski bereziki Bizkaian eta Iparraldean gertatu da.

80ko hamarkadaren hasieran Euskal Herriko egoera orokorra diglosia anitzekoa zen. Alegia, bazen diglosia bat gaztelania eta euskararen artean eta beste bat euskararen barnean euskara batuaren eta euskalkien artean. Oraingo egoera asko aldatu da eta kontu handiz ibili behar da EHko edo behintzat EAEko egoera soziolinguistikoa diglosikoa dela esatean. Iparraldean eta Nafarroan beste kontu bat da eta han egoera diglosiko klasikoa (Ferguson eta Fishmanen ereduaren arabera) oso argia da.

Errepertorioak oso lotuta daude aipatutako corpusaren arazo honi. Izan ere errepertorio jaso eta kolokiala nahasteko joera izan da EAEn. Ondo gogoratu behar dugu batuaren asmoa hizkuntza idatzia eta jaso zela besterik gabe. Baina hemen aipatuko ez ditugun arrazoi pragmatiko eta ideologiko batzuegatik, euskara batua hitz egiteko hizkuntzat eta benetako euskaratzat jo da. Ondorioz, nahasmen bat gertatu da errepertorioetan eta jendearen behar komunikatiboekin ezin izan zaie erantzun. Maila kolokiala eta formala izatea eta ezberdintzea ezinbestekoa baita komunikaziorako. Autore dezentek hitz egin dute batuaren desagokitasunaz eguneroko bizitza egiteko (Sarasola, Múgica, e.a.).

Egoera soziolinguistiko normal batean, eskolaren helburua, hizkuntzari dagokionez, hiztunaren errepertorio formala osatzea izan beharko litzateke. Horretarako hiztegi zabalak eskuraraziz eta erabilera mailen arteko ezberdintasunak ulertaraziz. Egoera diglosiko batean, aldiz, helburua ezin da errepertorio jasoak bakarrik izan, bestela diglosia areagotzeko arriskua dago (egoera post-kolonialistak) edo kontra-diglosia bat abian jartzeko arriskua dago («normalizazio» egoerak).

Hala ere, maila jasoak lehentasuna izan beharko luke eta errepertorioak ondo ezberdindu beharko lirateke. Psikolinguistikaren ikuspegitik hori oso garrantzitsua da. Hizkuntzen ezagutzak ahalik eta zabalena izan behar du barneko mundua ahalik eta zabalena izateko (Bakthine). Jendearen asebetetzea honi lotuta dago. Hizkuntza gutxi ezagutzeak eta egoera elebidunetan hizkuntzen arteko desorekak frustrazioa sortzen dute. Barneko mundua bera lotuta, murriztuta dagoelako, edo barneko mundua adierazi ezin delako. Gainera, barneko mundua murriztua bada arazo baten aurrean, adibidez, irtenbideak aurkitzeko zailtasunak agertzen dira. Egoera berriei egokitzeko zailtasunak ere agertzen dira.

## **Aurrera begira**

### *a) Egoera soziolinguistikoa*

Jarrerari dagokienez, EAEko egoera soziolinguistikoa oso baikorra da momentu honetan. Dena den, plangintzaren aurkako iritzi gogorak agertzen eta zabaltzen ari dira azken urte hauetan. Hainbat faktore direla medio (egoera soziolinguistikoa, egoera ekonomiko gero eta zailagoa, immigrazioa, e.a.) iritzi ezkor bat zabaltzeko arriskua dago (eta zabaltzen ari da): gizarte hau egoera diglosikoan bizi da (kasu honetan kontra-diglosikoa): euskarak goi mailako lanpostuak lortzeko balio du (administrazioa = pribilegioa), erdarak aldiz behe mailako lanpostuentzako.

Plangintzak jendearen nahia izan behar du oinarri, bestela nekez egingo du aurrera; eta horretarako eskolaren pape-

ra handia da. Izan ere, plangintzak ezagutzaren zabalpena eta demokratizazioa EAE osoan lortu beharko luke, aurretik aurkeztutako iritzia zabal ez dadin. Baina ez hori bakarrik, helduei zuzendutako plangintza zehatzak, tokian tokiko egoera soziolinguistikoei egokituak, bultzatu behar dira ere. Horrekin ez dut noski egiten den lana gutxietsi nahi, plangintzak oso zehatza izan behar duela adierazi baizik, helburuak oso altu kokatu baitira.

Legeak hizkuntzei lotuta ezartzen dituen betebeharrak modu negoziatuan eta gizartearekin bat eginda erabakitzen ez badira, diglosia sortzen da. Diglosia hizkuntzen estatusari lotuta dagoen gizarte arazoa izaten da. Askotan legeak sortzen ditu estatusari lotutako arazo horiek, legeak gizartearen praktikarekin bat ez datorren prestigio bat ezartzen duelako. Hortaz, gizartean euskara jakiteko nahia bultzatu behar da, euskararen beharra, euskarari lotuta dauden hainbat aurreiritzi apurto behar dira: euskararen zailtasuna, euskara gaztetan ikasi behar dela, norbanakoaren garapen integrala euskaraz osa daitekeela frogatu behar da, e.a. Eta hori guztia ez bakarrik maila teorikoan, baizik eta praktikoan ere. Euskararen onarpen teorikoa altua baita maila guztietan, baina maila praktikoan ez da horrela.

Ikastetxeen egoera soziolinguistikoa dagokionez, alde-rantzizko egoera diglosikoari aurre egin beharko zaio: izan ere, ikerketa askotan frogatu denez, eskolako eremua zenbat eta informalagoa izan orduan eta txikiagoa da euskararen erabilera. Arazo hau konpondu behar da, egoera orekatu beharko litzateke. Dena den, ardura guztia eskolarena dela pentsa liteke?

#### *b) Eskolaren erantzukizunaz*

Europako hizkuntza «txikien»/minorizatuen ordezkape-na, maila kuantitatiboan, XIX. mendearen bukaeran eta bereziki XX. mendearen lehenengo erdian gertatu da. Ordezkapenaren tresna edo bide nagusia eskola izan zen garai hartan.

Galera kuantitatibo handiena eskolaren bitartez egin zenez, orain eskolari eskatzen zaio hizkuntza biziberritzeko ahalegina. Alegia, eskolak egin zuen gauza bera egin beharko luke baina alderantziz, hizkuntza minorizatuen mesedetan.

Hala ere garaiak eta egoerak ez dira berdinak. Eskolaren lekua askoz txikiagoa da orain: umeek eta gazteek esna-orduen ehuneko gutxi ematen dituzte eskolan. Gainera, estimulu linguistikoak ugaritu egin dira gizarte honetan eta haien sorlekua gero eta anitzagoa eta urrunagoa da.

Prestigioaren aldetik ere, eskolaren egoera askoz prekarioagoa da. Garai hartan eskola erreferentzia nagusia zen eta irakaslearen hitza ez zen zalantzan jartzen; gaur egun aldiz ia kontrakoa gertatzen da. Eskolak ezartzen dituen arauak eta hizkuntza ez dira erreferentzia nagusiak. Orain erreferentziak beste toki batzuetan aurkitzen dira: telebistan, kirolean, e.a.

Horregatik guztiagatik eta bereziki maila jasoarak erakusten duelako, nekez prestatuko ditu eskolak (bakarrik behintzat) hiztun oso batzuk, euskara erabiliko dutenak eta euskaraz biziko direnak.

Eskolaren erantzukizuna euskararen biziberritzearen ahaleaginean erlatibizatu behar da beraz. Katekesia eskolan ikas-teagatik ez gara bihurtzen gero apaiz ezta ere fededun; hizkuntzarekin berdin gertatzen da.

Ikusi dugunez, eskolaren mugak argiak direla dirudi. Hala ere, kasu praktiko bat hartuta, eskolak kanpoko hizkuntza batean hiztun ia oso batzuk nola presta ditzakeen ikusiko dugu. Bizkaiko frantses kolegioko ikasleak adibidez ia hiztun osoak dira frantsesetik eta osoak gaztelaniaz. Beraiekin hitz egitean, nekez sumatzen zaie, hasiera batean behintzat, frantsesak ez direla. Beraz, frantsesa ez den ingurune batean maila altuko hiztunak lortzen dira. Hortik galdera bat dator kiguru burura: euskararen ingurunean nola ez du lortuko eskolak hiztun oso batzuk egitea?

Hemen berriz ere maila kualitatiboa aipatu beharko dugu. Izan ere, Algortan frantses hiztun ia osoak lortzen badira

ere, Frantzian bertan auzo batzuetan arazo larriak izaten dituzte eskolak gauza bera lortzeko bertoko gazteekin, eta askotan ez du lortzen. Arrazoiak anitz dira eta EAEn eta Frantzian antzekoak lirateke. Dena den, hemen EAeko egoera aipatuko dugu bakarrik:

- Irakasleen prestakuntza hizkuntza mailan eta maila pedagogikoan.
- Ikasgelen betetze maila.
- Ikasten den hizkuntzari ematen zaion garrantzia (ikastetxearen filosofia, irakaslea, gurasoa, ikaslea eta erreferentzialak diren pertsonak ikastetxeari lotuak).
- Ikasteko materiala (liburuak, iturriak, e.a.).
- Hizkuntzarekiko enpatia: hizkuntzaren kulturak interesgarria izan behar du gaztearentzat, komunikatzeko eta *bestea* ulertzeko interesa izan behar du. Normalean, hizkuntza bat irakasteko, hizkuntza ez ezik kultura ere irakasten da. Enpatiari dagokionez, autore dezenteek aipatzen dute euskara despolitizatu behar dela (Atxaga, Sarrionandia, e.a.). Hurrengo puntuarekin lotura egiteko erdaldunen aurreiritzi bat apurtu behar da: Euskal Herriko (maila geografikoan ulertuta) kultura ezin da bakarrik gaztelaniaz ulertu. Alegia, honelako esaldiak ez lirateke entzun edo pentsatu behar: «¿Para qué aprender euskera? Total, todo el mundo habla castellano y no me pierdo nada del País Vasco hablando sólo en castellano».
- Aurreiritziak eta errepresentazioak: euskara hizkuntza zaila dela, txikitatik ikasi behar dena, e.a. Halako aurreiritziak apurtu behar dira. Aditza adibide argia izan daiteke, euskarazko aditz taula osoa pare bat orrialdetan sartzen da, ez da gauza bera gertatzen hizkuntza erromanikoetan non salbuespenak anitz diren.
- Hizkuntzalaritza, estrukturalismoa eta komunikazioa: gazteen arabera maila gramatikala baino ez da irakasten, eta urtetan zehar klaseak errepikakorrek dira (Lezeta...).
- ...

Luzaro jarraitu ahal izango genuke gogoetak eginez eskola eta hizkuntzaren berreskurapenari buruz eta luzaro jarraitu beharko dugu Euskal Herriko egoera soziolinguistiko eta administratibo anitza ikusita, baina hemen lekua eta denbora agortzen ari zaizkigu. Pentsa dezagun eta elkartu ditzagun iritziak, beraz, munduko ezagutza soziolinguistiko eta aniztasun linguistikoa aberastu dezagun...¶



## Metroko ahoan

Goizero bezala, milaka lagun irentsiko ditu gaur ere metroko ahoak. Hasi Santurtzin eta Bilboraino. Berdin Plentziatik Bizkaiko hiribururaino, eta honago nahi izanez gero. Euskal Herriko hiri eta herri jendetsuenak hartzen ditu bere baitan Bilboko metroak. Hiri metropolitanoa dugu horregatik. Ez da inondik inora euskal hiria Euskal Herriko hiria. Atean sartzearekin bat, papera irentsiko du metroaren ahoan sartzen den hiritarrak, goizero bezala.

Han, metroko atean. Papera nagusi. Eskainiko dizute *Nervi6n*, aukeran dituzu *20 minutos*, *ADN*, *Metro* edota *Qu6 Bilbao*. Kioskoan baino egunkari aniztasun handiagoa, aukerara. Eta doan. Eskura, kioskoan bertan. Paper banatzaileak, garai bateko «prentsa!, prentsa!» ezagun eta ia zinematografiko hartatik. Baldintza txarretan, ordu gutxi lan egiten duen goizeko doako prentsaren banatzaileak esnatuko zaitu bezperako loguratik. Doako albisteek esango dizute munduan ze berri, Euskal Herririk ez dela, hizkuntzarena etxeko kontua dela, zenbat emakume jipoitu dituzten bezperan edo iaz hiriburuan. Bilboz ari direla pentsatu gura duzu. Hiriburua beste bat da. Beste batzuk dira. Kapitala ez dago hemen, ez da hemengoa. Gu ez gara kapitalistak. Gu hartzaileak gara.

Correo Vocento taldeak azkar ikusi zuen bazetorrena. Eta metroa hartzen lehena izan zen. Agian bere kalterako. Egun milaka irakurle galdu ditu Espainiako egunkari arrakastatsuenak. *Nervi6n* sortu zuen, baina errekarara bota dutena *El Correo* bera izan da. Eusten dio, handia delako, baina doako prentsak milaka irakurle galarazi dizkio. Non eta sortu zuen hirian, hiriburuan, Bizkaian. Eta gero beste egunkari mantxeta batzuk etorri dira. Arrapaladan. Bata bestearen atzetik.



Recoletos taldearen *Qué* horrek, *Qué Bilbao* galdetuko dio irakurleari goizero Cervantesen hizkuntzan, Unamunorenean erantzungo dit metro barruko oihartzun azkunarrak. Eta *20 minutos*, nazioartean den berdinarenean filial gaztelaniazkoa. Creative Commons lizentziarekin kaleratzen dena, Interneten sekulako arrakasta duenez —blogak, edizio eguneratuak, zuzendariaren blog interesgarria egunero...—, paperean ere kazetaritza hiritarra egin guran. Izan ere 20 minutuko irakurraldia da gutxi gorabehera gure hiriburua barneko ibilbidea. Azkar irakurtzen dituzu 8 edo 12 orriok. Goitik behera, titular nagusiak letra handitan, titular erakargarriak, argazki ugari eta testu gutxi. Orri gutxi batzuk eta orrialdeak metro geltokiak baino gutxiago. Astean zehar baino ez.

Europar hedapen gehien duenak ere egon behar zuen gurean, zergatik ez. *Metro* da nagusi hirietako geltokietan. Nazioarteko multinazionala da prentsaren alorrean. Gurean ere egin du bere tokitza. Ez oso handia. Hedapen horretan zabaltzen lagunduko dio Bilbon egoteak. Mundura begira baitago gure hiriburua ere. Metrotuta dago, horregatik. Beste paper mordo bat. Eta azkena, momentuz: *ADN*. Eta ez da frogatua. Baina Opusak berak ere frogatu gura du prentsaren joko hau. Iruñean den, beraz gure beste hiriburuan, Nafarroako Unibertsitateak zeresan handia dauka komunikabideen munduan —Komunikazio fakultate ona, multimedia arloan kokapen estrategikoa, medioen ezagutza, dirua eta boterea—, eta diru eta inbertsio apur bat egin du doako prentsaren zurrumbilo honetan. Eta geltokiz geltoki, doako letrez ase da bidaiaria. Ez doaz inora, baina zakarrontziak paperez beteta ikusiko dituzu lehen ordurako. Kafea baino lehen makina bat letra inprimatu irakurri ditu bulegora doan. Ase du bere informazio gosea. Agentziek, teletipoez, Internetetik eta gertutik jasotakoak irakurri ditu, bizkor-bizkor bulegora bidean. Doan. Metroko ahoan.

Aho bete hortz euskalduna. Gura badu goizero bezala kioskora joan beharra dauka, besteak baino garestiagoa den euskarazko egunkaria badauka. Oztupoak oztupo erosiko

du, kiosko honetan ez bada bestean. Metroa hartu aitzin, bihurtzuna hartu beharko du euskarazkoa eskuratzeko. Edo agian erosi barik, bulegoan irakurriko du. Agian. Edo gero tabernaren batean, edo gero. Edo ez du euskarazko prentsarik irakurriko, eta han metroko ahoan emandakoarekin konformatu beharko. Edo ez.

Esan dizuet, Euskal Herri erdia baino gehiago da Bilboko metroa. Mundua topatuko duzu gelditzen ez den bultzian. Gelditzerik ez dagoen bidaiari. Eta ahoa beti zabalik. Zer esana ematen duen bidaiari. Zer irakurria. Eta zer pentsatua, paper barik ere. Baina euskaldunarentzat ez dago asetze informatiborik. Kioskotik pasatu behar du lehenago. Euskaldunak ez du kapitalik, antza. Euskaldunaren hiriburua ez da Bilbo. Ez oraindik. Ez luzarorako. Euskaldunak ez dauka metroan irakurtzerik, metropolian euskaldunago sentitzerik. Euskalduna jauregi bat da gurean, palazio eder bat, kongresuak aztertzeko, azterketak antolatzeko, hemen bazen hizkuntza bat kongresua egingo dizute, mintzo ziren errango dute, azterketa soziolinguistikoen emaitzak zabalduko dituzte noizbait, Euskaldunan. Bilbon. Metropolian. Biharamunean metroko ahoan irakurriak izango direnak. Han.

## **Euskarazko letrak neurtzen**

Ez naiz aditua estrategian. Ez dakit taktikaz. Ondo goazela ez nuke esango. Ez nuke etsi nahi halere. Ez geneukana daukagu egun. Eta egunero euskaraz bizitzeko beste tresna baditugu. Kalitatea labela da. Eta eusko guztia baserriko produktu da. Hedabideetan labela kanpokoia da. Baloratua eta aipatua. Baina guk baditugu argialetxe batzuk, telebista batzuk, irrati zenbait eta paper mordo bat. Baditugu zientotika kazetari, dozenatik gora zuzendari, komertzial mordoia mokoka, inprimategi batzuk eta kamioi edo furgonetaren bat. Baina estrategia komuna falta zaio buruzagi gehiegi dituen enpresa txiki honi. Ez da holdinga, ez da grupo bat, ez da korporazioa, ez da ezer. Baina euskarazko berbek badi-

tuzte medioak. Euskarak badu presentzia. Euskarak badu eroslea, egunero, astero, hilero, urtero sosak begia belarria eskua hor daukana. Oraindik. Baina, baliteke estrategia komun bat falta izatea euskararen medioei. Eta ez soilik enpresariala. Euskarak marketing apur bat behar du, behar du sinesgarritasuna, behar du modernitate apurtxo bat, behar du presentzia, behar ditu estadioak, behar du laguntza, behar du publikoa, behar du masa kritikoa, behar du audientzia, behar du pazientzia. Euskarak behar du. Eta neurtezina da hori guztia. Baina behar du.

Eta euskararen jardunak ez du adostasunik. Ez goitik ez behetik. Ez kalean, ez etxean. Ez Iruñean, ez Gasteizen, ezta Baionan ere. Lege, arau, akordio, engaiamendu, erakunde publiko, hizkuntza politika eta enparauen gainetik, ondolik, azpitik... Euskarak behar du. Eta metroa zain daukagu.

Eta euskarazko prentsari, besteen lasterketa honetan, emaitza berak eskatzen zaizkio. Merkatuak eta norberak, jabeak eta iragarleak, publikoak eta instituzioak. Normala da, baina ez da normala. Egoera ez normalizatuan, normala behar luke bestelako joera batek ere. Gurea eta merkatuarena, norberarena eta iragarlearena, instituzioarena eta publikoarena... guztiona. Baina ez da. Eta euskarak behar du.

Orduan zertara dator Eusko Jaurlaritza bezalako erakunde batek CIES elkartean izena ematearena? Eta gogoeta egin genezake horretaz. CIES —azterketa soziologikoak egiten dituen elkartea, medioen audientziak neurtzen besteak beste— horretan egonda, medioen hedapenaren kontrolean lehen mailako datuak izango ditu. Ordainduari zor. Eskura izango ditu horrenbeste kezkatzen gaituen hedapenaren, audientzia posibleen datuak. Gero geroakoak. Ondorioak izango ditu Jaurlaritzaren pauso horrek. Onerako? Subentzio politika berri bat ekarriko du ziurrenik. Eraginkortasuna bilatu gurako du. Euskarazko medioek ere, helburu berriak jarri beharko dizkiete bere buruei. Batzuek neurtzen dute bere hedapena. Baina inprimategian bakarrik. Merkaturan, kalean... neurtu beharra ere badago, dagoeneko. Eta

Patxi Baztarrikaren Jaurlaritzak datu asko kudeatuko ditu aurrerantzean. Ikusteko dago.

## Metroan etxera

Lanak bukatuta, gogoetak aparte utzita, lanera doa bidaia-ria. Egun osoko jardunak aztoratuta oraindik ordaintzen ari den etxera heldu da, geltokitik gertu. Jatekoak errespetatu, etxeakoak etxekotu eta etxeko nagusiari so. Hitzak, irudiak, soinuak, egiak eta gezurrak partitzen dituen kutxari. Gaztea-goak beste pantaila batzuetara konektatuta dauden bitartean, etxeko kontsentsu guztia sofatik gidatzen den mandoak dauka. Edo telebistak gidatzen du mandoa bera ere? Astotuta gu. Sakatu bat, sakatu bi, hiru, 23, 44, channel, kanal, canal... ezberdinak. Adituko duzu english, french, taichi, si, rent, sale... erosi edo eroski... ez dakit nik zenbat botoi saka-tu dituzu, baina etxean mintzo duzuen hori ez da ageri. Ez duzu erraz topatuko. Ahalegina eginda ikusten saiatuko zara, gero eta zabarragoa —barka, zaborra esan nahi nuen— den simaur euskarazko telebista ere. Metroko ahoan dator-kizu gogora. Zer da hau? Non sartu ote naiz? Ze lehia? Hori-ek ere doan dira. Eta lotara orduko, liburua irakurtzeko go-go gutxirekin, ia loak hartu zaitu. Etxepare irakurri duzu be-rriz ere. *Linguae Vasconum Primitiae* horretan gaude orain-dik, inprentaren garaian, 1545ean. Aurrera egin dugu. Zen-bat? Metro bat ez oraindik.

## *race to save basque language*

Baina aurrera egin gura dugu ordea. Komunikabideetan ez bada, mintzoan. Erabilpenean, hezkuntzan, lantokietan, hizkuntzan. Eta ari gara, ez garelako gelditzen. Aurrera jo nahi dugu. Joan. Jokatu. Jolastu. Eta jo eta ke ari gara horre-tan. Eta korrika egitea besterik ez dugu euskaldunok. Ez metro bat, ez bi. Ez kilometro bat. Herri oso bat dauka hiz-kuntzak egiteko, zeharkatzeko, lehena eta oraina eskutik

heltzeko. Eta horretan ari da oraindik, duela 27 urte baino gehiago hasitako lasterketa horretan. *Linguae Vasconum Primitiae* has daiteke Arantzazun 1980an hasi zen bezala, 1968an hasi zen bezala; *Linguae Vasconum Primitiae* has daiteke Karrantzan, 2007an hasi den bezala. Buka daiteke Iruñean *Linguae Vasconum Primitiae* batzuek gura luketen moduan. *Lingua navarrorum* denik ere ukatuta. Buka deza-kegu Bilbon. Edo metroan gura baduzue. Baina gure *Linguae Vasconum Primitiae* ez amaitzea, jarraitzea, irakurtzea gura badugu, Etxeparetu beharko dugu denok. Diren tresnarik eraginkorrenak, modernoena, ausartenak hartu. Bordeleko inprimategi guztiak gureganatu... eta jalgi beharko dugu. Korrika, oinez, uhinetan, hegaz eta satellite bidez. Plazara eta mundura.

Eta horretan ari ginela, e-posta mezua iritsi zitzaigun Vancouverretik. Hiritar kazetaritza egiten zuen batek idatzita, Korrikako fotoak argitaratu berri genituenoi publikatzeko baimena aukera eskaini eta eskatu zigun. Eta berak albistea egin zuen han, hirian nowpublic.com izeneko metagunean, gureari buruz, gureaz, munduan ezagutzera emateko moduan. Eta milaka eta milaka sortzaile, kazetari, irakurle, hartzaile dituen Interneten Korrika *race to save basque language* dela ikasi genuen euskaldunok, ikusi zuten munduan. Batzuek. Nowpublic.com kazetaritza eredu berri bat badela ere ikusi genuen euskaldunok, oraindik petoa kentzeke genuela. Argazki kamera digitala eta bideoak hartzeko tramankulu ezin txikiagoa poltsikoetan harriak lez sartuta, zapatilak ondo lotu barik abiatu ginen *race to save basque language*, euripean eta Euskal Herri osotik. Eta mundu gara orain, metroko ahoan sartu barik ere. Behar bada, lurpean baino etorkizun hobea duelako gureak lur gainean. Euskal Herrian. ¶